



Txipi Ormaetxea filologo arrasatearra omendu dute | 28

Europako musikariak herririk herri oraingo asteburuan | 'Herriak'

PAZKOAK 2016
Bergarako jaien gaineko xehetasunak | 31



Arrasate Literatur Lehiaketaren finalistak | 29



Astlehenean zabalduko dute Aretxabaletako komentuko lorategia | 20

Mondra eta Bergara, Ohorezko Ligara igotzeko lehian

Bi jardunaldi geratzen dira Erregional Preferenteko liga bukatzeko | 27



IMANOL SORIANO

Herri galdeketaren data aldatu egingo dute

Erabakitzeko eskubideaz galdetuko dute | 2

Gorlako Igoeran lehiatuko diren pilotuen artean, 23 eskualdekoak

Bihar, zapatua, jokatuko dute Bergarako auto probaren 25. aldia | 26



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Maite Aristegi, diputatu ohia
- 25. aldia du Gorlako Auto Igoerak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

2016KO MODELO BERRIAK
armazoa + erreflexuen aurkako lenteak

Ray-Ban 139€

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

SINADURAK

Erakartze perfektua? | 6
JOKAN LARRAÑAGA

Torreazoko krosa, Abizaran | 6
MIREIA BIKUÑA

Sorry, Mariana! | 11
AITOR OROBENGA

Hezitzailea, berritsu | 14
SAIDA GARTANO

Aroztogia eta gero zer? | 18
AINHOA NEGERUELA

Zortea | 22
AITOR ABIRIANO

Otoi, zatoz etxera! | 56
AINTZANE OIARBIDE

Erabakitzeko eskubidearen galdeketa-data aldatu dute

- ▶ Espainiako hauteskunderen errepikapenak eragin du aldatu beharra
- ▶ Egunotan erabakiko dute noiz egin, baina ez da ekainaren 12an izango

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Gure Esku Dago eta Erain Debagoiena aukera guztiak aztertzen gabiltza, abokatuekin batera, ahal bada, erabakitzeko eskubidearen gaineko herri galdeketa ekainean bertan egiteko. Izan ere, gure nahia da ekainean bertan egitea, baina ez dakigu hori posible izango den. Edozein modutan, egunotan argituko da Debagoieneko herri galdeketa noiz izango den. Argi dagoena da ez dela ekainaren 12an izango".

Erain Debagoienatik, bada, asteen konfirmatu dute otsailaren amaieran iragarritako herri galdeketa data zein izango den berraztertzen dabiltzala.

Kanpaina tokatzen da

Izan ere, joan den otsailaren amaiera ezker aldatu egin da errealitate; bereziki, eta bozketak/kontsulta kontuekin lotuta, oraingo astean ziurtatu delako Espainiako Gorteetarako hauteskundeak errepikatu egingo direla, ekainaren 26an errepikatu ere. Horrek eraginda, eta ikusita erabakitzeko eskubidearen gaineko herri galdeketa-egunak bat egingo duela Espainiako hauteskunderen kanpainarekin (ekainaren 10ean, egubakoitza, hasiko da hauteskudeetako kanpaina), Erain Debagoienak erabaki du eskualdeko herri galdeketa data aldatzea.

7.000 sinadura pasa

Otsailaren 27an, Arrasaten jakinarazi zuen Erain Debagoienak erabakitzeko eskubidearen gaineko eskualdeko herri galdeketa ekainaren 12an (domeka) egingo zutela. Zein galdera egingo duten ere jakinarazi zuten orduan: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?*. Eta herri galdeketa posible izateko Debagoieneko eta Aramaioko 65.000 biztanleen %10 baino gehiagoren sinadura lortu beharra zutela ere adierazi zuten.

Gutxieneko 6.500 sinadura horiek lortu dituzte, kopurua gaitzute ere bai (7.000 sinadura pasa eskuratu dituzte dagoeneko),



Iaz Urbian egindako moduan (argazkian), Elosuan egin gura dute. | IMANOL SORIANO

eta oraindik ere sinadurak batzen dihardute. Era berean, herri galdeketa ekainean egin edo bestelako data batean egin, bien bitartean erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimenak egiten jarraituko dute.

Eskubidea irudikatu

Urrunegi joan barik, oraingo asteburuan pare bat halako antolatutuzte: Debagoieneko Mus Txapelketa, batetik, eta Elosurako igoera, bestetik.

Mus txapelketari dagokionez, gaur bertan (barikua) hasiko dira

Debagoieneko Mus Txapelketaren kanporaketak, herriz herri (finala maiatzaren 21ean jokatuko dute Aretxabaletan). Eta Elosurako igoerari dagokionez, etzi, domeka, izango da. Iaz Urbian egin zuten moduan, aurten Elosuan gura dituzte erabakitzeko eskubidearen aldeko herritarrak elkartu. Hala, Bergaratik, Antzuolatik eta Azpeititik igoko dira oinez bertara. Eta 12:00etan "irudikatuko" dute erabakitzeko eskubidea. Bergaratik 10:00etan abiatuko dira, udal pilotalekutik; eta Antzuolatik, 09:30ean, herriko plazatik.

'Fracking'-aren kontrako indarrak berraktibatu egin gura dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak etenda utzi du, behin-behinerako, Euskal Autonomia Erkidegoaren *fracking*-aren kontrako euskal legea. Hala egin du Espai-

niako Gobernuak Legebiltzarrean onartutako legearen aurkako helegitea tramitera onartu ondoren. "Halako zerbaiten beldur bageunden, baina, Espainiako oraingo gobernuak jardunekoa

dela-eta, hurrengo gobernuak eratu arte ez zutela erabakirik hartuko pentsatu nahi izan dugu", aitortu dute Debagoieneko Fracking Ez Plataformako Arantza Palaciok eta Maritxu Goikoetxea kideek. "Erabaki honen arabera, eta behin betiko erabakia etorri arte, legea ezin da aplikatu. Kontuan izan behar da bost hilabete dituela Konstituzionalak ebazpena emateko eta Katalunian gertatu dena ikusita (bertan behera utzi du behin betiko), ez litzazuke harrituko bide beretik etortzea".

Fracking Ez Eguna

Kontuak kontu, *fracking*-aren kontrako Debagoieneko plataformak sistema horren kontra "lanean" jarraitu gura du: "*Fracking*-aren mehatxua gure lurretatik erabat ezabatzeke". Hori horrela, debagoiendarrei dei egin die datorren maiatzaren 14an, zapatua, Azpeitian egingo den Fracking Ez Egunean parte hartzeko.

Goizetik gauera arteko ekitaldiak antolatuko dituzte; 10:30ean hasi eta auejko ordu txikiak arte. "Goizean, bilera ireki eta informatiboa antolatuko dugu, azkenengo mugimendu legal hauen berri emateko, eta horien aurrean zer egin dezakegun eta nola antola gaitzuteen eztabaidatzeko", azpimarratu du Goikoetxea. Eta hortik aurrera, aisialdiari eskainiko diote tarte: frackolinpiadak izango dira 17:30ean plazan eta kontzertuak 22:30ean gaztetxean.



Oiarbide atzo, eguna, Batzar Nagusietako agerraldian. | DIPUTAZIOA

"Segurtasuna lehenetsiko" dute Antzuola-Bergara zatia egitean

JOSU BILBAO | DEBAGOIENA

"Azterketa geotekniko sakona egin da" proiektua idazterakoan eta "arazo handiak azaleratu" dira. Horrek aurreikusita zegoen kostua baino handiagoa izango dela ekarriko du.

Hala jakinarazi zuen atzo, eguna, Aintzane Oiarbidek, Bide Azpiegituretako diputatuak, GI-632 errepideko Antzuola-Bergara zatiaren proiektuaren nondik norakoak Batzar

Nagusietan azaldu zituen. Diputatuak adierazi zuen "hasieratik" esan zutela, "Deskargako obren aurrekariak ikusita, arduraz" jokatuko zutela, eta "idazketan bertan, ohikoa baino azterketa geologiko sakonagoa" egingo zutela. "Eta azterketa geologiko horiek detektatu dute arazo handiak daudela Antzuola eta Bergara arteko tramu horretan", esplikatu zuen, besteak beste.

Uraren Bidea: Jaturabetik Aitzulora, domekan zortzi

Maiatzaren 15ean, Parketxe Sare Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatutako bigarren mendi irteera egingo dute. Uraren Bidea izenarekin, 13 kilometroko ibilbidea iragarri dute: Jaturabetik hasi eta Aitzgain, Orkatxategi eta Aitzulo ikusiz. 09:00etan aterako dira Arrikrutzeko aparkalekutik.

Iparraldeko ikastolen aldeko jaira joateko autobusak daude

Etzi, domeka, egingo da Herri Urrats, Senpereko lakuaren bueltan, *Euskara jalgi hadi mundura* lelopean. Bertartzeko autobusak antolatuko dituzte Debagoieneko euskara elkar-teen: Aretxabaletatik (Azbe) 08:45ean, Arrasatetik 09:00etan (Garibai) eta Bergaratik 09:15ean (autobus geltokia). 19:00etan bueltatuko dira.

FAGOR

FAGOR ARRASATE

2016ko OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Data: 2016ko maiatzaren 26an, osteguna.
Ordua: 08:30ean lehen deialdian, eta 09:00etan bigarrean.
Tokia: AMAIA ANTZOKIAN, Arrasaten.

EGUNeko AZTERGAIK

1. Aktak onartzeari buruzko informe eta akordioa.
2. 2015eko Gestioari buruzko akordioa.
3. 2015 Urteko kontuen azterketa.
4. 2015 Urteko Emaizten banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
6. "MONDRAGON INDUSTRIARAKO AUTOMATIZAZIOA" Dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
7. 2/2016 Araua, Kooperatibako bazkideen aurrerakin maila ezartzeari buruzkoa.
8. 3/2016 Araua, Kooperatibako bazkideen emaitzen banaketari buruzkoa.
9. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
10. Kooperatibako kontu hartzaileen izendapena.
11. Zaintza Batzordea berritzea.
12. Kontseilu Soziala berritzea.
13. Fagorreko Batzarreko ordezkariak hautatzea.
14. Galderak eta eskariak.

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 6an
Aritz Otxandiano Campo
Errektore Kontseiluko Lehendakaria

Euskara "altxorra" dela argi utzi dute Gemma Zabaletak eta Reyes Pradosek

Bi euskaldun berriek ikasketa prozesuan bizitakoak partekatu dituzte Arrasaten, AEDk gonbidatuta

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Gemma Zabaleta, PSE-EEko buruzagi ohia, eta Reyes Prados, ETBko aurkezlea, gonbidatu zituen AEDk Arrasatera. Zer eman dizu euskarari? Zer eman diozu euskarari? galderak erantzun guran euskara ikasteko hartutako erabakiaren gainean, ikasketa prozesu horretan bizitako inguruan eta beste kontu askoren bueltan jardun zuten biek ala biek, Goienako Txomin Madina kazetariak gidatuta.

Egoeraren aurrean baikor

Belaunaldi ezberdineko bi emakume, jatorri ezberdinekoak, baita ibilbide guztiz ezberdina izan dutenak ere. Eta biak euskararekin maiteminduta. Hiru urte baino gutxiago daramatzate ikaste prozesuan murgilduta, eta argi dute komunikatzeko tresna baino gehiago dela hizkuntza, Euskal Herriko kulturara gerturatzeko bidea, hain zuzen ere. Gainera, usteen kontra, ez dela hain zaila ikastea adierazi zuten: "Edozein ikasketa prozesuk bezala, bere zailtasuna du, baina ez da hainbestekoa; hori bai, gus-tura egin behar... Norberaren jarrera oso garrantzitsua da", zioen Zabaletak.

Euskarak bizi duen egoeraren aurrean baikor agertu zen Prados: "Gero eta euskaldun berri gehiago gaude eta gero eta ume gehiagok erabiltzen dute. Umeak dira atzetik datozen belaunaldiak; hortaz, urte batzuk barru euskara gehiago entzungo dugu, eta



Zabaleta eta Prados, eguaztenean, Kulturaten. | IMANOL BELOKI

leku gehiagotan". Zabaleta bat etorri zen, baina oraindik bultzatu beharra dagoela zehaztuta: "Aurrerapauso asko eman ditugu, eta, zorionez, umeek eta gazteek ikasteko aukera dute. Baina beste pauso bat da erabiltzea, eta horrek beste bultzada bat behar du, bai gizartearen, bai administrazioaren aldetik". Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen direla jakinik, hor ere sustatu behar-kolitzatekeela uste du. Hala ere, ez dela gazteen kontua bakarrik gaineratu zuten: "Adina ez da aitzakia. Gizarte osoaren erantzukizuna da; erantzukizuna eta pasioa".

Euskara ikasi gura dutenei gomendiorik garrantzitsuena eman zien Pradosek: "Lotsa albo batera utzi. Euskaldun zaharrek gure ahalegina eskertzen dute eta bultzatzen gaituzte aurrera jarraitzera. Egin dezagun ba, berba, horiekin!".

'Lasterbidean' herri ekimena ekainaren 5ean da Araian

Korrika aldarrikatuko dituzte euskal errepresaliatu politikoen eta horien gertuko eskubideak

M.A. | ARRASATE

Laugarrenez deitu dute *Lasterbidean* nazio elkartasun lasterketa, eta horren berri emango dute gaur, egubakoitza, Arrasaten egingo duten prentsaurrekoan. Ekainaren 5ean izango da laugarrenez egingo duten herri ekimena, aurtengoan Araian (Araba).

Egun osoko festa

Euskal errepresaliatu politikoen eta horien gertuko eskubideen aldeko elkartasun adierazpena orain dela hiru urte sortu zuten. Hiru herrialdeetatik pasatu ostean aurtengoa Araban da, Araian hain zuzen ere. "Kirolean oinarritutako elkartasun herri ekimena da", jakinarazi dute antolatzaileek, eta gaineratu: "Ehunka dira euren etxetik urrun bizi diren

euskal herritarrak: espetxean, ihesean edo deserrian. Eta egun ere, euren eta horien senideen eskubideak urratuak izaten jarraitzen dute". Hala bada, *Lasterbidean* ekimenarekin hori guztia ozen adierazi gura dute izerdia botata.

Egun osoko egitaraua gertatuko dute ekainaren 5erako. Goizean bi motatako lasterketak izango dira (izena emateko: www.herrikrosa.eus) eta ondoren jai giroa kaleetan: animazioa, ekitaldiak, herri bazkaria, zozketak... "Errepresaliatuek ere hartuko dute parte euren lagunak eta senideak Araia gonbidatuta eta euren eskulanak sari gisa emanda". Eta debagoiendarrak ere gonbidatu dituzte festara: "1.500 lagunek korrika egitea lortu nahi dugu. Laster bidean, laster etxean!".

GEMMA ZABALETA

PSE-EEKO BURUZAGI OHIA



"Euskara ikastea zen luzaroan egiteke izan dudana, eta, bizitza politikoa bukatu nuenean, instituturara bueltatzea erabaki nuen. Hiru urte daramatzat dagoeneko, eta helburua ez da bakarrik ikastea, hemendik aurrera erabiltzea baizik. Komunikatzeko tresna edo baliabide bat baino gehiago da, kulturara gerturatzeko bidea, eta, azken finean, nire nortasuna indartzeko modua. Halaxe bizi izan dut ikasteko prozesua, eta altxorra topatzea izan dela euskara ikastea esango nuke".

REYES PRADOS

ETB-KO AURKEZLEA



"Errespetuagatik ekin nion euskara ikasteari; Euskal Herrian bizi naiz eta euskara da hemengo hizkuntza. Hiru hilabeterako etorri nintzen, eta hasieran ez nion garrantzirik eman; gainera, nire ingurua ez da batere euskalduna. Baina gero konturatu nintzen euskarri garrantzitsua dela, Euskal Herria eta euskal herritarrak behar diren bezala ezagutzeko hizkuntza behar-beharrezkoa dela. Eta lanerako ondo etorri zait; zeinek esango zuen ETB1en saio bat izango nuenik! Nire ahaleginaren saria da".

Bergarako lantegia egokitu egingo du Danobat Groupek

Tamaina eta zehaztasun handiko makinak egingo ditu han, eta 2,5 milioi inbertituko ditu

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

Danobat Group talde kooperatiboak Bergarako lantegiko lurtzoria egokituko du, makina handiagoak produzitu ahal izateko. Elgoibarren duen lantegian ere obrak egingo ditu, hura handitzeko. Bi ekintza horiek Danobat Groupen lidergoa sendotze aldera doaz.

Tamaina eta zehaztasun handiko makinak egingo ditu Bergarako lantegian. 2,5 milioi euroko inbertsioa egingo du enpresak -epe luzerako inbertsioa da, arduradunen esanetan- eta urte amaieran hasiko ditu egokitze lan horiek. Datorren urteko produkzioari begira egindako lanak izango dira eta 6-8 hilabete bitartean iraungo dutela aurreikusten dute. Fresaketa eta torneatua nahastu dituzten erabilera askotariko makinak izango dira, eta

egungo lurtzoria ez da horretarako aproposa, makina unitibertsalagoendako eginda dago eta.

Egokitzapen lanek irauten duten bitartean, produkzioa eta langileak Elgoibarko eta Sorluzeko lantegietan sakabanutuko dira.

Zuzendari berria

Danobat Groupen gaineko berriekekin jarraituz, maiatzaren 3an, Makina Erreminta dibisioak eta Mondragon Korporazioko Industria Automatizazioko Dibisioako Kontseilu Errektoreak izandako bileran erabaki zen gaur egun Danobat Koop. E.ko zuzendari gerente Pello Rodriguez izendatzea bi dibisioetako zuzendari. Oraingo zuzendari nagusia, Iñigo Uzin, Korporazioko presidente izango da abuztuan.



Bergarako lantegiko zuzendari Xabi Altzaga, fabrikari bertan. | ENEKO AZURMENDI



Felix Kerejeta, Coprecin. | GOIENA

Felix Kerejeta | Ingeniaria eta sortzailea

"Beti daude oraingoak baino soluzio simple eta merkeagoak, eta horiek bilatzen ditut nik"

Urteko Asmatzailearen Galbahe saria eman dio Galbainek Coprecin ingeniariari

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA

Jabetza Industrialaren Erakundeak, Galbainek, Urteko Asmatzailearen Galbahe saria eman dio Felix Kerejetari. Zumarragarri izatez, Arrasaten ikasi zuen Ingeniaritza, eta Coprecin dabil 1986tik. 23 patente-familiatan parte hartu du, bai asmatzaile nagusi gisa, bai parte-hartzaile gisa.

Espero zenuen Galbahe saria?

Ez, ezustea izan da niretako. Azken urteotan, harreman nahiko estua izan dut Galbainekin, baina ez nuen pentsatzen inoren lana bistartatzeko jarduerarik egiten zutenik. Harritu egin nau ere izan duen oihartzunak. Sari honek

are gehiago motibatzen nau egiten dudana egiten jarraitzeko.

Asmatzaile, sortzaile... zelan aurkezten duzu zure burua?

Sortzailea deitzen diot nire buruari. Beste batzuei akaso oharatu gabe pasatzen zaizkien gauzei beste buelta bat eman eta emaitza desberdinak lortzeko gai naiz. Horretan datza Coprecin egiten duzun lanak?

Berrikuntza Saitetik nator, produktu berriak sortzeko lanetik, eta Kompetentzien Zentroan nago orain. Kompetentzien Zentroa berria da, baina lan dinamika eta egiteko modu hori 2005 inguritik dator. Merkatuak eskatzen

"Isilpean egin behar dugu lan, bezeroek ere lehia egin diezaguketelako"

"Bezero baten premiak eta arazoak gisa hartzen ditut beti"

Langabeziak apal egin du behera apirilean Debagoiengan

JOSU BILBAO | DEBAGOIENA

Langabeziak urte hasierako %11ko tasa urratzen jarraitzen du Debagoiengan, baina, apal bada ere, behera eginez. Urte hasieran baino 26 langabe gutxiago daude. Arrasaten, ostera, gora egiten jarraitzen du langabeziak, 1.503 langaberekin (%14,41).

Joera negatiboak, hilabeterik hilabete, urte hasieratik eutsi

dion udalerrri bakarra Arrasate da. Urtarrilean 1.474 langabe zeuden Debagoiengo herri nagusian eta 1.504 langabekoa da maiatzeko kopurua. Eskoriatzaren kasua antzekoa da, 217 langaberekin eta apirilean %10,72ko tasa, %0,5 hazi da langabezia. Bergaran, berriz, martxotik apirilera bitartean, 34 lagunek aurkitu dute lana eta %9,98ko tasarekin amaitu zen apirila.

zituen soluzioak emateko lanean dihardut; ordura arte egiten genuenetik modu desberdinean erantzuten saiatzen gara. Nik aukera hori izateko hainbat faktore daude: elektrikan eta mekanikan dudak esperientzia, ikasketekin eta enpresan hartu dudana; enpresak eman dizkidan erraztasunak; eta garrantzitsuenak, bezero baten premiak edo arazoak erronka gisa hartzea. Erronka horrek eragiten dit soluzio sinpleak eta merkeak bilatzea, eta beti daude soluzio horiek, momentuan daudenak baino hobek direnak. Nire bizitza arruntan ere, eguneroko gauzak egiten, burutazioak izaten ditut eta arazo zen gauza bati konponbidea eman diezaioket. Hor jaiotzen da sormena. Hurrengo pausoa da buruan duzun hori paperean ipintzea, eta patentea sortzea.

Gero, enpresak onartu beharko du zure proposamena, ezta?

Bai; lehenengo, taldean azaltzen dut ideia, konpartitzeak bisio zabalagoa ematen duelako. Eta gero, zuzendariarekin, erabakitzen da zer egin: patentea egin edo ideia gisa gorde; izan ere, patentea egitea eta edukitzea oso garestia da. Batzuetan, patentea eginda uzten dugu, lehiakideren bat aurreratu ez dadin, edo egin eta produktua sortzen da segidan. Emango diguzu zuk asmatutako gailuen adibideren bat?

Balbula lehortzaile bat, osagarri bat; lehiakideek egiten duten gauza bera egingo dugu, baina beste modu batera. Lehiakideen soluzioak guztiz bestelakoa zen bat diseinatu nuen, ekonomizatu, eta horrek merkatu berri baten sartzeko aukera eman zigun; gaur egun, AEBetarako balbulak egiten ditugu. Beste adibide bat da gasezko sukaldak elektronikatzeko balbula bat. Osagarri horiekin, indukziozko edo bitrozeramika sutegi baten moduan funtzionatuko duten gasezko sutegiak egin ahal izango ditugu, ukimenezko teklatuarekin, berrizte-maila oso zehatzekin eta egosketa denbora baten bere horretan edukitzea aukerarekin.

Zure lana isilpean egin beharrekoa izango da, ezta?

Bai, sekretupean ibili behar izaten dugu, bai lehiakideenganako, bai gure bezeroenganako ere; izan ere, bezeroek ere egin diezagukete lehia. Gainera, lehen, osagarriak bilatzen genituen, eta orain, soluzioak, hau da, gailua edo aplikazioa, guk egiten ditugunak sal daitezten eta ez lehiakideenak.



ULMA Forja, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2016ko maiatzaren 13a
Ordua: 9:00etan lehen deialdia eta 9:30ean bigarrena
Tokia: Santa Ana antzokia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.1. 2015eko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.2. 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditora berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42 artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en desinbertsioa
 - 9.1. Dibisioko Hedapen Fondo bat sortzeko erabakia eta ondorioz MONDRAGON INVERSIONES, S. Coop.en baja hartzea
 - 9.2. Bigarren mailako sozietate kooperatibo bat eratzea, bere Estatutu Sozialak onartzu
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
 - 10.1. 2015ean IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 10.2. 2016an IPDK-k aplikatzeko proposamena
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
 - 12.1. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
 - 12.2. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Ahalmenak eskuordetzea
17. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Forja, S. Coop.eko (aurrerantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena. Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertutako ahal izan dituzten. Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (i) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska dituzketela; eta (ii) "Etorizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onespenez proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko kooperatiba elkartei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinarazten gaiten Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.1 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinarazten gaiten zateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.2 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko apirilaren 29a

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

LAURA ALUTIZ
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

MIRARI KORTA
Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NAGORE ARANBURU
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18, solairu artea, esk
685 72 01 42

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UNAI SERRANO
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA
(AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA
goiena.eus/komunitatea/



Erakartze perfektua?

Gipuzkoako Diputazioak diru sarrerak bermatzeko ematen duen errenta (DSBE) kentzeko asmoa adierazi du. 2018ra arte izango omen da aukera hau, diru iturririk ez dutezentzat eta gutxieneko 3 urte errolatuta daudentzat.

Ondo dago tokian tokiko arazoak konpondu nahi izatea eta bide berriak bilatzea eta horretarako neurri politikoak hartzea. Baina aitortu beharra daukat Diputazio honen Gizarte Politikarako diputatu Maite Peña hartu duen erabakia ez zaidala bate-re gustatu, etorkinek jasotzen baitute gehien diru laguntza hau.

Maite Peña andreak hainbat arrazoi jarri ditu neurri hauek hartzeko: erakartze efektua ekarri duela diru sarrerarik ez dute nei laguntzea, migrazio isuri artifiziala ekarri duela Gipuzkoara, kanpaina horretarako jarri ziren helburuak ez direla bete; lurralde arteko oreka hausten duela; ez dituela arazoak konpontzen eta bai beste batzuk sortzen; ez diola laguntzen onuradun pertsonak txertatzeari...

Badut tratua etorkinekin: astero Caritasen hainbati harrera egitean, oso egoera zail eta gogorak ikusten ditugu: zerua goian eta lurra behean, eta bizi egin behar. Ume txikiak eta familia aurrera atera nahian euren herriak utzi eta lana eta bizimodua bilatu behar.

Hemen, berriz, hemengoek egin nahi ez dituzten lanetan dabilta, zaharrak zaintzen; askok 22 orduz dihardute. Bestetik, kultura desberdinekoak direla-eta zailago dute lana aurkitzea -janzkerak, azaleko kolorea, erlijioa desberdina...-.

Haiek horrela tratatzea neurri erabat desegokia iruditzen zaigu. Bestetik, mezu hau ematen zaigu: gaudenok ondo bizi gara hemen, baina ez daitezela gehiago etorri, ez baitzaigu iristen denontzat.

Ondo legoke giza eskubideen 13, 14 eta 15. atalak irakurtzea eta gure arbasoak hemendik ihes eginda Ameriketara joan zirenean nola hartu zituzten gogoratzea.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.eus

Torreuzoko krosa, Abixaran

Antxintxiketan Kirol Elkarteak lekukoa pasa dio Abixaran taldeari. Azken hori izango da Oñatiko Torreuzoko krosa antolatuko duena. Beste erronka bat emakumeen kirola bultzatzeko asmoz sortutako taldearendako. Lanean dihardute buru-belarri: lanak banatu, babesleak topatu, batzarrak egin... Hori guztiori, uztaillaren 3an egingo den krosa behar den moduan irten dadin. Antolatzaileen lana ezinbestekoa da halakoetan, baina, arrakasta borobila izateko, korrikalarien parte-hartzea ezinbestekoa da. Dagoeneko izena eman dezakezue www.herrikrosa.eus atarian. Bestalde, informazio gehiago daukazue *Torreuzo Abixaran* facebook profilean.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Enbor beretik jalgiak

Eneko Gorri
<http://goo.gl/4GB0uf>

Badator Herri Urratsen 33. loraldia. Euskal Herriko lurralde guzietatik milaka herritarrek Senperen bat eginen dute euskara eta ikastolen alde. Famatu egin den afrikar legenda parafraseatzeko, kolibriaren antzera bakoitzak eginen du bere ekarpena. [...]

Baina funtsean, Herri Urratsen maite dugun herria zein den oroitarazten digu ere. Instituzioetatik asko itxoi ten ari garen garaiotan, 1979an nehorren baimenik gabe eta bere bidea eginez sortutako ikastolen ibilbidea aurpegiarazten digu. Auzolanaren, autogestioaren, kolektiboaren eta elkartasunaren indarra azpimarratzen du. Hamar milaka kolibri errezibitzeko, milaka xinaurri lanean hasiak dira jada aintzira inguruan. Eta bere alternatibak eraikitzen dituen herriaren irudi horrek, preziorik ez du! Dudarik ez zaila dela guraso berriak erronkez jabeaztea, boluntarioak mobilizatzea,

arau berriei egokitzea... baina enbor baten gisa, belaunaldiz belaunaldi transmititu den Herri Urratsen sortutako adaxkak zenbatezina dira.

Hauen artean da EHZ festibala. 2010ean, laguntzaile belaunaldi berriak lehen urteak ezagutu ez zituela konturatutik, Arrosako sortzaileak gomiatu genituen gurekin solastatzera. Haien aitzinekoek bultzatutako makro festaz jelskor, "zerbait handi ere egiteko gogo" piztu zitzaizela azaldu ziguten. Horrela sortu zen hiru eguneko musika festibala, garaiko kode eta giroan erroturik. Haziz eraikitzen den herri baten historia da gurea eta gazteria da bilakaera horren erregaia. Gauza bakar bat transmititu behar balitz, militantziaren obratzeek duten edertasuna litzateke.

Prentsarena

Samara Velte
<http://goo.gl/fU1uHM>

Karl Valentin komediantea harritu egiten zen, munduan beti gertatzen zelako justu egunkari batean kabitzeke adina. Kasualitatez gogorazi zidaten atzo prentsa

askatasunaren aldeko eguna izan zela, inguruko jendea bat-batean zentsura kasuak salatzen hasi zenean han eta hemen.

Ziurrenik ez da egongo munduan gauza aspergarriagorik kazetariak kazetaritaz hizketan aditza baino; galdetu gure adiskideei bestela. Baina urtean behin jarriko da jendea gure ofizioaren alde, eta aprobetxatu beharko irakurleoi eskaera bat egiteko: arren, prentsa askatasunean sinesten baduzue, utzi egunkariak "objektiboak" izan behar dutela esateari. [...] Egunkariak kazetariak egiten dituzte; kazetariok ere pertsona arruntak gara, gauza batzuetan —geroz eta gutxiagotan— sinesten dugu; eta, batzuetan, hilekoak sabelaren behealde birrintzen digun bitartean erditzen gara artikuluek. Geuk erabakitzen dugu zerk merzei duen albiste izatea eta zerk ez, eta, batzuetan, goragoko indarretara moldatu behar izaten dugu, jaten ematen digutenek ere euren marra gorriak dauzkatelako. Beraz, ez eskatu objektibotasunik prentsari, ezta irakaskuntzari edo zientziari ere. Eskatu kriterioa, kritikotasuna eta autokritika.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uthane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bagebitzen, bagabitz eta zeuekin danokin albuena, ibiliko gare

Jone Iribecampus

(AGAKO)

Arrasate

25 urtek askorako emun daue eta baita beratu ospatzeko antolatutako apirillak be.

Hamaika izen die antolatutako ekintzak eta benetan poz-positik aillagau gare hille bukaerara, herrixaren erantzuna kristorena izen da eta jasotako laguntza baita. Beraz, eskerrak emutia besteik ez jaku geraketan hillabete honi bukaera borobilla emuteko!

Eskerrrik asko dantzari, trikitalari, txalapartari, albokari, bertsolari, txistulari eta kiliki eta konpartsetako jentiarri; eguraldixa lagun ez euki arren, gurekin batera kaliak alaitzera urtetiagatik.

Eskerrrik asko beste mundu bat eraikitzea bidian azoka alternatibuan parte hartu ziñuten proiektu guztiei, eta, batez be, antolaketa lanetan ibili zan Josuri.

Eskerrrik asko artisau eta nekazari gazte guztixei, zeuen lana ezinbestekua dalako amesten dogun Arrasate hori lortzera bidian. Biba zuek!

Eskerrrik asko, Oihan eta Jone, apirillian zihar komunikaziñuaz arduratziarren eta baita Oihan eta Txomiñei be, bideo eta argazki guzti horreingatik!

Eskerrrik asko SUDCeko sukaldarixei; zeuek bezelako *gazte* gehixau behar dittu herrixak!

Eskerrrik asko Atxabaltako gaztiei; zeuen *enbajadaxoren* baten zain geraketan gara!

Eskerrrik asko Txatxilpurdiri, zeuen lanari esker bixarko gaztiak gaztetxia gertuau sentiduko daue eta!

Eskerrrik asko oholtza gainetik pasau zarien talde guztiei, bereziki zeuei, Ain 1, zeuen poesia gaztetxero hori ederra izan zan. Malkuak ataratia lortuta, ezer gutxi geraketan da esateko...!

Eskerrrik asko Garita eta Marixoli, gure inguruak eta gure historixa gehixau ezauketako aukeria emutiarren!

Eskerrrik asko Kepa eta Pulei be, ekitaldirako prestatutako oparixengatik, hurrengo ekitaldixa oholtza gainetik egin deizuen lanien jarraituk dogu!

Eskerrrik asko Kooltur Ostegunei, bai apirillian egindako lanagatik, eta baita urtian zihar ostegunero-ostegunero gaztetxia musikaz betetiagatik be!

Eskerrrik asko Arrasaten bide lagun izan dittugun taberna laguntzaille guztiei: Txoko, Taupa, Taxka, Osorik, Amaiur, Etxoste, Dat, Jaizale, Iluntz, Ekaitz, Okoretegi,

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Bengoa, Monte, Kimetz, Irish Pub, Nahi, Ederra, Iturri, Kajoi, Itzala, Rumba, Ezkiña, Irati eta Espres tabernei!

Eta ezin eskertu barik itxi urte guzti honeittan, gaztetxian modu batera edo bestera parte hartu dozuen gazte danok! Zeuekin albuena eta autogestiñua ardatz hartuta lanian jarraituko dogu gune aske hau eraikitzen eta, zela ez, herrixa gune askez josten... Eskerrrik asko!

Normalizazio politikoa predikatzea eta aurpegia edukitzea

Maddi Txintxurreta

(Oñatiko Ernaiko kidea)

Oñati

2014ko maiatzean, Debagoieneko Ernaiko kideok topaketa batzuk antolatu genituen Herrialde Katalanetako Arran gazte antolakundeko kideekin. Topaketa hauen helburua zen bi herrialdeetan bizitzen ari garen egoerak elkarrekin konpartitu eta hausnarketarako espazio bat irekitzea.

Prestatu genuen jardueretako bat izan zen gazte kataluniarrekin Debagoiengan zehar bisita gidatu bat egitea: Arantzazura joan ginen euskara batuaren sorreraz hitz egitera, Oñatiko atez ateko zabor bilketa sistema ezagutzeko aukera eman genien, Angiozarrera joan ginen AHTren obrak ikustera, Arrasaten kooperatibismoaz aritu ginen... eta Bergarako epaitegi parean ere geratu ginen torturaz hitz egiteko. Euskal Memoria taldeko kide bat ekarri genuen horretaz hitz egiteko. Hitzaldi horren ostean etorri zen eguneko sorpresa.

Autobusera gindoazela, Ertzaintzaren patruila bat agertu zen eta bi lagun identifikatu zituzten –hitzaldia eman zuena zen horietako bat–. Beraien azalpena izan zen baimenik gabeko kontzentrazio bat egin genuela. Lagun kuadrilla bat kalean eserita hitz egiten aritzea delitua da, nonbait...

Duela gutxi 375 euroko isuna iritsi zaio Euskal Memoria taldeko kide horri.

Hori ikusita, barregera besterik ezin dugu sentitu EAJko kideak askatasunaz, tolerantziatz eta bizikidetzaz hitz egiten entzutean. Aurpegia behar da gero normalizazio politikoz hitz egiteko! Hau al da Eusko Jaurlaritzak eraiki nahi duen agertoki demokratikoa?

Benetan penagarria iruditzen zaigu beste herrialde batzuetako kideei hemen bizi izan den –eta bizi den– egoera erakutsi nahi izateagatik isun bat ordaindu behar izatea. Noraino iristeko gai zarete kaleak zuei gustatzen ez zaizkizuen diskurtsoetatik garbi mantentzeko ahalegin horretan? Kezkagarria da benetan PNV eraikitzen ari den *neofrankismo* egoera.

Tortura salatzeagatik torturatua

Aritz Arnaz Laskurain

Oñati

Polizia espainiarrak 8 lagun atxilotu berri ditu Nafarroan, ustez tortura salatzen duen mural bat egiteagatik, Guardia Zibila iraintzearen akusaziopean. Aztnugal famatuaren egileak eta berarekin atxilotutako beste kideek tortura basatiak salatu zituzten –*laguntza* alderantziz idatzita utzi zuen atxilotuetako batek bere sinaduraren orde-. Torturaren eta isolamenduaren aurkako idatzia aurkeztu zuten eta Euskal Herrian zein espainiar estatuan oso eremu desberdinetako pertsona zein eragileen atxikimendu ugari bildu dituzte. Paco Etxebarriak eta bere taldeak torturaren inguruan egin duten lanak polizia guztiek –Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak– modu sistematikokoan torturatu dutela baieztatzen du. Hor daude testigantzak, ikusi edo entzun nahi dituenarentzat. Hor daude torturak utzitako hildakoak, zaurituak, eta oraindik ere bizitakoak kontatzera ausartzen ez direnak.

Ni neu torturatua izan naiz bi aldiz Guardia Zibilaren eskuetan 1991n eta 1994an, hori ahalbidetu duen lege antiterroristaren babespean. Niri egindako basakerien testigantza ere hor dago Torturaren Aurkako Taldeak

egin ohi zituen errekopilazioetan bildua eta epailearen aurrean salatua.

2014ko maiatzean, bailarako gazte talde batek gazte kataluniar batzuei nire testigantza azaltzeko eskatu zidaten. Ni ez naute atxilotu Nafarroan gertatu den bezala, baina Ertzaintzak identifikatu egin ninduen eta 375 euroko isuna jarri didate. Tortura salatzeagatik atxilotuak edo zigortuak izan behar dugu? Hori al da egun Eusko Jaurlaritzak egin nahi duena, gure testigantzak ezkatatu eta eurek alor honetan izandako erantzukizuna ezkatatu? Ze zerbait argi badago da hemen tortura erabaki politiko batzuen baitan exekutatu dela; hau da, Espainiako eta hemengo alderdien babesik gabe ez litzatekeela hau guztia gertatuko. Horrengatik, berak beste batzuei exijitzen dien bezala, EAJri exijitzen diot ez ditzala torturaren aurkako hitzaldiak isunekin zapuztu eta aitortu diezaiola herri honi torturaren aferan dagokion erantzukizuna, Ertzaintzak egindakoagatik eta besteek egin izan dutenean beste aldera begiratzeagatik. Bitartean, torturatuok ez gara isilduko.

Bergarako frontoian...

Guillermo Azkarate-Askasua

Barrutia

Bergara

Larunbat gaua, apirilaren 23a. Nire herriko, Osintxuko, dantza taldeak –Musiraka Dantza Taldea– azkeneko aldiz jendaurrean dantzatzan zuen... bai ote?

Konprenigarria da: taula gainean horrenbesteko ikuskizuna jartzeko, atzean eta ezkutuan lan asko dago, eta hasiera duen denak bukaera du, egia da.

Dena dela, ez nuen uste horren ondo dantzatzan zutenik, txundituta geratu nintzen eta barruko harrotasun batekin nire herrikoek hain gauza ederra sortzeagatik, zirrarara bat etorri zitzaidan barrenera dantza bakoitzean.

Joan edo ez joan egon nintzen, zeren autorik ez dudanez ez bainekien nola bueltatuko nintzen; azkenean, lagun batzuekin egin nuen joan-etorria.

Baina goazen ikuskizunaren

harira: Bergarako frontoia beteta zegoen eta ikuskizuna zen biolinekin, biola, txelo eta beste instrumentu batzuekin musika, poesia errezialdi bat eta dantza.

Uste dut dantza izan zela ikuskizun handiena eta txalo gehien jaso zituena; hitz baten esanda, harrigarria.

Hiru gauza aipatuko nituzke –nahiz dantzen gainean ez jakin deus–:

-Janzkerak.

-Gaur egun kokatutako dantzaldiak, nahiz oinarriak dituen lehenean.

-Handitasuna, indarra dantzatan.

Gauza hauen guztien artean, ikusleak harrapatuta geratu ziren eta betetako frontoia osoki dantza taldearena izan zen.

Altueran egon ziren musikariak eta poesia errezitazalea, baina, nire ustez, dantzan egitea plastikoagoa da musika edo hitz neurtuak entzutea baino. Zorionak, Musiraka!

Musiraka dantza taldeari

Josu Elorza eta Leire Iruin

Bergara

Pena handiz idazten ditugu lerro hauek. Apirilaren 23koa *The last dance of Musiraka* izan zen.

11 urte pasa dira osintxuar talde honek, herrian nabari zuen hutsune bati erantzuteko asmoz, Musiraka dantza taldea sortu zuenetik. Euskal dantzak oinarri hartuta, bestelako erritmoekin fusionatuz, makina bat plaza eta eszenatoki bete dute. Bete laguntzeko prest, edozein ekitalditan parte hartzeko gertu, trukean ezer eskatu gabe.

Izugarritzko ikuskizun batekin agurtu ziren urte hauetan guztietan euren alboan izan diren zale guztiez, Orkestrako ganbera taldeko musikari eta Uxue Agirre poetarekin batera. Pilotalekua txiki geratu zen osintxuarene merezitako agurra emateko. Pozak eta tristurak elkarri eskua emanda, ordubete pasako bidaia magiko batera eraman gintuzten. Betiko iraungo du guztion bihotzetan azken emanaldi hark. Jendea zutik, txaloka, sentimenduz, azken agurra ematen.

Eskerrak eman Amaia, Manex, Nekane, Garazi, Kristina, Elene, Nerea, Ane, Aintzane, Enya eta urte hauetan Musirakako partaide izan zaretenoi. Eskerrrik asko kulturaren, Bergararen eta herrigintzaren alde egindako lanagatik. Herriko kulturak asko galtzen du zuen agurrarekin.

Egun batez, guztiok sentitu ginen osintxuar. Harro egon zaitezke urte hauetan egindakoaz, pilotalekua bete genuenon admirazioak

betiko iraungo du.

Zuen olerki hau bueltan eskaini nahi dizuegu:

*Bizi izan degun dena
oroitzapen bihurtzean
triste baina ilusioz
bukaera ematean.
Berriz elkartuko gera
beste bideren batean
eskerrik asko Musiraka
ondo bizi bitartean*

Zorionak eta mila esker 11 urte hauetan egindako lanagatik.

Besarkada bero bat taldekide guztioi.

Galdeketaren zilegitasuna: sinadurak eta parte-hartzea

Felipe Uriarte eta Xabier Igartua
(Erain Debagoiena Oñatiko kideak)
Oñati

Erain Debagoiena-n antolatzen ari garen galdeketak zilegitasuna du eta bi zutabe hartzen ditu kontuan: sinadurak eta galdeketaren parte-hartzea.

Gure sinadura eskaintzerakoan, itun bikoitza ari gara izenpetzen.

Alde batetik, norberaren buruarekin. Itun horren bitartez esaten ari gara eskubide demokratiko batekin ados gaudela, eta nola ez gara, bada, ados izango eskubide demokratiko batekin? Eskubide demokratiko hori erabakitzeko eskubidea da, eta eskubide horren arabera onartzen dugu gure euskal komunitateak eskubidea duela bere etorkizunerako estatus politikoa erabakitzeko.

Beste alde batetik, gure komunitatearekin, non adierazten dugun komunitate honetako herritarrek garelako, herritar osoak izan nahi dugula eta erabakietan parte hartu nahi dugula. Debagoiengan egingo den herri-galdeketa zilegitasuna irabazten du sinadurekin. Ez da soilik Erain Debagoiena-ko kideen nahia, atzetik milaka debagoiendarren borondatea dago beraien sinadurarekin batera.

Galdeketaren parte-hartzea: boza ematea. Galdeketa parte hartzerakoan, eta gure boza ematerakoan, bai edo ez delarik, erabakitzeko eskubidea gauzatzen ari gara. Une horretan, boza ematerakoan, sortuko dugu eskubidea. Behin baino gehiagotan esango digute eskubide hori ez dela existitzen, legedian ez dagoela. Ez ziren existitzen greba-eskubidea, emakumeek botoa emateko eskubidea... ere, baina grebak eginez sortu zen eskubidea, eta gero legeak etorri ziren, grebak edo emakumeen botoa arautzea.

Debagoieneko herri-galdeketa emaitza ez da gauzatuko, jakitun gara. Baina Goierrin, Azpeitian,

Diman, Debagoiengan eta beste herri batzuetan egingo diren galdeketekin, herritarren borondatea pilotzen joango gara. Erabakitzeko eskubidea egikaritzeko prozesuak zilegitasuna irabaziko du, bozka bakoitzaren atzean erabakitzeko nahiaren adierazpena dagoelako.

Biharko egunean, 1.800.000 euskal herritarrok erabakitzeko hautua egingo badugu, nork eta zein argudiorekin ukatuko dio euskal komunitateari erabakitzeko eskubidea?

Sinadurekin eta parte-hartzearekin zilegitasuna irabaztera goaz. Erabakitzera goaz!

EAJk ez du gezurrik esan

Lourdes Idoiaga
(EAJko zinegotzia)
Oñati

EAJ-PNVren lana gutxiesteko asmoz, manipulazioaz eta irainaz baliatu da, beste behin, Oñatiko alkatea. Hala ere, ez gara haren jokoa sartuko, hori ez baita gure eredu; ez da gure estiloa. Guk errespetua, etika eta duintasuna ditugu oinarri.

EAJk ez du gezurrik esan. 2016ko aurrekontuen harira, hauxe da esan duguna: gobernuak aurkeztutako aurrekontuek ez dituzte jasangarritasun eta oreka-irizpideak betetzen, ezta gastu-arauak ere. Horixe bera esan zuen kontu-hartzaileak ere bere txostenean (2015.12.03). Txosteneko 10 eta 11. orrialdeetan, gainera, kontu-hartzaileak dio udalaren kaudimen ekonomikoa neurtzen duten 6 adierazleetatik, 4 negatiboak direla.

Orain arte esandakoa egia ez balitz eta gezurretan ibili izan bagina, gobernuak ez zituen 2017ra atzeratuko duela 3 hilabete onartutako inbertsio-partida batzuk. Jokaera horren aurrean, alkateak esan du "ohiko kreditu aldaketa" izan dela. Baina askoz neurri larriagoa da, hain zuzen, Finantza-Txostena egitea eta Aldundiaren esku-hartzea saihesteko neurria da. Guk adierazitakoa dokumentuen bidez frogatu daitekeen egia da.

Alkatearen hitzek helburu dute herritarren arreata desbideratzea eta justifikatu ezin dena justifikatzen saiatzea. Bere salaketek, ostera, ez dute gure erantzunik merezi; alkateak irainetara eta salaketetara jo du, hartu duen erabakia defendatzeko. Gure ustean, hori ez da alkate bati dagokion jokatzeko modua.

Dena den, EAJren kudeaketaren emaitza eta ondorioa begi bistan daude, eta herritarrek badakite bereizten; ondo baino hobeto bereiztu ere! Guk oñatiarren interesen alde lanean jarraituko dugu, eta

gobertu-jarduera zorrotz jarraituko dugu, ardurarekin jokatu eta proposamen berriak egingo ditugu. Lan horren lekuko dira, hain zuzen, 2016ko aurrekontuetan aurkeztu genituen proposamen guztiak.

Gu iraintzen saiatu ordez, hobe luke alkateak lanari ekitea, badu-eta nahikoa lan aurrekontuak kudeatzen. EAJk ez du gezurrik esan.

Antzuolar guztioi lapurretan

Mikel Kerexeta Kortabarría
(AKEko lehendakaria)
Antzuola

Ondorengo lerro hauek gizartearen aurrean Antzuolako Kirol Elkartek (AKE) salaketa egiteko jarritako lerroak dira. Azken hiru hilabete baino gutxiagoan lau lapurreta izan ditugu Eztala futbol zelaiako aldagelatan eta tabernan.

Azken aurrekoan, desfibriladorea eraman ziguten, besteak beste, eta pasa den astean egindakoan, jarri berri genuen kafe-makina. Horiez gain, ateetan, markoetan, kalte handiak egiten dituzte lapurrek.

AKEk momentu honetan dituen 140 jokalaririk futboleko aritzeko, Udalaren, gurasoen, boluntarioen eta herritar gehienon partaidetza behar-beharrezkoa da.

Beraz, lapurreta hauek antzuolar guztioi eragiten digute eta, azken finean, gure gazteek futboleko aritzeko eskura izan ditzaketen baliabideak gutxitzea dakar.

Lapurretan dabilenen batek hau irakurtzen badu, jakin beza guk ez dugula etsiko, eta gero eta zailago izango duzuela balore gutxienerako bat duen edozer handik eramatea.

Biziki eskertuko genuke herritarren batek gaiari buruzko informaziorik baleuka, gurekin harremanetan jartzea. Eskerrik asko.

Arrasateko alkateari gutuna

Maidor Morras Azpiazu
(Arrasateko Herri Eskolako Guraso Elkartean izenean)
Arrasate

Azkeneko urteetan, Arrasaten ditugun hezkuntza eredu ezberdinek –ikastolak eta eskola publikoak– ahalegin handia egin dugu, elkarren arteko lehia albo batera utzita, elkarrengana hurbiltzeko eta lankidetzan aritzeko. Horren adibide, Korrikaren hainbat ediziotan Korrika Txikia elkarrekin antolatu izana, Arrasateko Euskalgintzaren Mahaian eskuz esku aritzea, kirol hezkuntza proiektua edota Arrasatek Hezi ekimenean batera jardutea. Azken batean, bion ala bion helburu dira,

nork bere lan egiteko moldeetatik eta hezkuntzaz daukan ikuskeratik, gure haur eta gazteei kalitatezko hezkuntza eskaintza, errespetuan oinarritutako baloreak lantzea, bat egitea eta herriko eragile aktibo izatea.

Bide horretan, guztiz arduragabeak eta kezagarriak iruditzen zaizkigu Maria Ubarretxena alkateak pasa den apirilaren 25ean On Jose Maria Arizmendiarrizaren omenezko ekitaldian egindako adierazpenak. Arduragabeak, hezkuntza eredu bat goraiatu zuen bezala goraiatzeak kalte egiten diolako ereduaren aniztasunean eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzari. Eta kezagarriak, udal hautetsiek, oro har, eta berariaz alkateak, herritar guztiak ordezkatu behar dituelako, herri osoari zor diolako bere lana; hautu pertsonal ororen gainetik, berdintasunetik eta justiziaz.

Bide batez, agerraldi hau aprobetxatu nahi dugu eskola publikoaren inguruan geroz eta hedatuagoak dauden zenbait aurreiritzi ukatzeko.

Arrasateko hezkuntza publikoa kalitatezkoa eta euskalduna da. Aitzindaria sistema pedagogiko eta metodologietan. Irekia eta aberatsa bere aniztasunean, giza balore, solidaritate eta kooperazio printzipioetan oinarritzen dena eta Arrasatear langile, guraso eta seme-alabez osatua.

Okerrak okertuta

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Aurreko otsailean sartu zen *Modern Express* itsasontzia oker-oker eginda Bilboko portura. Okerren bat egin ote zuen? Dirudienez, 3.600 tona egur mugitu ziren itsasontzia okerrarazteraino, eta kontrolrik gabe gelditu zen, nora ezean, Kantauri itsasoan.

Nik uste dut gertaera hori beste seinale bat gehiago dela, gaurko gizarte oker dabilela adierazten duena.

Arriskuak txikitzen ditugu, autoritateek esaten zuten ez zegoela arriskurik, nora ezean dabilen itsasontzi bat bere barnean 300 tona fuel eta 180 tona gasolio daramatzala, 3.600 tona egur zekartzan Afrikako Gabon herrialdeetik.

Hemengo autoritateek denuntzia sartu dute egur hori legez kanpo ateratakoa ote den.

Badakigu munduan gero eta baso gutxiago daudela, eta, horren ondorioz, gero eta basamortu gehiago.

Ez dakigu legez kanpo zenbat zuhaitz kentzen duten; gizakien jardura zoro hau planeta okertzen ari da eta ondorengo belaunaldien bizitzeko baldintzak okertzen ari gara.

Hildako egurrak itsasontzia okertu duen bezala, bizirik dagoen egurrak planeta hau zuzendu lezake, baina, horretarako, gero eta zuhaitz gehiago egon beharko luke.

Enpresa elitismoa suspertzen

Julen Lizaso
Hernani

Urte bakarrean CNMCren eta AVCren bi multarik handienak iruzurragatik administrazio publikoari zerbitzua eskaintzen dieten enpresei.

Zerbitzu publikoaren eskusibitatea lortzeko asmoz trikimailu ilegalak erabili, puztutako aberastasuna lortzeko. Bestalde, ezinezkoa alde kontratatzailearen konplizitate gabe, Tolosan gertatu zen maltzurkeria bezalako, nahiz eta teknikoki legala izan, Zubietako errauskailuaren *swap*-aren antzeko blindajea.

2015eko urtarrilean, Kompetentziak FCC eta beste batzuk multatu egin zituen 98,2 milioiko isunarekin, hamahiru urtetan, gutxienez, zaborren kontratuak banatzeagatik elkarren artean. Faktu hauen artean, FCC eta ACS arteko aipatzen du, non 2009an adostu zuten estatuan suertatuko ziren lizitazio guztietara batera aurkeztea, hondakinen aprobetxamendu energetikoen lantegiak eraiki eta ustiatzeko, gaur Zabalgarbin %60 dutela, eta Zubietakoan, nahiz isilpean gorde, berdina izango zen.

Eusko Jaurlaritzak kontratatu zituen eskola *catering*-enpresak bezalaxe, berdin-berdin.

Gipuzkoako udalerrietako gobernu aldaketek aldakuntzak ekarri dituzte zaborren bilketen sistemetan. Kasu paradigmaticoa Tolosakoa, non lehen etxetik hurbil jasotzen baziren 240 litroko edukiontzi mugikorretan, orain 2.400 litroko edukiontzi erraldoietan egiten da.

Aurreko sisteman lurraldeko edozein enpresa lehiatu zitekeen zaborra biltzeko kamioi txikiekin, baldintza berean. Edukiontzi berriekin, IBEX-35eko enpresa *erraldoiak* bakarrik *lehiatu* daitezke, eta helbide fiskala EAetik kanpo dute.

Prebrikaziorako hurbil dauden trikimailu teknikoak dira, beti enpresa oligopolioen mesedetan... kasu honetan *zaborren kartelarena* eta bestean ikastetxe jangeletakoa.

Gizartearen aberastasuna sortzea, ahalbidetuz berdintasun justuan sortuko den gizartearen hazkundera... zein zaila jartzen duten! Bitartean, gizarte oker berdintasunen zulgune insolidarioa handituz eta handituz doaz; Einsteinek zioen bezala: "Erokeria da, emaitza ezberdinak esperoan egotea beti berdina eginez".

HERRIAK

ONATI



Javi Marquez taxilaria, egitasmoaren sustatzailea. | ENEKO AZURMENDI

Auzo-taxi zerbitzua

- ▶ Maiatzean jarriko dute martxan, eguna zehaztu gabe badago ere
- ▶ Auzoetatik hirigunerako eta alderantzizko zerbitzua eskainiko du

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Auzo-taxi zerbitzua martxan jarriko du Oñatiko Udalak datoen asteetan. Auzoetatik hirigunerako eta alderantzizko zerbitzua eskainiko dute herriko sei taxi-gidariak, egitasmo honen baitan.

Zerbitzu hau landa-auzoetan erroldatuta dauden lagunei eskainiko zaie, betiere, autobus zerbitzu publikoa auzotik pasatzen ez bada eta auzunetik geltokira dagoen distantzia 350 metro baino luzeagoa bada.

Irizpide horiek kontuan hartuta, aukeraketa bat egin du Udalak, eta baldintza horiek betetzen dituzten baserrietako egoiliarrendako deialdia luzatu du. Eskaera epea maiatzaren 13ra arte egongo da zabalik.

Izena ematen dutenei txartel pertsonalizatu bat egingo die Udalak, norberaren argazkiarekin eta datu pertsonalekin, eta, zerbitzua erabiltzen duten aldiro, txartel hori erakutsi beharko diote taxilariari, bidaia hasi baino lehen. Adingabeei dagokienez, gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute zerbitzu hau erabili ahal izateko.

Eskaera epea amaitzean, beharrezkoak diren prozedurak egin eta zerbitzua martxan jarriko da. "Izena ematen dutenek eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatu, hauei txartelak tramitatu, eta zerbitzua martxan jartzeko moduan egongo gara. Maiatz bukaerarako abian egotea espero dugu", esan du Itziar Iglesiasek, Landa Garapen, Auzo eta Ingurumen teknikari laguntzaileak.

Proba moduan funtzionatuko du hasiera batean. 18.000 euroko

aurrekontua dute proba honetarako, eta diru hori gastatzen denera arte egongo martxan zerbitzua. Dituen emaitzen arabera, zerbitzua eskaintzen jarraitu edo ez erabakiko du Udalak.

Javi Marquez Oñatiko taxi-gidariarena izan zen egitasmo hau aurrera eramateko ideia. "Bizkaiko herri batzuetan zerbitzu hau erabiltzen zutela ohartu nintzen eta Oñati bezalako herri batendako egokia izango litzatekeela pentsatu nuen, auzoetan jende asko bizi da eta. Udaletxean nire asmoak azaldu, eta baiezkoa jaso nuen, gustatu zitzaien", adierazi du.

Iglesiasek gaineratu du herrian bazegoela bete beharreko hutsune bat auzoetako herritarrek hirigunerara gerturatzeari dagokionez. "Mugikortasun planaren barruan, auzoetako herritarrek hirigunerara gerturatze beharra zuten eta eskaera bazegoen. Zerbitzu honekin arazo hau konduko dela uste dugu", dio.

Astelehenetik ostiralera 07:30etik 20:00etara eskainiko da taxi-zerbitzua eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara. Domeketan,

berriz, ez da zerbitzurik eskainiko. Bidaia bakoitzaren batez besteko kostua 11 eurokoa izango litzatekeela kalkulatu dute. Hala ere, erabiltzaileak 2 euro ordaindu beharko ditu eta gainontzekoa Udalak ordainduko du.

Mattin Agirrebengoa Torreaurren bizi da eta ez dauka autorik. Haren ustez, inizatiba ona da, hirigunera joan-etorria egiteko erraztasun moduan ikusten du. Hala ere, orduetara mugatua izateak "baldintzatu" egiten duela adierazi du. "Zerbitzu hau goizaldera jarriko balute, jende gaztearentzat interesgarriago izango litzateke, parranda bukatzean etxera bueltatzeko erabili ahal izango genukeelako", azaldu du.

Erreserba

Aldez aurretik erreserba egin beharko da, zerbitzua jasotzeko. "Garrantzitsua da jendeak jakitea aurrez egin behar duela erreserba, gu ere behar bezala antolatu gaituzten eta batek ezin badu beste lankide bat joan dadin. Horrela, zerbitzu egokia eskaintzeko gai izango gara", azaldu du Marquezek.

JAVI MARQUEZ
TAXI-GIDARIA

"Oñatin oso erabilgarria izan daiteke hau"

Zelan sortu zen ideia?

Sektorea krisian zegoen eta zerbait egin behar zen. Bizkaiko zenbait herritan erabiltzen dela ohartu nintzen eta Oñati bezalako herri batendako oso egokia izango zela pentsatu nuen, auzoetan jende asko bizi da eta.

Pentsatu eta egin.

Bai. Udaletxean nire ideia azaldu, eta baiezkoa jaso nuen, ideia gustatu zitzaien.



E.A.

ITZIAR IGLESIAS
UDALETXEKO LANGILEA

"Hil bukaeran martxan egotea espero dugu"

Auzotarguztietan egin die zuei deialdia?

Auzo-alkate guztiei azaldu genien gure ideia zein zen, eta gure irizpideen barruan zeuden 400 baserri ingururik luzatu diegu eskaintza. Maiatzaren 13ra arte eman dezakete izena.

Noiz jarriko da martxan?

Izena emateko epea bukatu eta tramite guztiak bukatu bezain pronto, zerbitzua martxan jarri gura dugu.



E.A.

MATTIN AGIRREBENGOA

"Inizatiba ona iruditzen zait, baina mugatua"

Zer iruditzen zaizu auzo-taxi zerbitzua??

Inizatiba onairuditzen zait, eta oso merkea, gainera. Hala ere, orduetara mugatua iruditzen zait, eta, nire kasuan, ez da horren erabilgarria. Zerbitzu hau goizaldera jarriko balute, jende gaztearentzat interesgarriagoa izango litzateke, parranda bukatzean etxera bueltatu ahal izateko.



E.A.

ESANAK

"Udaletxean egitasmo honen berri eman nuenean, baiezkoa jaso nuen, gustatu zitzaien"

JAVI MARQUEZ | TAXI-GIDARIA

Epeleko zabortegiaren erabilerak eztabaida eragin du oraingo astean

- ▶ EAJren udal taldea zabortegia egokitzearen aurka azaldu da
- ▶ PSE-EE ez dator bat, eta zuhurtziaz jokatzeko eskatu dio EAJri

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Maiatzaren 2an Arrasateko EAJren udal taldeak prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuen Gipuzkoako zaborrak Epelera ekartzearen aurka zegoela. Hainbat hedabidetan hiri hondakinak Epelera ekartzeko aukera mahai gainean zegoela irakurrita, beharrezkotzat jo zuten euren irizkiaren berri ematea.

1961etik 1996ra bitartean, Arrasateko zaborrez gain, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Sorraluze, Ermua, Mallabia eta Durangoko zaborrak jaso zituen Arrasateko Akeiko zabortegiak. Denbora tarte horretan pilatutako era guztietako isurketek 200.000 metro kubiko azalera hartu zuten.

Arrasateko udal talde jeltzaleak plazaratutako oharren arabera: "Arrasateko udalak, 35 urtetan zehar, gai honekiko nahikoa inplikazio, solidaritate eta konpromiso erakutsi duela uste dugu, nahiz eta kontziente izan Gipuzkoak zaborren inguruan denon artean konpondu beharreko arazo larria duela. Baina uste dugu irtenbidea ez dela Epeleko zabortegian egokitzapen lanak egitea, kontuan izanik hiri hondakinak jasotzeko prestaturik ez dagoela eta ia beteta dagoen zabortegi industrialia dela".

Jeltzaleek bi proposamen egin dituzte arazoari irtenbidea bilatzeko: lehena, gaur egungo zabortegiak handitzea; eta bigarrena, zaborrarentzako beste leku batzuk bilatzeko aukerak aztertzea.



Epeleko zabortegiaren etorkizuna kolokan dago | MIRARI ALTUBE



Hondakinen Mahaiko kideak asteazkeneko prentsaurrekoan | XABI GOROSTIDI

Hondakinen Mahaia desegin egingo da

Sorreran ezarritako helburuak bete direla ikusi ondoren, mahaia desegiteko erabakia hartu zuten apirilaren 21ean egindako batzarrean.

2013ko irailaren 4an eratu zen Hondakinen Mahaia, bi helburu nagusirekin: hondakinen sorkuntzarekin eta bilketarekin lotuta zeuden arazoak aztertze eta bilketa selektiboaren maila eta sistemei buruzko akordioak lortzeko.

Bederatzi hilabeteko epean gutxienez %70eko gaikako bilketa lortzea izan zen mahaia jarritako erroka, eta datuek argi erakutsi dute helburua bete dela. "Hilabete hauetako esperientzia eta emaitzekin eredugarriak gara Gipuzkoarentzat eta Euskal Herri osoarentzat", adierazi dute mahaikideek, eta balioan jarri nahi izan dituzte ezberdinen artean akordioetara heltzearen onurak.

PSE-EE ez dator bat

EAJrekin batera Arrasateko Udal Gobernua osatzen duen PSE-EE ez da bat etorri astelehenean EAJk kaleratutako oharrekin. Hainbat komunikabidetan EAJrekin bat zetozela irakurri ondoren, prentsa oharra kaleratu zuten hurrengo egunean.

Bertan, Gipuzkoako Diputazioa gai honen inguruan egiten ari den prozesua amaitu arte adierazpenik ez dutela egingo adierazi zuten, hondakinen kudeaketa erakunde horri dagokiolako. Horren harira, "zuhurtziaz eta errespetuz" jokatzeko eskatu zieten Udal Gobernuko EAJko kideei. "Hondakinen kudeaketak bizi duen kolapso egoera ikusita", errefusa tratatzeko orduan erabakirik onenak har ditzala eskatu zioten Gipuzkoako Diputazioari.

Plataformen erreakzioa

Bestalde, EAJk astelehenean aterako prentsa oharra poza eragin du Debagoiena Eredu. Zabortegirik ez! plataformarengan. Denbora luzez komunikabideetan agertu den gaiaren inguruan euren posizioa argi agertzea eskertu diote talde jeltzaleari, asteazkenean aterako prentsa oharrean. Bat egin dute Arrasatek 35 urtetan nahikoa zabor pilatu duen ideiarekin, baina EAJko udal taldeak proposatutako irtenbideekiko desadostasunak dituzte.

Ez dira bat etorri Arrasateetik kanpo beste leku batzuetan zabortegi berriak eraikitze konponbidearekin. "Guretzako ez dugu nahi ez dugu nahi beste inorentzat", adierazi dute. Plataformaren ustez, konponbidea Arrasateko eredu arrakastatsua Gipuzkoara zabaltzea da. Gipuzkoa osoan % 80ko gaikako bilketa lortuko balitz, zabor kopurua askoz gehiago murriztuko litzateke, 160.000 tonatik 60.000ra. Euren esanetan, talde jeltzaleak aukera paregabea galdu du Arrasateko eredu aldarrikatu eta Gipuzkoa osora hedatzeko.

Hala ere, errudunak bilatu beharrean elkarrekin lan egiteko borondatea erakutsi dute, energia guztiak irtenbide egokienak bilatzen erabiltzeko.

Naturaren beharraz ohartzeko 'Hurbil gaitezen Naturara' saioak

- ▶ Maiatzaren 13, 14 eta 15erako ekitaldi oparoa prestatu dute bost elkartek

X.G. | ARRASATE

Aurrerapen teknologikoen eta bizitza erritmo azkarrek eraginda, gizartearen eta naturaren arteko harremana gero eta azalagoa dela ondorioztatu zuten Txatxilipurdi Elkartekoek.

Esperientziak erakutsi die natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina dela. Hori dela eta, herriko beste elkarte batzuekin elkarlanean, haur zein helduak naturara hurbiltzeko *Hurbil gai-*

tezen Naturara jardunaldiak antolatu dituzte.

Egitarau zabala

Maiatzaren 13an, haur eta helduentzako jolasak prestatuko dituzte Monterron parkean, 18:00etatik 20:00etara.

Maiatzaren 14an, 09:30ean hasita, mendi ibilaldia egingo dute, Besaide MEn eta Leintz Eskola Kirolaren laguntzarekin. Monterronen hasi, Meatzerrekatik pasa, eta San Baleixon hamai-

ketakoa egingo dute; ondoren, Monterronera itzuliko dira. Aldi berean, 11:30ean hasita, *Naturartean sormen tailerra* egingo dute Garaion NaturArtekoek San Antolin plazan. Naturako elementuak erabiliz, Musakolako astoa sortuko dute hurbiltzen direnen artean.

Jardunaldiak amaitzeko, maiatzaren 15ean, 17:00etan, *Tailer emozionala txakurrekin* saioa egingo dute Sustrabarri elkartekoek Monterron parkean.

Txatxilipurdiko udalekuan izena emateko azken astea

Maiatzaren 13an bukatuko da aurtengo Txatxilipurdiko udaleku ireki zein itxietan izena emateko epea.

Udaleku irekietarako plaza arazorik ez dago, baina udaleku itxietarako plaza gutxi geratzen dira. Beraz, interesa dutenek lehenbailehen bete beharko dute izen emate fitxa. Behin hau eginda, hiru eguneko epea izango dute kuotaren ordainketaren ziurtagiria entregatzeko. Plaza kopurua betez gero, itxaron-zerrenda sortuko da, azken orduan norbaitek kale egiten badu. Txatxilipurdiko bulego ordutegia 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara da.

Garbiketa ordenantza: haren aurka alegazioak batzeko deialdiak

Mozal Ordenantzari Ez! plataformak garbiketa ordenantzaren aurka egiteko aukera emango die herritarrei. Helburua da adierazpen askatasunaren, eztabaida parte-hartzailearen aldeko alegazioak biltzea.

Horretarako, mahaia jarriko dituzte hainbat egunetan: maiatzaren 5ean, osteguna, 19:00etan, Portaloian; 6an, ostirala, goizean zehar azokan eta 19:00etan Portaloian; 10ean, asteartea, 19:00etan San Andresen; 12an, osteguna, 19:00etan Portaloian; eta amaitzeko, 13an, ostirala, goizean plazan eta 19:00etan Musakolan.



Gobernuaren arabera, AGI ordezkatzera datorren Elkar Ekin plana; irudian, plan horren aldeko mozioaren bozketa: gobernua alde (11) eta oposizioa kontra (10). | J.B.

Behartsuenei laguntzeko orduan, bi eredu aurrez aurre udalbatzan

AGI laguntzak eztabaida eragin du Udal Gobernuaren eta oposizioaren artean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Diputazioak 2017rako Diru Sarre-rak Bermatzeko Laguntza –AGI moduan ezaguna– kentzeko asmoaren inguruan iritzi ezberdinak daude udalbatzan. EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Udal Gobernu AGI delakoa Diputazioaren Elkar Ekin izeneko "plan integratzailearekin" ordezkatzearen alde dago. Oposizioko hiru taldeek, EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik, laguntza hori mantendu nahi dute.

Elkar Ekin planaren alde

Arrasaten 131 familia-unitatek galduko lukete AGI deritzon diru laguntza, baina hori kenduta ere familia horiei guztiei babesa ematen jarraitzea da Udal Gobernuaren lehentasuna: "Guri dagokigu Arrasateko herritar guztiak babes-

tea. Posible da AGI delakoa kentzean Udaletik baliabide gehiago jarri behar izatea. Berretsi nahi dugu Arrasaten ez dugula inor babesik gabe utziko; Diputazioari eskatzen zaio AGIaren ordezberez integralagoa izango den eta onuraduna gizarteratzea helburu duen Elkar Ekin programa zertan datzan azal dezala", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

EAJrekin batera gobernukide den Alderdi Sozialistak laguntza bermatu nahi du, betiere, argi utzita laguntzaren helburua ez dela bakarrik dirua ematea: "Ez gaude ados laguntza kentzearekin. Garrantzitsu deritzogu hizkuntza, hezkuntza eta bizimodua bermatzeari. Ez dadila izan bakarrik dirua emateko laguntza bat", adierazi zuen Oscar Garcia sozialistak.

"Ez dago dei-efekturik"

Oposizioko hiru alderdiak AGI mantentzearen alde daude. EH Bilduk gogora ekarri du Arrasaten 131 direla, baina Gipuzkoan 1.422 familia, horietan 700 ume daudela. Diputazioan gobernu ardurak dituzten agintarien mezuak salatu eta horiek debate publikotik at egon beharko lirartekeela uste dute: "Ez dago dei-efekturik, ez dago daturik hori egiaztatzen duenik. Ez dago inolako diru-xahutzerik, kontrol zorrotza eramaten da. Mamu horiek haizatzek arriskua dakar eta hori debate publikotik kanpo egon beharko litzateke. Bi eredu jarri dira aurrez aurre: batean, bi foliotako asmo bat dago ez dakiguna zertan gauzatuko den, nahiz eta pertsonengan eragina

izango duen. Bestean dago hiru edo lau urtetan kontrastatuta geratu den laguntza bat, ondo funtzionatu duena eta PSE-EErekin batera adostu zena gaur kontra bozkatu duten arren", esan zuen Eneko Barberenak.

Baleikek salatu zuen Diputazio gobernu eta Arrasateko Udalekoa ez datozela bat adierazpenetan: "Arrazakeriarekin lotutako narratiba ari dira erabiltzen gizarte zerbitzuak murrizteko", dio Igor Urizarrek. Irabaziko Juan Luis Merinok ere eskatu zien jeltzaleei Diputazioan EAJk hartzen dituen erabakiekin arduraz jokatzeko: "AGIa kentzea EAJk Jaur-larizatik eta Diputaziotik bultzatzen dituzten politiken ondorio da. Ez esan orain ez duzuela zeri-kusirik Diputazioan erabakiekin".

Beste bi mozio ere onartu ziren martitzeneko osoko bilkuran. Batetik, EAJk Diputazioari pobrezia energetikoaren aurka udalen eta energia-hornitzaileen artean hitzarmenak sustatzeko eskaera egiten zuen mozioa eta, bestetik, EH Bilduk fracking-aren aurka aurkeztutakoa. Azken hori aho batez onartu zuen udalbatzak.



JOKIN BEREZIARTUA

'Lagun onenen' bertuteez gozaten

San Andres auzoko jaietako nobedade nagusia izan zen Wurssy elkarteak antolatutako txakurren erakustaldia: "Hemen ez dira halako erakustaldiak izaten... Lanerako eta erabilpenerako txakurrak dira. Egutero hamar minutuko lana hartuta ondo irakatsitako txakurrak eduki daitezke", esan zuen elkarteko kide eta jaiotzez San Andreskoa den David Espinosak.

Kakaoaren gaineko hitzaldia eta dastatzea hilaren 11n Kulturaten

Eroskiko hipermerkatuan dagoen Harreman dendak kakaoaren gaineko hitzaldia eta dastatzea antolatu ditu maiatzaren 11rako (Kulturateko Jokin Zaitegi gela, 18:30): "Kakaoaren historia, ezau-garriez eta zuhaitzetatik gure eskuetara heldu bitartean egiten duen bidean sortu daitezkeen ondorioez arituko gara berbetan, bidezko merkataritzaren ikuspegitik", adierazi dute antolatzaileek. Harreman Dendako arduradun Gorka Martinez izango da hizlaria. Hitzaldia euskaraz izango da, eta doakoa izango da sarrera.

'Eta ez banaiz berriro depilatzen?' erakusketa Emakume Txokoan

Astelehenean jarri zuten *Eta ez banaiz berriro depilatzen?* erakusketa Emakume Txokoan. Maiatzaren 13ra arte egongo da zabalik; astelehene egutegia, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era egongo da zabalik –egubakoitzetan goizez bakarrik–. Rocio Salazar ilustratzailearen erakusketa da: "Irudigileak hainbat gai aldarrikatzen ditu zenbait binetatan umorearen bitartez. Bere ilea, erabakitzeko aukera eta erabaki estetikoekin zorionsua izateko eskubidea aldarrikatzen ditu Salazarrek erakusketan", adierazi dute antolatzaileek.

NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA



Sorry, Mariana!

Mariana Mazzucato ekonomialari amerikar-italiarra mundu osoan entzute-tsu bihurtu da bere azken liburuari esker: Estatu Ekin-tzailea (*The Entrepreneurial State*). Besteak beste, 2014. urtean politika ekonomikoko liburu hoberearen SPERISaria jaso zuen Thomas Piketty-ren *Kapitala XX. mendean* famatu egin den liburuarekin lehia itxian.

Bere liburuan, Mariana Mazzucatok Ameriketako Estatu Batuek urte luzetan ikerkuntza alorrean egindako inbertsioen garrantzia azpimarratzen du egutero erabiltzen ditugun honako teknologia hauetan: Internet, GPS, eskuko-telefonoa, eta abar. Aipatu ahaleginei esker AEBak inoiz baino aberatsagoak dira gaur egun. Mariana Mazzucatoren aburuz, aberastasuna sortzeko administrazio publikoek ikerkuntzan egindako inbertsioak areagotu beharko litzukete, eta, horretaz gain, alegia, gobernuak eurek ere euren burua ekintzailetasunean murgildu beharko lukete.

Mariana Mazzucatoren pentsamendu horrekin erabat kontrajarrian dago hemengo administrazioaren jarrera. Izan ere, Estatu osoan administrazioek ikerkuntzara zuzendu duten inbertsioa gutxitu egin da. Hori gutxi balitz, joan den astean jakin genuen iaz Eusko Jaurlaritzak erabili gabe utzi zituela teknologia-rako, berrikuntzarako eta ekintzailetasunerako aurreikusita zituen 130 milioi euro.

"Gobernuak ekintzailetasunean murgildu beharko lirarteke"



LURRETIK

GOIENA TELEBISTA | LURRETIK | LEHEN SEKTOREA DEBAGOIENEAN

MAIATZAK 11, 22:00 | GARAZI AYESTA

EKOIZLEA: BAGARA HERRIGINTZAN ETA ARTEMAN



Ointxeok Hondarribikoekin batera talde argazkian, garaipena lortu ondoren. | OINTXE

Ointxe klubeko infantilak, Gipuzkoako txapelkun

Hurrengo erronkak Euskadiko eta Espainiako txapelketak izango dira

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Ointxe saskibaloitza taldeko infantilak, Hondarribiaren aurka Donostian jokatuak finlean 30-36 irabazita, errendimenduzko infantil mailako Gipuzkoako txapelkunak izatea lortu zuten aurreko zapatuan.

Liga erregularrean hirugarren postuan amaituta, Easoren aurka jokatu behar izan zuten, eta 37-34 irabazi zuten partidua duela bi

aste, finalerako txartela lortuta. Hondarribiaren aurkako finlean, berriz, partidua borrokatua izan zuten. Lehen hiru laurdenak izan ziren gogorrenak, baina, hamar puntuko aldea aterata, abantaila lortuta garaipena lortu zuten.

Hurrengo erronka Euskadiko Txapelketa izango dute, eta Arabako eta Bizkaiko txapelkunak aurka jokatu beharko dute. Ondo-

ren, Espainiako txapelketa izango dute: ekainaren 12tik 18ra Galizian (Porriño) jokatu dute.

EBA mailakoek harrera

Domekan, 17:30ean, Iturripen jokatu dute partidua EBA mailakoek Igualeto Cantabria Estelaren aurka, eta jokalariek harrera egingo diete infantileko neskei, denboraldian egindako lan bikaina eskertzeko.

Herri artekorako pilotariak hautatuta

I.B | ARRASATE

Arrasatek Aiaren kontra hasiko du herri arteko pilota txapelketa aste honetan, eta hauek izango dira kategoria bakoitzeko ordezkariak: kadeteetan, Ander Murua, eta Ander Llodio; gazte mailan, Beñat Iturriotz eta Iker Bengoa; seniorretan, Ibai Bolinaga eta Joseba Garate. Ordezkoak, aldiz, Mikel

Etxezarreta, Oxel Iturriotz, Beñat Arabaolaza eta Jon Oreja dira.

Arrasateko Pilota Elkarteko Lourdes Diazen esanetan: "Jokalariek ilusioz daude txapelketan aurrera egiteko. Ea beste urte batzuetako zorte txarra ez dugun izaten, lehenengo kanporaketan txapelkun geratu den horren kontra tokatu zaigulako".



Arrasate-Astigarraga. | IMANOL SORIANO



**Arrasate
Dragoi bi
dominarekin
bueltan**

Espainiako aerobik txapelketan lan dotorea egin zuten Arrasate Dragoi Taldeko gimnastek aurreko aste bukaeran Valladoliden. Aritz Altubek zilarrezko domina lortu zuen N3 mailako bakarkako ariketan; eta N2 mailan, hiruak egindako proban, Izaskun Garciak, Nahia Irazolak eta Eider Lasantak brontzea.

Musakolako BTT irteera domekan izango da

I.B | ARRASATE

Musakolako Jai Batzordeak antolatuta, Musakolako BTT irteera domeka honetan izango da. Bi ibilbide izango ditu: luzeak 40 kilometro eta motzak, berriz, 34 kilometro.

Irteera Ziar-Ola kultura elkartetik egingo da, eta 09:00etan abiatuko dira parte-hartzaileak. Izen-ematea musakola.com edo kirolprobak.com webguneen bidez egin daiteke, eta proban parte hartu nahi duenak 13 euro ordaindu beharko ditu.

Egunean bertan inskribatzen denak, berriz, 18 euro ordaindu beharko ditu, eta ordubete lehenago egin beharko du.

Plazak mugatuak dira (250) eta helmugara iristen diren lehen 200ek Tactic mangitoak jasoko dituzte opari.

Umeen bizikleta jai

10:30ean, berriz, gaztetxoentzako txanda izango da. Ume bakoitzaren arabera, pertsona heldu batekin hartu beharko du parte BTT irteeran.



Iazko martxan, parte-hartzaileak prestaketa lanetan. | GOIENA

Hiruko saskibaloia Laubiden

I.B | ARRASATE

Leintz Eskola Kirolak, Ointxe saskibaloitza elkartek, Baskonia fundazioak eta Kobate Harrobiak antolatuta, zapatu honetan Arrasateko Laubide plazan hiruko saskibaloitza txapelketa izango da.

10:00etan hasiko da eta 20:00 inguruan amaituko da. Guztira, 127 taldek eman dute izena eta 670 neska-mutilek hartuko dute parte.

LEKeko azken jai

Bestalde, Leintz Eskola Kirolak, ikasturteari amaiera emateko, ikasturtean zehar parte hartu duten ikasle guztiekin (LH-1 eta DBH-2 arteko 1.137) ekintzak antolatuko ditu maiatzaren 28rako. Lekua zehazteko dagoen arren, sari banaketa eta zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.

ZALDIBAR

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Abokajarro - Dribling	2-5
Betrayer - Rayo Makabro	10-2
Aldatz - Lasagabaster	1-0
Abokajarro - Olympiakojos	5-3
Dribling - Monte Taberna	5-1

KOPAKO FINALA

MAIATZAK 7, ZAPATUA
17:00 Dribling - Rayo Makabro/
Antolatzaileak

LIGAKO FINAL LAURDENAK

MAIATZAK 14-15, Ordua zehazteko dago.
Aldatz - Olympiakojos
Lasagabaster - Monte Taberna
Abokajarro - Betrayer
Dribling - Sonografos

SAILKAPENA

TALDEA P J

A MULTZOA

1 Aldatz	17	4
2 Lasagabaster	11	4
3 Betrayer	9	4
4 Sonografos	9	4
5 Rayo Makabro	1	4

B MULTZOA

1 Dribling	19	4
2 Abokajarro	12	4
3 Monte taberna	11	4
4 Olympiakojos FC	4	4
5 Elorra JMA	2	4

Kanpazar Arrasate Rugby Taldeak ez du ezer jokoan Bilboren aurkako hurrengo partiduan

Kanpazar Arrasate Rugby Taldeko mutilek ez dute ezer jokoan aste bukaera honetako partiduan. Bilbo unibertsitatekoak etorriko dira Mojategira, eta zapatuan 16:30ean izango da partidua. Izan diren lesioengatik ezin izan dute aurrera egin zuri-moreek. Hauxe adierazi du Isei Barberok, ARTko ordezkariak: "Pena izan da hainbeste lesio izatea; izan ere, 14 jokalarirekin geratu da taldea, eta horietatik bi ez zeuden oso ondo". Hurrengo erronka ekainean izango dute, zaspiko txapelketan.



Antolatzaileak kontzertuetako kartelarekin. | XABI GOROSTIDI

Arrasateko Trikiti Eskolak mende laurden beteko du irailean

Maixa Lizarribar trikiti irakaslearen ustez, gurasoen laguntza eta inplikazioa ezinbestekoak izan dira

X.G. | ARRASATE

Arrasateko Trikiti Eskolak 25 urte beteko ditu aurtengo irailan. Maixa Lizarribar trikitilaria hasieratik izan da bertako irakasle. "Eskola sortu baino bi urte lehenago hasi ziren lehen ikastaroak. Kepa Junkera eta bere laguntzaileak izan ziren lehen urrats horiek eman zituztenak, eta eskola sortzearekin bat hasi nintzen ni".

Urte hauetan hainbat lekualdaketa egin dituzte. Lehen ikasturteetan Ferixalekuan aritu ziren. Ondoren, gaur egun Goienaren egoitza dagoen eraikinean kokatu ziren. Gerora, trukea egin zuten Arrasate Telebista-koekin, eta hauek Gaztetxe zaharrean zuten lokalera pasa ziren. "Sarrera iluna zuen eta eskailek zarata handia ateratzen zuten. Ikasle batzuk gurasoek lagunduta igotzen ziren, bakarrik igotzeak beldurra ematen zuelako", aitortu du Lizarribarrek. Gero, berriz itzuli ziren Goiena dagoen eraikinerara, eta handik gaur egun euren egoitza den Saiolango eraikinerara mugitu ziren.

Lokal aldaketaz gain, hainbat irteera egin dituzte atzerrira: Austriara birritan, Goikobalu-



Trikiti eskolakoak 2001eko irudi baten. | TRIKITI ESKOLA

koekin Argentinara, Londrese-ra eta Belgikara, besteak beste.

Sasoi onean

Ikasle kopuruari dagokionez, inoiz izan duten zifrarik handiena dute gaur egun, 130 ikasle. "Hala ere, beti egon da jendea ikasten. Garairik baxuenean 60 eta 80 ikasle artean izan ditugu, eta orain inoiz baino gehiago. Hasieran, jende helduagoa etortzen zen, eta orain, ikasle gehienak gaztetxoak dira. Gurasoekin osatutako talde bat mantentzen dugu, baina lehen, gehiago iza-

ten ziren". Eneritz Urrutia irakaslearen hitzetan, ikasleak "gero eta gazteagoak" dira, eta lagun taldearekin apuntatzen dira. "Polita da lagunekin batera trikitia ikasten hastea eta gustura egotea. Normalean, panderoa jotzen hasten dira eta hamar hamabi urteren bueltan batzuek trikitira salto egiten dute", adierazi du Urrutiak.

Aurtengo kurtso amaierako jaialdia kalera aterako dute urteurrena dela eta. Gonbita egin diete ikasle ohiei festan parte har dezaten.

Donostia 2016k antolatutako Emusik jaialdiak geldialdia egingo du Arrasaten

Gaur, Kataluniako musika ikasleen kontzertua izango da; eta bihar, Norvegiako eta Suitzako ikasleena

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Aurtengo Musika Eskolen Europako Topaketa Donostia 2016 egitasmoaren barruan kokatuko da. Bertan, Europa osoko musika eskoletako 8.500 ikasleek 120 kontzertu eskainiko dituzte. Donostia izango da kontzertu gehien hartuko dituen hiria, baina kontzertuak EAEko, Nafarroako, Iparraldeko eta Errioxako 59 herritara zabalduko dira; tartean, Arrasatera.

Bi saio gaur eta bihar

Arrasatek bi kontzertu hartuko ditu eta horietan Arrasate Musikaleko musikariek egingo dituzte anfitrioi lanak. Lehena gaur arratsaldeko seietan izango da eta bigarrena bihar 11:30ean. Eguraldiak laguntzen badu, Monterron parkean egingo dira, eta, bestela, San Frantzisko elizan egingo dituzte.

Gaurko saioko gonbidatuak San Feliu de Guixols eta Banyolas herrietako musika eskoletako ikasleak dira. Ekitaldiari hasiera emateko, Europako ereserkia joko dute guztiek batera, eta 150 musikari inguru arituko dira aldi berean. Arrasate Musikaleko Banda Gaztearen emanaldien ondoren, San Feliu de Guixolskoak igoko dira oholtza gainera. Hauek testigua pasako diete Banyolaskoei. Gazte Orkestrarekin hasiko dira ondoren Big Bandarekin amaitzeko. Saioa borobiltzeko, bi eskola katalane-

tako abesbatzek batera abestuko dute, eta, azkenik, Emusik jaialdirako espresuki konposatutako *Musikatu bizitza* abestia joko dute musikari guztiek batera.

Biharko emanaldian, Norvegiako Haugaland eta Suitzako Maspimatzen herrietako ikasleak arituko dira. Urrunetik etorritako musikariek harrera egiteko auresku bat eskainiko diete, lehenik eta behin. Musikari guztien artean Europako ereserkia jo ostean, Arrasate Musikaleko Gazte Orkestra arituko da. Haugalandekoek jarraituko diete eta ondoren suitzarren txanda izango da. Azken hauek, orkestra bezala aurkeztu arren, gitarra, teklatuak eta akordeoiak ere erabiltzen dituzte.

'Pinocchio' antzerkia izango da domekan Amaia antzokian

Pinocchio obra klasikoaz gozatzeko aukera izango da domekan, 17:00etan, Amaia antzokian.

Jokin Oregiren zuzendaritzapean hainbat sari lortu dituen ikuskizuna da. Tartean, 2015eko Gijongo Feten feriako ikuskizun eta zuzendaritza onenarena.

Bihar hasiko da Corazon de Encinaren kultura astearen 26. edizioa

Bihar jokatu diren mus, tute eta txintxon txapelketekin emango diote hasiera aurtengo kultura asteari. Domekan, aldiz, kuartrola, domino eta billar txapelketak jokatu dituzte. 16:30ean hasiko dira guztiak.

Martitzenerako, hamabi urte arteko umeentzat marrazki lehiaketa antolatu dute, 17:30ean.

Debaldeko autobusak Kursaal Eskura ekimenaren eskutik

Okzitaniako Tolosako orkestrak Berlioz-en *Hilen meza handia* interpretatuko du hilaren 31n Kursaal aretoan. Kursaal elkarguneko webgunean erosi behar da sarrera, eta autobus erreserbak 943 25 20 00 telefonoan edo kultura@arrasate-mondragon.net bidez egin daitezke.

Sibi Sibi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

arrasate

beinke

Atzegikoen txupinazoarekin hasiko dira Pentekoste jaiak

Ane Otadui arrasatearrak egin du aurtengo pazkoetako kartel ofiziala

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Otsailaz geroztik San Lorentzoz bizi diren Atzegiko zazpi kideak dira maiatzaren 13an arratsaldeko zortzietan txupina jaurtitzeko udaletzeko balkoira gonbidatu dituztenak. Aurtengo jaietako kartelaren egilea Ane Otadui arrasatearra izan da. 13 kartel aurkeztu dituzte denera.

Nobedadeekin datoz 2016ko Pazkoak. Esaterako, umeendako jolas parkea egunero izango da aurtun. Bestalde, ohikoa baino bi ordu goizago igoko da Seminarioko teiltura Bitorianatxo, martitzeneko 22:00etan. Hala ere, ordutik aurrera ere musikak eta jaiak jarraitu egingo du.

Bereziki jendetsua izango da asteleheneko herri bazkaria, 700 txartel saldu dituzte eta. Eurria eginez gero, Seminarioan egingo dute bazkaria, bi karpa jarriaz, jende guztia sar dadin.

Euriarekin, aterpean

Beste ekintzetarako ere prestatu dute eurria eginez gero B plana. Kanpoan diren hitzorduak tokiz aldatuko dira eguraldi txarreakin, pilotalekura, Seminarioa edo Zabalotegiko frontoira.



Jaietako zinegotzia, alkatea eta kultura teknikaria, aurkezpenean. | M.T.

Berdintasunerako deia

Jaiegunetan zehar "elkarbizitza, errespetua eta aniztasuna" sustatzeko dei egin du Elena Lete alkatea. Horrekin lotuta, kartel berezi bat eta pegatinak aterako dituzte, Martxanterak talde feministarekin batera. Bertan, lelo hau irakur daiteke: *Ez menpeko, bai pareko; denok hobeto!*

Boluntarioen parte hartzea

Nabarmendu dute aurtun "boluntarioen parte hartze handia" izan dela. Azaldu dute Xabalote gaztelekuo gazteek parte hartu dutela egubakoitzeko eta zapatuko kontzertuen aukeraketan.

Autobus zerbitzua

Egubakoitzean eta zapatuan autobus zerbitzu berezia izango da inguruko herrietatik joan-etorria egiteko.

Txosnagunea

Hitzordu asko izango dira Bideberriko txosnagunean ere, Xaxau herri konpartsak antolatuta. Hainbat helburu izan dituzte txosnagunea nolakoa izan behar den lantzeko orduan: euskararekiko konpromisoa, berdintasuna... Aurtun, jasangarritasunaren aldeko esfortzu berezia egin dute.

Jaiei buruzko informazio gehiago, 33. orrialdetik aurrera.

Larri jarraitzen du auto batek harrapatutako txirrindulariak

M.T. | BERGARA

Aste honetako martitzen eguerdian, maiatzak 3, 18 urteko txirrindulari gazte batek istripua izan zuen eta larri zaurituta eraman zuten ospitalera. Geroztik, bere egoerak larria izaten jarraitzen du, eta Gasteizko Santiago ospitalean ingresatuta dago martitzenetik, zainketa berezien unitatean.

Martitzen eguerdian gertatu zen istripua, Goiauzoan, 13:15 aldera. Bergaroko Udaltzaingotik aditzera eman dutenez, zauritutako gizonetako gaztea bizikleta gainean zihoan, ikastetxetik antolatutako kirol irteera batean, eta Suzuki Grand Vitara modeloko auto batekin

aurrez aurre jo zuen, ikusgarritasun txarreko bihurtune batean.

Herrizaingo sailaren arabera, gaztea larri zaurituta eraman zuten anbulantzia Santiagoko ospitaleraino. Gazteak ingresatuta eta larri jarraitzen duela eman dute aditzera Santiago ospitaletik, eta zainketa berezien unitatean segitzen du iritsi zenetik.

Ertzainen ikerketa

Ertzaintatik azaldu dute gertakariaren inguruko atestatua bukatzen dihardutela, baina aditzera eman dute argi dagoe la aurrez aurre egin zutela talaka autoak eta bizikletak.

Zoologia biltegi bisita eta Geocaching ikastaroa izango dira museoen nazioarteko egunaren bueltan

Maiatzaren 18ko museo egunerako antolatu ditu ekintzok Laboratoriumek. Museo zoologia biltegi bisita gidatu izango dira, bakoitza 30 minutukoa. Bestalde, hilaren 21ean, 10:30ean Geocaching ikastaroa izango da, GPSarekin *alxoraren bila* antzeko bat. Bi ekintzak doakoak dira, baina izena ematea derrigorrezkoa da, Laboratorium museoan (943 76 90 03).

Bihar arte eros daitezke Pentekoste jaietako haur eta gurasoentzako parrilladako txartelak

Iaz bezala, aurtun ere haur eta gurasoentzako parrillada auzolanean egingo dute Oxirondoko azokan jaietako egubakoitzean, Bitorianatxo jaitsi ostean. Ondoren, 21:30ean, *Mugi Mugi* erromeria izango da Oxirondo plazan (eguraldi txarreakin, dena Seminarioko karpan). Tikitak azokako Arantxaren postuan daude salgai, sei eurotan, eta bihar arte izango da erosteko aukera.

Datorren egubakoitza da Udaleko udako jarduera desberdinetan izena emateko azken eguna

Udako kanpamendu teknologikoetan (3 kanpamentu desberdin), udaleku irekietan (3 edo 4 asteko aukerak eta zaintza zerbitzua) eta kirol ekintzetan (jarduera desberdinak) izena emateko azken eguna maiatzaren 13a izango da. Izen emateak www.bergara.eus webgunean eta liburutegian egin daitezke, eta kirol ekintzetan apuntatzeko, berriz, Agorrosin kiroldegian.

Autobusa dago Okzitaniako Tolosako Orkestraren eta Donostiako Orfeoien kontzertua ikusteko

Hilaren 31n Okzitaniako Tolosako Kapitolioko Orkestra Nazionalak eta Donostiako Orfeoak joko dute Donostiako Kursaalaren, 20:00etan. Doaneko autobusa jarriko dute Bergaratik, 18:15ean aterako dena. Hilaren 26ra arte apuntatu daiteke Udaleko kultura zerbitzuan. Sarrerak Kursaal webgunean eros daitezke.

NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO



Hezitzailea, berritsu

Hezitzaileak gara eta aisialdiak ere bere tokia dauka haur, nerabe, gazte eta helduetan. Herriak badauzka aisialdiko eremu asko, erakargarriak direnak. Guk, eremu hauetan lanean jarraitzeko gogoa eta ilusioa jarri behar dugu.

Haur eta gazteen hizkuntz ohituretan eragin beharra dago, euskara asko erabiltzen lagundu

eta euskararekin harreman handia eta ona izatera bultzatu behar ditugu. Etorkizuneko giltza dira eta aisialdiak badauka eurengan eragiteko erreferente garrantzitsu bat: hezitzailea.

Haur eta gazteari hizkuntz ohituretan lagunduko diona hezitzailea izan behar da. Erabileran eragitea da helburua eta bera da ekintzaren dinamizatzaile eta euskararen erabilera ere dinamizatu dezakeena. Hezitzaile berritsuak nahi ditugu; elkarrizketa ugari sortuko dituen eta

"Ez ahaztu, garrantzitsuena gure jarrera da"

beraien elkarrizketetan parte hartuko duena, lehen hitza beti euskaraz esan eta beraiei laguntza eskainiko diena eta errefortzu positiboak emango dituen.

Haur eta gazteei ere ahalegina eskatuko diegu. Esan beharrekoea euskarara eramatea kosta egiten zaiela ikusten badugu, laguntzeko prest gaudela azalduko diegu eta beraiek euskara mantentzeko ahaleginak egiten dituztela ikusten dugunean, animatu eta zoriondu egingo ditugu

Ez ahaztu, garrantzitsuena gure jarrera da. Hezitzaileak gara eta hezitzaile aktibo eta berritsu bezala jokatu behar dugu. Edozein egoera eta jarduera egokia da umekin eta gazteekin harremana izateko eta euskararen erabilera bultzatzeko.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Sinadurak biltzeko mahaia. | M.T.

Elosura igoera antolatu du Erain-ek domekarako

Gaur gauean, mus txapelketa Depor tabernan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Erabakitze eskubidearen aldeko Erain Debagoiena plataformaren Bergarako taldeak bi hitzordu antolatu ditu aste bukaera honetarako. Gaur gauean mus txapelketa izango da eta domekan, berriz, Elosura igoera eta aldarrikapen ekintza.

Egubakoitz gauean Debagoieneko mus txapelketako lehen kanporaketa jokatu dute Depor tabernan. Domekan, berriz, Elosura igoera dira Bergaratik, Antzuolatik eta Azpeititik, eta goian, guztiek elkarrekin erabakitze eskubidearen aldarrikapena egingo dute.

Domekan, eguerdiko hamabietan elkartuko dira hiru herrietatik etorritakoak Elosuan, eta bertan, erabakitze eskubidea irudikatuko dute guztien artean. Jana eta edana ere ez dira falta. Bergaran, Udal Pilotalekutik irtengo dira Elosurantz, goizeko hamarretan elkartuta.

Mus txapelketa

Egubakoitzeko mus txapelketa 22:00etatik aurrera izango da Deporren. Izena emateko 20 euro ordaindu behar ditu bikote bakoitzak. Debagoieneko txapelketako kanporaketa izango da, eta parte hartzaileek maiatzaren 21ean Aretxabaletan jokatu den ibarreko finalerako sailkatze aukera izango dute.

Lehenengo eta bigarren bikoteek, finalerako sailkapenaz gain, beste sari bat ere eramango dute etxera: garaikurra, ardoa eta hestebeteak.

Azken sinadurak batzen

Elosuko ekitaldian ere egongo da sinatu eta Erainek antolatutako galdeketeri atxikimendua emateko aukera, dagoeneko lortu dituzten arren aurrera jarraitze sinadurak.



SAN JOXEPE

Zuzendaritza batzorde berria

Zuzendaritza batzorde berria izendatu du San Xosepe elkarteak (argazkian kide guztiak). Presidente eta presidenteordea orain artekoak izango dira, Jose Ramon Eguren eta Rosi Iburguren. Bestalde, bihar, dantzaldia izango da, 18:00etan, zuzeneko musikaz lagunduta.

Goitibeheretan eta entsaladatxo sobietar lehiaketan izena emateko azken egunak

2012an estreinatutako *Peter Pan* izan zen Bergarako Musika eskolaren azken produkzio musikala, eta 2014an eman zuten azken emanaldia Bilbon. Horren ostean, musikal berri bat aukeratzeko lanetan aritu dira eskolan, eta jada eman dute aditzera zein izango den: *Alizia herrialde miresgarrian*.

Mendi buelta eta hamarretakoa eginda ospatuko dute domeka honetan Irukurutzeta eguna

Osintxuarrek urtez urte ospatzen dute Irukurutzeta eguna mendira txangoa eginez, eta aurten ere hala izango da. Soraluzeko Atsedean txabolarekin elkarlanean, domekan, maiatzak 8, hamarretakoa eskainiko dute Irukurutzeta mendiaren tontorrean. Txorizoa euro baten salduko dute, eta salda doan izango da. 11:15 aldean hasiko dira jatekoa banatzen.

Jolas desberdinetan eta ortuan lanean arituko dira asteburuan Xabalote gaztelekuko neska-mutilak

Biharko, zapatua, jolas desberdinak antolatu dituzte Xabalote gaztelekuko erabiltzaileentzat. *Zelai erre* edota *Zapitxo kooperatiboa*-n arituko dira arratsaldean zehar. Etzi, berriz, domekan, baratzean garaiko barazkiak landatuko dituzte, azken urteotan egin izan duten bezala. Tomateak edota letxugak sartuko dituzte, esaterako, geroago barazki horiek jaso ahal izateko.

OHARRAK

EGUAZTENEN AZOKA

Bertako eta sasoiako barazkien azoka eta lore eta landareen azoka maiatzaren 11n. Pintxo-potea Kai tabernak. 18:00etatik aurrera.

51KO KINTOAK

Hilaren 28an irteera egingo dute Errioxara. 70 euro sartu behar dira Laboral Kutxako 0091149534 kontuan, maiatzaren 24ra arte.

Ekonomia sozial eta kooperatiboa mintzagai Jordi Viaren eskutik

M.T. | BERGARA

Bartzelonako Udaleko Ekonomia Sozial eta Kooperatiboko Komisionatuko zuzendaria da Jordi Via, eta maiatzaren 11n, eguaztena, Bergaran izango da hitzaldi bat eskaintzen. Hitzordua 11:30etik 13:00etara izango da, Errekalde jauregian.

Ekonomia sozial eta kooperatiboa ekonomia berri baten zentroan solasaldian, Vilak Bartzelonako esperientzia azalduko du.

Eragile sozio-ekonomikoei dago zuzendua, kooperatiba, administrazio publiko eta erakundeei. Asistentzia konfirmatzeko bidea: akareaga@mondragon.edu.



Jordi Via. | MALARASSA.CAT

Pedro Luis Uriarteren hitzaldia eguaztenean

M.T. | BERGARA

Maiatzaren 11n, eguaztena, Pedro Luis Uriarterek hitzaldia eskainiko du, 10:00etan hasita, udaletxeko bilkuren aretoan. Kontzertu ekonomikoa izango du mintzagai Uriarterek.

Goiengusi elkarteak antolatu du hitzordua, eta irekia da, herritar orori zuzendua.

Uriarte Ekonomian eta Zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko unibertsitatean. Bere ibilbide profesionala esparru ezberdinetan jorratu du: industriar, finantzetan (kontseilaria eta BBVako lehendakariordea izan da), aholkularitzan, I+D+In eta administrazio publikoan aritua. Ekonomia eta Ogasun sailburu izan zen Jaurilaritzako lehen gobernuan, baita Unibertsitateko irakasle ere.

Salgai daude Kilometroak 2016ko abesti ofiziala aurkezteko jaialdirako sarrerak

Salgai daude Kilometroak 2016ko abesti ofizialaren aurkezpen jaialdirako sarrerak. Maiatzaren 20an 22:00etan hasiko da, Udal Pilotalekuan. Bergarako Emon musika taldeak egin du abestia eta zuzenean lehen aldiz ikusi eta entzuteko aukera izango da jaialdia. Sei eurotan daude salgai sarrerak, www.pikupe.com webgunean eta Pikupe Produktzioen egoitzan, Artekalean.

Emonen emanaldiaz gain, beste hainbat iragarri dituzte jaialdirako: dantzarien desafia,

txotxongiloak, magia; Markel Uriarte txirrindulari aretxabaletarraren erakustaldia bizikletaren gainean...

Emanaldiaren aurretik, 19:30ean, kalejira izango da erraldoi, trikitilari zein soinu-joleekin. Gero, kalejira bukatzean eta jaialdia hasi bitartean, Azkaiter Pelox Trio eta Iñaki Mata izango dira frontoian.

Amaia Txintxurreta (Goiena Komunikazio Taldea) eta Oihan Vega (EITB) kazetariak aurkeztuko dute saioa.



Bideokliparen grabaketak asteburuan | KILOMETROAK 2016

BELAITZ

- Fitosanitarioak
- Landareak
- Erremintak
- Pentsuak

Aparkatzeko leku zabala!

NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA HORNIGAIK
SORALUZE Mendiola Industrialdea www.belaitz.com 943 75 18 81

Europar musikari gazteen kontzertuak asteburuan

Emusik jaialdiaren baitan emanaldiak gaur eta bihar

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Donostian eguaztenean hasi ziren Europako musika eskolen arteko Emusik topaketen baitan, atzerrikotik etorritako ikasleek bi kontzertu eskainiko dituzte Bergaran, bata egubakoitzean eta bestea zapatuan. Pinneberg-eko (Alemania), Winn-eko (Suitza), Balassagyarmatiko (Hungaria) eta Sabinoveko (Eslovakia) ikasleak izango dira gonbidatuak.

Eguaztenean egin zuten jaialdiaren inaugurazio ofiziala Donostiako Ilunben. Bertako zein atzerriko 8.500 musika ikasle izan ziren topaketa horretan, tartean, Bergarako Musika Eskolako 190 neska-mutil; gazte bandakoak, orkestra sinfonikokoak, akordeoilariak, dantzariak... Nabarmentzekoa ere, horien artean, Ane Rodriguez Bergarako musika eskolako gazte arrasatearrak bakarlarari lanak egin zituela.

Bergarako kontzertuak

Gaur, maiatzak 6, Pinneberg-eko (Alemania) eta Winneko (suitza) ikasleek eskainiko duten kontzertua 18:30ean izango da San Martin plazan. Alemaniarrek klarinete taldea osatuko dute; suitzarrek, berriz, orkestra bat.

Emanaldiaren aurretik, baina, 16:00etan alkateak eta Bergarako musika eskolakoek harrera egin-godiete udaletxeko bilkuren are-



Udaleko eta Musika Eskolako ordezkariak aurkezpen prentsaurrekoan. | M.T.

toan. Horren ostean, herrian zehar ordubeteko bisita gidatua izango dute alemaniarrek. 17:30ean, berriz, Bergarako musika eskolako gazte bandaren kalejira izango da erdigunean zehar.

Zapatuko kontzertua 12:30ean izango da Balassagyarmatiko (Hungaria) eta Sabinoveko (Eslovakia) musika eskolako eskutik, hori ere plazan. Aurretik, egubakoitzeko bezala, ongie-torria eta bisita gidatua izango dute, eta 11:30ean gazte bandak beste kalejira bat eskainiko du.

Emusiken baitako emanaldi guztiak Europako ereserkiarekin hasiko dira, eta jaialdirako bere-

ziki prestatutako *Musikatu bizitza* kantuarekin bukatu. Bi pieza horietan, bergarako ikasleek atzeritarrekin batera joko dute.

Itxiera ekitaldia Zurriolan

Zapatuan arratsaldeko zortzietan Zurriola hondartzan egingo duten itxiera ekitaldian Europako musika eskola desberdinetako ikasleek osatutako Big Band-aren emanaldia izango da. Bertako parte hartzaileak aukeratzeko proba batzuk burutu zituzten udazkenean, eta bertan aukeratuak izan ziren Bergarako Musika Eskolako Ane Rodriguez abeslaria eta Bittor Giral tronboi jotzailea.

Beartekoen lanak plazan ikusgai izango dira domeka eguerdian

M.T. | BERGARA

Urtez urte egiten duten moduan, Beart eguna ospatuko dute domeka honetan, maiatzak 8, bergarako margolari eskolakoek. 12:00etatik 14:30ak aldera arte eskolako ikasleen margolanak ikusgai jarriko dituzte San Martin plazan, herritar guztien bistara.

Alustizari omenaldia

Egun berezi horren barruan, Bearteko kideek Etxagi jate-txean lagunarteko bazkaria egingo dute, eta, hori aprobetxatuaz, aspaldidanik elkarteko kide den Mari Paz Alustiza omenduko dute.

Urtero omentzen dute kideren bat, eta aurten bera izango dela erabaki dute. Beart elkar-tearen baitan "persona berezia" dela dio Juanjo Altuna presi-

denteak. Gainera, 2015. urtean zehar Simon Arrietaren jaiotzaren mendeurrena izan da, eta horren inguruan hainbat ekitaldi eta ospakizun burutu dituzte Bearten. Hala, eta Alustiza Arrietaren ikaslea izan zenez, momentu ona iruditu zaie omenaldirako.

Era berean, bergararra urte luzez aritu da umeei margo eskolak ematen eta herriko gaztetxoei pinturarekiko mai-tasuna eta ezagutza transmititzen, Horregatik, lan horri ere egin nahi izan diote aitortza Beartetik, Juango Altunak azaldu duenez.

Erakusketa Arrasaten

Bestalde, Beartekoek erakusketa bat jarri dute Arrasateko Kulturate aretoan. Informazio gehiago, 13. orrialdean.

'Gu ere bertotan' emanaldia herriko ikastetxeetako neska-mutilen eskutik

M.T. | BERGARA

Herriko hiru ikastetxeetako neska-mutikoei bertso emanaldia eskainiko dute eguaztenean, hilak 11, Udal Pilotalekuan, 17:30ean hasita.

Gu ere bertotan proiektua Bertsozale Elkartearen ekimena da, eta Udalaren laguntzarekin garatu dute herriko ikastetxeetan "ahozkotasuna lantzeko helburuarekin", San Martin Herri Eskolako Miren Labordak azaldu duenez.

Proiektu horren bitartez, Lehen Hezkuntzako 11 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek eskolan bertsolari-tza lantzen dute, material eta metodologia bereziarekin eta bertsolari ezagunen laguntzarekin.

San Martin Herri Eskola, Aranzadi Ikastola eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako neska-mutilek hartuko dute parte hilaren 11ko emanaldian, eta orain arte ikasitakoa erakusteko aukera izango dute.

Javier Vicente bergararraren argazkiak gaurtik aurrera izango dira ikusgai Aroztegi aretoan

Javier Vicente argazkilarri bergararraren lanek osatzen dute datozen bi asteetan Aroztegi aretoan ikusgai izango den erakusketa: *Bazen behin herri txiki baten...* Hain zuzen, Bergarako txoko desberdinetan ateratako argazkiak dira gehienak. Vicenteren lehendabiziko erakusketa da gaur arratsaldeko seietan irekiko dutena.



VALEN MOÑUX

'Mozkorra parregarri' Madrilen

Madrileraino iritsi da Mozkorra parregarri opera. Pasa den zapatuan bergararrek hango Loiolako San Inazio elizan antzeztu zuten obra, eta ikusleek txalo zaparrada eta "bravo!" oihuak eskaini zieten antzezlana bukatzean. "Oso polita" izan zela dio Valen Moñux zuzendariak. Horrekin, baina, ez dute *tour*-a bukatu bergararrek; izan ere, ekainaren 25ean Zumarragan beste emanaldi bat eskainiko dute.

Larrain dantza ikastaroan izena emateko azken egunak

Maiatzaren 10era arte, martitzena, eman daiteke izena Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatutako larrain dantza ikastaroan. Prezioa: 40 euro (35 euro bazkideentzat). Guztira, sei saio izango ditu ikastaroak, maiatzaren 24an hasi eta ekainaren 28ra, martitzenetan (19:00-20:30).

Eskolarteko piraguismo txapelketa jokatu dute bihar

Bihar, maiatzak 7, alebin eta infantil mailetan eskolarteko txapelketako saio bat jokatu da Bergaran, 10:30ean hasita. Errekaren Labegaraietako gunean izango da. Beti Bus-titik Ibai Etxabe, Xabat Akarregi, Ekain San Martin eta Oier Villar arituko dira infantiletan, eta Alex Zabaleta eta Aitor Urzelai alebinetan.

Bergarak prest dauzka herriartekorako pilotariak

Bergara Hiria txapelketan promes mailako finalerako sailkatu da Josu Zezeaga bergararra

M.T. | BERGARA

Erabakita dago dagoeneko zeintzuk izango diren aurtengo herriarteko txapelketan maila bakoitzean Bergara ordezkatu-ko duten pilotariak. Kadete mailan, Alex Roigek eta Ander Etxanizek osatutako bikoteak jokatu du; gazte mailan, berriz, Unai Zubizarreta-Harri Otermin bikoteak; eta nagusien mailan, Eneko Muguruzak eta Daniel Diezek. Zapatuan 11etan jokatu dituzte partiduak Lasarten.

Bergara hiria

Josu Zezeaga bergarar gaztea ezin hobeto dabil, momentuz, Bergara Hiria txapelketan. Martitzenean, Salaberrirekin bikotea osatuz, 22-5 irabazi zuen Gartzia eta Artolaren aurkako finalerdia. "Irabazleek oso ondo

jokatu zuten", azaldu du Reyes Azkoitia antolatzaileak. Hala, Zezeaga-Salaberria bikotea hilaren 16ko finalerako sailkatu da.

Nagusien mailan, Santxo-Gorroxategi bikoteak 22-16 irabazi zion Ugalde-Martinez bikoteari partidu "gogor eta ikusgarrian".

Hurrengo finalerdia datorren martitzenean jokatu dituzte, hilaren 10ean, eta bertan erabakiko dira promes eta nagusi mailetako bikote finalistak zeintzuk izango diren.

Lehiak

Gaur, lau terdiko bi partidu jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Kadete mailan, Azurmendik eta Gallastegik neurtuko dituzte indarrak. Horren ostean, nagusien mailan, Unanue -Ander Aristi.

Herri antolamendurako aholku batzordea sortu da

- ▶ Herriko 25 elkarte inguruk hartuko dute parte, udal ordezkariekin batera
- ▶ Hamar urte barru nolako Oñati gura duten izango dute kontuan

AMIA TXINTXURRETA | OÑATI

Hirigintzako plangintza orokorrari lotutako aholku batzordea sortu du udalak eta eguaztenean egin zuten aurkezpena. Batzorde honen helburua da aholkuak ematea udaleko hirigintza arduradunei herriko planeamendu

orokorraren diseinuan, eta plan orokorrak ukitzen dituen hainbat eragilerekin batera plan hori egitea. Mikel Biain alkateak aurkezpenean azaldu zuen herriko 25 elkarte inguruk parte hartuko dutela eta kontseilua bera herriko gizarte esparruko era-

gile ugarik osatuko dutela. Egingo dituzten bileretan eragile bakoitzak bere interesak defendatu beharko ditu, hemendik hamar urtera nolako Oñati nahi duten kontuan izanda. Prozesua nahiko luzea izaten da, hiruzpau urtekoa izan daiteke, tartean hainbat bilera egin beharko dituzte, eta eguaztenekoa izan da lehenengoa.

Lehenengo aldiz

Oñatin lehenengo aldiz egingo da hirigintzaren plan antolamendua. Aurretik egon izan dira arau ordezkioak, norma subsidiarioak bezala ezagutzen direnak; 2006an egin ziren azkenak. Baina plan orokorra, HAPO bezala ulertzen dena, lehenengo aldiz egingo da. Legeak dio 10.000 biztanletik gorako herriek plan orokor bat izan beharko luketela; gertukoaren artean, Arrasatek dauka, esate baterako.

Martxoko osoko bilkuran aho batez onartu zuten aholku batzordea osatzea.



Udal ordezkariak umeen eskaerak jasotzen, egubakoitzean. | JOKIN BEREZIARTUA

Umeen eta gaztetxoek ekarpenak jasotzen hasi da Udal Gobernuak

O.E. | OÑATI

2017ko aurrekontuak lantzen hasi da Udal Gobernuak eta 3 eta 18 urte arteko ume eta gaztetxoekin parte-hartze ekimen bat jarri du martxan euren irizkiak eta ekarpenak jasotzeko.

Ekainera bitartean lau saio antolatu dituzte eta hiru adin tartetan banatutako taldeetan egingo dituzte. Saioak paraleloan egingo dituzte, adin bakoitzak bere espazioan eta berari egokitutako dinamika jarraituta. Egubakoitzean, adibidez, 3 eta 8 urte arteko umeendako ginkana antolatu zuten Foruen plazan eta aurretik harrera egin zieten udal ordezkariak

osoko bilkuren aretoan. Hondartza bat, txosna bat Usakon, atletismo pistak, janari lasterra saltzen dituzten jatetxeak eta eskolak hobeto ekipatzea izan ziren egin zituzten eskaeretako batzuk.

9-13 adin tartekoek, adibidez, roll joko bat egingo dute: alkate eta zinegotzi paperean sartuko dira, eta, gai zerrenda adostu ostean, osoko bilkura egingo dute, erabakiak hartzeko. 14 eta 18 urte artekoek, berriz, nagusiekin egin ohi den moduan egingo dute aurrekontuen lan-keta. Gaur, egubakoitza, izango da prozesuaren bigarren saioa, berdura azokan, 17:00etan.



Osoko bilkuren aretoan egin zuten lehen bilera eguaztenean. | A.T.

Leku agerietatik emitituko du Oñati Irratiak datorren astean

O.E. | OÑATI

Oñati Irratiak 25 urte beteko ditu maiatzaren 11n, eta, urteurren hori ospatzeko, ezohiko tokietatik egingo ditu datorren asteko irratsaioak.

Egun bakoitzean udal eraikin batean egongo dira Oñati Irratiako esatariak, Miren Urkiola eta Aratz Losada. Astelehenean, Turismo Bulegoan; martitzenean, kultura etxean; eguaztenean, gaztelekuan; eguenean, udal-txean; eta egubakoitzean, kiroldegian. Egingo dituzten irratsaioak ere ezohikoak izango dira, eta egun bakoitzean hamar bat lagun bere bisita jasoko dute

astebetez ibiltaria izango den irratiaren. Horrez gain, urte hauetan guztietan kolaboratzaile aritu diren hainbat herritarren akorduak ere jasoko dituzte, albisteekin eta eguneko errepasoekin ahaztu gabe. Logo berria ere erakutsiko dute.

Gonbidapena

Datorren asteko agertokiaren, leku agerietan muntatuko dute irrati estudioa, herritarrek ikusteko moduan. "Bi hitz esan gura dituzten herritarrendako lekua ere izango da, libre izango dute eserlekua", adierazi du Miren Urkiola kazetariak.

Erroldak ikusgai egongo dira datorren astean udaletxean

Ekainaren 26an egingo dira Espainiako hauteskundeak eta botoa emateko eskubidea duten oñatiarren errolda udaletxean egongo da ikusgai datorren astean. Maiatzaren 9tik 16ra egongo da epea zabalik datuak ondo dauden ziurtatzeko eta aldaketak egiteko. Nortasun agiria eraman behar da.

Herriguneko kale batzuk itxita egongo dira bihar arratsaldean

Bihar, zapatua, zirkulaziorako itxita egongo dira herriguneko kale batzuk, txirringularitzako Gipuzkoako txapelketak direla eta. 15:30etik 18:30era egongo dira itxita ibilgailuendako kale hauek: Unibertsitate hiribidea, Aita Madina, Arkitekto Lizaur eta MUko fakultate ingurua.



Atera dituzten 10 euroko bonoak. | GOIENA

Sinatzaile, diru emaile eta bozkatzaile

Idazten ari garen momentuan, mila eta seiehun sinadura bilduta ditugu Oñatin, behar genuen baino bostehun gehiago. Hilabete t'erdian egin dugu aurkezpena eta sinadura biltzea.

Orain, galdeketa egiteko hilabete falta zaigunean (ekainak 5 igandea), eginkizun handia daukagu, beste erronka jarri diogu geure lanari: sei mila euro batzea Oñatin. Galdeketa egunerako hainbat gasturi egin behar diogu aurre. Batzuk eskualdeko gastuekin bat egiten dute, besteak herrikoak, propioak dira. Hemen oinarrikoenak: lokalak alokatuko ditugu; hautetsontziak, paperak, sobreak behar ditugu; gardentasuna iza-

teko, grabatu egingo dugu galdeketa eta begiraleak izango ditugu.

Dirua lortzeko hamar euroko bonuak egin ditugu eta bailarako Erain Debagoiena Elkarteak badu kontu korrontea, nahi duenak dirua hor sartzeko: IBAN: ES5230350001590010133042. Guk, Oñatin, eskuz esku jasoko dugu. Bonua eskaini dizunari eman bueltan uste duzun dirua. Egin dugun apustuak merezi du. Politikari eta demokraziari arnasa eta biziberritzea emateko helburuarekin, geure parte-hartzearekin. Geure esku dago.

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
ERAIN DEBAGOIENA OÑATIKO TALDEA |

Ur txorroten proiektua abiarazteko eskatu du EAJk

O.E. | OÑATI

Ur txorroten proiektua martxan jartzeko eskatu dio EAJk Udal Gobernuari. Horrekin batera, San Martingo korrikarako zirkuitu iraunkorra prestatzen hasteko ere eskatu dio, zerbitzu biak erabilgarri egon daitezkeen udan.

Ur txorrotak jartzeko, plazako frontoi pareko jolasgunea edo Etxaluze parkea proposatzen dute jeltzaleek. Aukeraturako parkea hiri-altzairuz hornitu daitekeela jasotzen da EAJk idatziz bidali duen oharrean: "Adibidez, eserlekuak jarritz". San Martingo eremuari dagokionez, hango zuhaitzian korri egiteko zirkuitu iraunkorra egitearekin batera, gimnasia egiteko aparatuak jartzeko ere proposatzen dute jeltzaleek. "Espazioari etekin handiagoa atera nahi diogu eta herritarrei aisialdirako eta kirola egiteko aukera berriak eskaini nahi dizkiegu", dio Ritxar Fernandez zinegotzi jeltzaleak oharrean. Gaineratu du proiektuaren kostua bere gain har lezakeela udalak, "arazorik gabe".



Aitziber Otegi tomateen gaineko tailerra ematen apirilaren 28an. | O.E.

Furgobaratza zerbitzuak formazioa eta landare salmenta eskainiko du aurten ere

- ▶ San Martingo ortuen parkera etorriko da, baina edozein herritarrek jaso dezake zerbitzua
- ▶ Baratzea duten herritarren zalantzak argitu eta ortua mantentzeko laguntza emango du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Okitañok, San Martingo baratzeen erabiltzaileek osatu duten elkar-teak, gonbidatuta, furgobaratza zerbitzua egongo da aurten ere auzo horretako ortuen parkean. Formazio saioak eta produktu salmenta tartekatuko ditu.

Furgobaratza Azpeititik etor-tzen da Oñatira landare, hazi eta lanabesez josita. Hornitzeaz gain, ortu-zaintzan hasi berriak direnei

aholku eta gidaritza ematen die furgonetan etortzen den adituak. "Baratzean hasi direnek dudak izaten dituzte eta horiek argitze-ko etortzen gara. Ortuak nola dituzten ikusten dugu eta gaitzen bat baldin badute horri aurre egiteko aholkuak ematen dizkiegu, adibidez. Landareak ere izaten ditugu, ekologikoak, eta saiatzen gara gauza bereziak ere ekartzen; postre moduan jan

daitezkeen fruituak, adibidez", dio furgobaratza zerbitzua ematen duen KimuBat enpresako Aitziber Otegi.

Joan den urtean ere eskaini zuen zerbitzu hau Oñatin, eta jendeak interes handia duela adierazi du Otegi, nahiz eta betiko produktuen alde egiten duten askok: "Betikoa landatzen dute ortu gehienetan, baina probatzea ere gustatzen zaio jendea-ri, eta piper edo tomate klase ezberdinak, adibidez, jartzen dituzte". Tomatearen inguruko tailerra eman zuen Otegi, hain zuzen ere, joan den astean. "Heze-tasunarekin arazoak izaten ditu-gu, baina landare artean distan-tzia minimo bat gordetzea garrantzitsua da. Kontuan izan behar da tomatea ez dela busti behar goitik behera, eta ondo kimatu behar dela", azaldu zien ikastarora joandako herritarrei. Urtea bukatu aurretik beste bi saio ere emango ditu furgobaratza zerbitzuak: gaixotasunen eta izurrien inguruko bata eta neguko baratzeari buruzkoa bestea.

Barazkien ondoan loreak landatzeak ere bere garrantzia due-

la azaldu zuen Otegi, "baratzea apaintzeaz gain, gaixotasunak eta zomorroak uxatzeko, erleak erakartzeko eta polinizaziorako onak" direlako.

Martxoko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Okitaño elkar-tearen eta udalaren arteko hitzar-mena. Kide bakoitzak bost euro-ko kuota ordainduko du urtean, aurrerantzean. Udal ordenantza aldatzea ere onartuta dago.

EGITARAUA

Maiatzak 12 eta 26: Furgobaratza.

Ekainak 9: Furgobaratza.

Ekainak 23: Furgobaratza eta tailerra: Gaixotasunak eta izurriak.

Uztailak 28: Furgobaratza.

Irailak 22: Furgobaratza eta tailerra: Neguko baratzea.

Urriak 27: Furgobaratza.

ORDUA: 18:00etatik 20:00etara.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA



Aroztegia eta gero zer?

Ez naiz baztandarra, oñatiarra naiz. Baina Baztango bazterrek nire logelan ere sar-tzen dira.

Bai hemen eta bai han baliabide urria dugu lurra, malkartsua ez dena bereziki. Baina berau eraldatzeko interesa - ekonomikoa eta politi-koa - ez da batere urria, ez horixe. Errauskailua, Donos-tialdeko metroa, Aroztegia, AHT... Baina lasai, azkena ezik, gainerakoak ez baitituz-te gurean eraikiko. Beno "gurea" sentitzen dugunaren arabera, beti ere.

Aroztegia dakart gaur. Egur gutxi landuko duen bai-na egur asko jasotzen ari den aroztegia.

350 biztanle baino ez dituen Lekaroz herrian eraiki nahi dute hormigoizko aroztegi hori. 135 logeladun 4 izarreko hotela, golf zelaia, golf eskola, lorezaintza eskola eta bigarren etxebizitza izango diren 223 etxe berri.

Garapen ekonomikoa eka-rriko omen du egitasmo urba-nistiko horrek Baztanera. Berau sustatuko duen enpre-saren garapen ekonomikoa izango da, noski.

(Oin berriko) etxebizitzaren beharra omen dago, baina Baztanen ere 800 etxe huts baino gehiago dago, eraberri-tu daitezkeen ondare arkitek-toniko ikusgarriaz gain.

Jasangarria ere izango omen da, nahiz eta ez urba-nizagarriak diren 46 hektarea birkalifikatu, lur komunalak okupatu, Lekarozeko biztan-leria hirukoiztu, golf zelaiaren mantenurako lur azpiko akuif-eroak lehortu, egoera sozio-linguistikoa aldatu...

Makroproiektu hori ez dela egingo espero dut, zinez. Nekez ezkutatu luke lanbroak.

JABI OSA
ORTUKO
ERABILTZAILEA



"Karea bota dut lur-rean eta itxaron egin behar dut orain; sanisidrotan hasteko asmoa dut. Letxugak, piperrak eta tomateak landatu nituen iaz lehenbizi, eta oso gozok. Aurten, lekak jartzeko asmoa dut. Askok ari naiz disfrutatzen esperientzia honekin".

JUAN RAMON BUJANDA
ORTUKO
ERABILTZAILEA



"Esperientzia ikaragarri positiboa izaten ari da baratzea izatea. Geuk landatutako tomate asko jan dugu, adibidez. Baita piperrak eta berenjenak ere. Aurten zer landatu ez dugu oraindik erabaki, baina, tomateaz eta piperraz gain, zerbak ere jarriko ditugu, ziurrenik".

Kuban egindako bizikleta zeharkaldia azalduko dute Mugartzak eta Murillok

Txirrinkak antolatuta, Kuban egindako bizikleta zeharkaldia kontatuko dute Iñigo Mugartza eta Jon Murillo oñatiarrek martitzenean, 19:00etan, Euskaldun Berria gelan. Bihar, bestalde, bazkide berriak egiteko mahaia jarriko du Txirrinkak Foruen plazan. Hamar euro da urteko kuota. Ere cus, aut debis nat

Kaos Etiliko, SA eta Ska-P taldeen bertsoak San Migel Txikitan

19:00etan botako dute, gaur, egubakoitza, San Migel Txiki jaietako etxafuegoa eta domeka gauera arte jaiak ez du etenik izango Kale Zahar-rean. Bertso gaua izango da gaur; bihar, berriz, abentura parkea, bertsoak eta artisauen tailerra egongo dira, besteak beste; domekan, karaoke ibiltaria.

Bukatu dira zineklub eta umeen zinema denboraldiak

Joan den asteburuan bota zuten *El libro de la selva* filma izan zen denborali honetan haurrei eskainitako azken pelikula. Zinekluba ere bukatu da. Urriari bueltatuko dira zerbitzu biak. Nagusiei eskainitako zinema eskaintza bada-gu oraindik. Asteburuan, *Kiki, el amor se hace* botako dute.

GPS ikastaroa antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak

Mendiko irteerak prestatu, GPSra pasa eta ordenagailuan aztertze helburuarekin, GPS ikastaroa antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak. Maiatzaren 16tik 19ra izango da, elkarteko egoitzan, 18:00etatik 21:00etara. Prezioa da 60 euro eta izena emateko azken eguna maiatzaren 11 da.

Kursaal-eko ekitaldiak ikustera joateko autobusak egongo dira

Kursaal eskura ekimenarekin bat egin du Oñatiko Udalak eta hango ekitaldietara joan-etorria egiteko autobusak antolatuko dira Oñatitik, urtean birritan. Lehena maiatzaren 31n izango da, Berliozen *Requie-ma* ikusteko. Autobusean joan gura dutenek kultura etxean eman behar dute izena.

'Frei, Free, Aske' izeneko erakusketa, Xabin Egaña artistaren obrez osatuta

Gaurtik maiatzaren 22ra egongo da ikusgai, kultura etxean, artista oñatiarraren omenaldi gisa

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Gaur, egubakoitza, Xabin Egaña artista oñatiarraren hainbat koadroz osatutako *Frei, Free, Aske* erakusketa irekiko dute, kultura etxean, 18:00etan.

Izan ere, Egaña hil zenetik 10 urte igaro direla eta, haren koadrilako lagunek omenaldia egin nahi izan diote, erakusketa hori jarrita. Bestalde, Agustin Goenaga antolatzaileetako batek nabarmendu du Xabi Egaña bera ezagutarazi gura izan dutela, pertsona, herrian jende gutxik ezagutzen du eta.

Gaur hasi eta maiatzaren 22ra arte egongo da ikusgai erakusketa, 18:00etatik 20:00etara, jaiegunak barne.

Bere ibilbidean zehar Egaña egin zituen 17 artelan handik eta beste zenbait marrazki txikik osatuko dute erakusketa.

Oso artista oparoa izan zen oñatiarra eta modu desberdinetako koadroak egin zituen bere bizitzan zehar, hainbat arte mota uztartuz: errealista, abstraktu geometrikoa, abstraktu organikoa, infografiak, eta abar.

Gainera, espazio txiki batean, bere lagunek berari margotzen zebilen bitartean ateratako zenbait argazki ere egongo dira izkina batean.

Erakusketaren izenari dagokionez, bere izaera islatzen duela nabarmendu du Goenagak. "Alemaniako mugimenduaren ezagutza sakona zuen Egaña eta hizkuntza ere menperatzen zuen. Ingelesa ere bazekien eta, gaine-



Erakusketan egongo den obretako bat. | XABIN EGAÑA

ra, oso pertsona askea eta irekia zen", adierazi du.

Gariren omenaldia

Gaurko inaugurazioan, Gari musikariak pare bat abesti eskainiko dizkio artista oña-

tiarrari. Jo behar dituen abestien artean, elkarrekin konposatutako abesti bat ere eskainiko dio, lagun onak ziren eta. Modu akustikoan izango da kontzertutxo hori, 18:00etatik aurrera.

Eskaintza zabal eta ona Emusik jaialdian

Alemaniako, Suitzako, Letoniako eta Albaceteko hainbat musikari etorriko dira

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Europa mailako Emusik jaialdiaren egoitzetako bat da Oñati, eta asteburu honetan Europako hainbat herrialdeetatik etorritako musikarien musikaz gozatzeko aukera egongo da herrian.

Gaur, egubakoitza, 70 alemaniar eta suitzar iritsiko dira Oñatira, eta arratsaldeko 6etan hasiko dute kontzertua, herriko plazan. Triki Konbok, Akordeoi Taldeak, Txorimaloek, Dultzaina Taldeak eta Konbo

Taldeak hartuko dute parte, Alemaniatik eta Suitzatik etorritako orkestraz gain.

Bihar, zapatua, Caudeteko (Albacete) 35 ikasle eta Letoniako beste 35 iritsiko dira. Hain zuzen, 11:30ean hasiko da kontzertua.

Europako ereserkiarekin emango zaio hasiera kontzertuari, eta ondoren, Musi-k Band, Haize Metal, Caudeteko Banda, triki-pandero eta Letoniako Bras Band taldeak entzuteko aukera izango da.

Kontzertua eskainiko die Ganbarak bazkideei

Ganbara Txikiko gaztetxoek Benito Lertxundiren kantuak abestuko dituzte maiatzaren 15ean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urtero egiten den Ganbarak bazkideei zuzendutako kontzertu bat. Aurtengoa maiatzaren 15ean izango da, domeka, San Migel parrokan. Berezia izango da, gainera, Ganbara Txikiren kontzertua izango delako eta kantu gehienetan bakarlariak entzungo direlako.

Kontzertuan, Benito Lertxundiren kantuak abestuko dituzte gaztetxoek; tartean, *Nire*

herriko neskatxa maite, Bizkaia maite, Udazken koloretan eta Oi baldorba. Ganbara Txikiko 30 abeslarik parte hartuko dute kontzertuan eta Arrasate eta Bergarako 20 musikariz osatutako orkestra izango dute ondoan.

Kontzertua herritar guztien dako izango da eta sarrerak salgai daude Txokolatexian, zortzi eurotan. Bazkideendako, doan izango da.

Euskadiko Lehen Mailara igotzeko 'play-off'-ak bere esku ditu Natra-Oñati Aloña Mendik

Bihar, zapatua, Barakaldon jokatu dute jokoan ezer ez duen Paules Skoda taldearen aurka, 18:00etan, eta, irabaziz gero, *play-off*-ak ziurtatuko dituzte. Izan ere, ligako lehenengoa zuzenean igotzen da eta hurrengo lau taldeek elkarren aurka jokatzeko dute igoera fasea. Maiatzaren 13-14ko asteburuan jokatu da fase hori. Momentu honetan 4. postuan dira oñatiarrak.

Zumarragako taldearen aurka arituko da Aloña Mendi, Eskolarteko Pilota Txapelketan

Gaur, egubakoitza, 20:30ean hasiko da txapelketa eta hiru kategoriatan jokatu da: kadete mailan, Iñigo Perezek eta Markel Gartzia osatutako bikotea arituko da; gazte mailan, Ander Biain eta Aitor Otamendi izango dira Aloñako ordezkariak; eta nagusi mailan, Sergio Uriarte eta Gorka Perez. Gaur Oñatin jokatu dituzte hiru partidua eta datorren astean, Zumarragan. Hain zuzen, partidu gehien irabazten dituen sailkatuko da.

Sei boxeo-borrokaldi egingo dituzte hilaren 22rako antolatu duten emakumezkoen boxeo erakustaldian

Emakumezkoen boxeo erakustaldia egingo da Oñatiko Zubikoa kiroldegian maiatzaren 22an, 19:00etan. Hamabi emakume lehiatuko dira, tartean Ixa Rodriguez soraluzetarra, egungo Espainiako txapelduna. Sei boxeo-borrokaldi egongo dira. Sarrerak salgai daude, hamar eurotan, Txaketua tabernan eta Indar gimnasioan. Bestalde, San Migel Txiki jaien barruan, beste boxeo erakustaldi bat egingo da domekan Txaketua parean, 13:30ean.



Zalaparta eta Auschwitz nagusi ligan eta kopan

Zalapartak irabazi du aurtengo Herriko Futbol Txapelketa, Kalañatasaray menderatu ostean. Partidua banako berdinketarekin amaitu zen, Unai Bikuñaren eta Iñigo Arregiren golek. Penaltietan, ordea, gazteak gailendu ziren. Bestetik, kopan, Auschwitz taldea izan zen garaile, Sasquatch taldeari 3-0 irabazi ostean. Carlos Cruickshank sartu zituen bere taldearen hiru golak.



IBAN ORUETA



Agustindarren komentuko lorategia txukuntzen Udal langilea. | MIRARI ALTUBE

Astelehenean zabalduko dute komentuko lorategia

Ez dute arautegi berezirik zehaztu, baina errespetuz jokatzeko eskatu dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Agustindarren komentuko lorategiko atea maiztean zabalduko zituztela iragarri zuen Unai Elkoro alkateak oraintsu, eta astelehenean aurrera halaxe izango da. 09:00etatik 21:00etara izango dute aukera herritarrek han egoteko. "Kuxkuxean etortzeko gogoia dutela badakigu; ez dakit espero dutena topatuko duten", adierazi du alkateak.

Eserleku gehiago

Bazterrak txukuntzen dabilta egunotan Udal langileak; izan ere, mojek alde egin zutenetik, ia azko udazkenean, inork ez die kasurik egin lore koloretsuz beteta dauden

landareei, laster fruituak emango dituzten arbolei eta gainerakoei: "Paraje polita da, eta, txukun izanez gero, egonleku dotorea".

Arautegi berezirik ez dute zehaztu: "Edonor sar daiteke. Lorategia da eta uste dugu ez dagoela arau beharrik; hori bai, errespetuz eta begirunez joka dezagun guztiok. Zaindu ezean itxi beharra etor daiteke eta", jakinarazi du alkateak.

Eserleku bakarra dago orain, baina, lasai egoteko leku aproposa dela jakinik, beste batzuk jartzeko asmoa daukate: "Arratsalde-pasa egon daiteke eguzkitan goxo-goxo; hortaz, beste batzuk jartzekotan gaude".

Eraikinaren erabakia aurten

Lorategia inguratzen duen horma, oraingoz, ez dute botako: "Noraino bota hausnartu behar dugu. Kontuan hartu behar da argiteria bertatik doala eta transformadorea ere hormaren alboan dagoela".

Eraikinarekin zer gertatuko den oraindik erabaki barik daukate: "Nobio asko dituela argi dago, baina horrek bai behar duela hausnarketa sakona. Erabakia aurten hartu gurako genuke", argitu du Elkoro. Bien bitartean, lorategian antola daitezkeen kontuak pentsatzen hasi dira Kultura Saileko kideak: ipuin kontaketa, antzerkiak, txori kantuen lehiaketak...

Udaleku irekietan eta kirol udalekuetan izena eman daiteke

M.A. | ARETXABALETA

Herriko gaztetxoek, Gazteria Zerbitzuari esker, hainbat aukera izango dituzte udaleku irekiak, kirol udalekuak eta Udaero kanpaina. Lehenengo bietan izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 13a bitartean. Horretarako, jo behar da Arkupe kultura etxera edo Ibarra kiroldegira, eta prezioa da 70 euro baterako zein besterako.

Kirol udalekuak gazteendako

Ohiko legez, udaleku irekiak izango dituzte 2004 eta 2012. urte artean jaiotakoek, hau da, Haur Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara artekoek. Uztaillaren 1etik 22ra izango dira, eta ordutegia honako hau: 10:00etatik 12:30era

eta 15:00etatik 17:00etara. 2012an jaiotakoek goizez bakarrik jardungo dute. Gainera, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara artekoek kirola egiteko aukera izango dute kiroldegian, gutxienez astean hiru goizetan.

Kirol udalekuak ere uztaillaren 1etik 22ra izango dira, eta ordutegi berberarekin: 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Horiek, baina, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 4. mailara artekoek bideratu dizkiete; hau da, 2000 eta 2005. urte artean jaiotako neska-mutilei. Kiroldegian elkartuko dira horiek eta han egingo dituzte ekintzak.

Horiez gain, Udaero kanpaina ere zabalduko dute gazte-lorategiaren kideendako aurrerago.



Neska-mutikoak aparrarekin jolasean iazko udaleku irekietan. | GOIENA

Almen: 50. urteurreneko argazkiak ikusgai eguztinetik aurrera

M.A. | ARETXABALETA

Almen ikastetxearen 50. urteurrena dela eta antolatu duten erakusketa iritsiko da Aretxabaletera datorren eguztinean, maiatzak 11, eta zapatuta arte egongo da zabalik. Mojen komentuko elizatzon izango da, eta ordutegia honako hau: 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuan, 11:00etatik 13:00etara.

Egubakoitzean, hilaren 13an, gainera, mokadutxo eskainiko dute, eta horren bueltan aurkezpen txiki bat egin: "Aurkezpen horretan ikastolako ikasleak, irakasleak, ikasle eta irakasle ohiak, gurasoak, langileak eta gainerako herritarrak elkar gaitzean gurako genuke 50. urte-

ko ibilbidea partekatze eta ospatzeko", jakinarazi dute Almeneko kideek.

Lehenengoak eta oraingoak

Erakusketan batu dituzte argazkiak, ikus-entzunezkoak eta hainbat eratako materiala, 50 urteotako ibilbidearen erakusgarri. Argazkien artean daude ikastaldeak, irakasleak, irteeretakoak, kirol elkartekoak, jaietakoak, Torrebasoko igoretakoak eta beste hainbat ekintzakoak, bai lehenengoak, bai gaur egungoak. Materialen artean, ostera, Almenen erabili izan diren eta erabiltzen diren material adierazgarriak daude, baita kirol elkartekoak ere.



Arrasateko Biteri plazan mokadutxo gertatzen, joan den zapatuan. | IÑIGO TRUEBA

Ekuadorri laguntzeko kanpaina abiarazi dute

Aretxabaleako Hiruatx eta Arrasateko AMS elkarteek bat egin dute bailarako ekuadortarrek

M.A. | ARETXABALETA

Ekuadorko lurrikarako emergentziarako laguntza kanpaina abiarazi dute egunotan Arrasateko AMS eta Aretxabaleako Hiruatx elkarteek, bailarako komunitate ekuadortarrekin batera. Joan den zapatuan, esa-

terako, mokadutxo eskaini zuten Arrasaten.

Bi lan-ildo garatzeko

Eskualdeko Ekuadorko komunitateak bere herriarekiko elkartasuna bultzatu gura du, eta bidelagun izango ditu horretan

Hiruatz eta AMS. Gainera, Hiruatx 2014az geroztik proiektu bat garatzen dabil Ekuadorren: "Bertako GKE batekin harreman estua dugu, eta laguntza zuzena egiteko aukera eskaini digute horiek", jakinarazi dute.

Elkartasun kanpaina batzen hasi diren dirua emergentzia lanetan zuzenean dabilen Terranueva GKeri emango diote, eta horrek bi lan-ildo ditu zabalik: batetik, oinarritzko laguntza ematea (ura, mantak, higiene kitak, moskiterak...); eta bestetik, *Cash For Work* programa bultzatzea. "Ohikoa da programa hau halako larrialdi kasuetan. Ordainketa sinboliko baten truke, jendea bere ingurua txukundu eta antolatzea aktibatu nahi da. Horrela, zeregin bat emanda, alde emozionala deskargatzeko aukera ere ematen da", diote.

Diru laguntzak jasotzeko kontu korrante bat zabaldu dute; hona hemen zenbakia: Laboral Kutxa: ES15 3035 0002 14 002.0.06914.8. Diruz laguntzen duten herritarrei eskatzen diete nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta izen-abizenak ematea, ogasunean desgrabatzeko aukera izan dezaten.



Erakusketan dagoen ikasle taldearen argazkia. | ARIZMENDI IKASTOLA

Europako musikarien doinuek girotuko dute Herriko Plaza

Albacetekoak eta Letoniakoak datoz gaur eta Alemaniakoak eta Suitzakoak bihar

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Musika eskolen Europako jaialdiaren 12. edizioari esker 8.500 ikasle elkartu dira egunotan Donostian, eta gaur eta bihar Debagoienara ere iritsiko dira horiek, kontzertuak eskaintzeko. Emusik jaialdia gaur, maiatzak 6, inauguratuko dute Illunben egingo duten ekitaldian, eta han izango dira Leizarra musika eskolako hainbat ikasle eta irakasle, 50 lagun inguru.

Albacete eta Letonia

Albaceteko Caudete herriko Santa Cecilia musika eskolako kideak eta Letoniako Marupe herrikoak etorriko dira gaur, egubakoitza, Aretxabaletera: "17:00etan egingo diegu harrera taldeei, eta ondoren, Unai Elkoro alkateak hartuko ditu udaletxean", jakinarazi du Mariatxen Urkiak, Leizarra musika eskolako zuzendariak.

Herriko Plazan (euria eginez gero Iturrigorri pilotalekuan) 18:00etan elkartuko dira Leizarra musika eskolako kideekin batera; honako hauek izango dira: banda, abesbatza, konbo taldea, dantzariak eta Loramendi txistulari taldea. Agurraren ostean Europako ereserkia joko dute elka-



Txistulariak eta musika eskolako banda iazko ekitaldi batean. | M.A.

rrekin, eta, talde bakoitzak egingo dako saioen ondoren, Emusik jaialdirako asmatutako *Musikatu bizitza* kantua joko dute.

Alemania eta Suitza

Bihar, zapatua, beste bi talde etorriko dira: Alemaniako Waldshut Tiengen herriko musika eskolako kideak eta Suitzako Gelterkinden eskolakoak. 11:00etan egingo diete harrera, eta ondoren alkatearen ongietorria jasoko

dute udaletxean. Kontzertua 12:00etan izango da plazan (edo pilotalekuan). Oraingoan ere Europako ereserkia joko dute lehenengo guztiek elkarrekin eta gero etorriko dira Alemaniako saioa, Suitzakoena eta hirugarren, herrikoena. Ekitaldia bukatuko dute, oraingoan ere, *Musikatu bizitza* kantuekin.

Emusik jaialdia agurtuko dute zapatu iluntzean, Donostian egingo duten festarekin.



Durana kalean egokitu duten bulegoa. | MIREN ARREGI

Jarduera fisikorako orientazio bulegoa, zabalik

Durana kalean dago, Murruxiko mendizale elkarteak egoitza duen toki berean

M.A. | ARETXABALETA

Atxabalta Mugi egitasmoa aurre-eramaten lagunduko duen orientazio bulegoa dagoeneko zabalik dago. Jarduera fisikorik egiten ez duten aretxabaletarrei aholkuak emango dizkiete, Durana kaleko 13. zenbakian dagoen bulegoan –Murruxiko mendizale elkarrekin egoitza–. Hona hemen ordutegia: astelehenetan, 09:30-13:30; eguaztenetan, 14:30-16:30; eta egubakoitzetan, 16:00-18:00. Ibarra kiroldegian lan egiten duen Iñaki Olaetxea aholkulariak egingo die harrera han.

Osasun etxetik bulegora

Osasun etxeko mediku eta erizainei dagoeneko aurkeztu diete *Atxabalta Mugi*, eta datorren astean hasita hara bideratuko dituzte pazienteak. "Hipertentsioa, kolesterola, obesitatea eta antzekoak dituztenei bulegotik pasatzeko errezeta egingo diete", jakinarazi dute *Mugi Atxabalta* lantaldeko kideek; Gizarte Zerbitzuetatik ere bideratuko dituzte hara.

Horiez gain, edozein herri-itar hurbildu ahal izango da bulegora aholku eske.

EHbilgunea inauguratuko dute Herriko Plazan

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleako EHbilgunea inauguratuko dute hurrengo egubakoitzean, maiatzaren 13an, 19:00etan, Herriko Plazako 7. atartearen, hau da, EAKoen Alkartetxea dagoen lekuan.

"Orain arte Alkartetxea izan dena orain EHbilgune ere izango da", jakinarazi dute EH Bilduko kideek, eta gaineratu: "Ekitalditxo bat egingo dugu eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Pasa daitezela handik komunitatea ezagutzera".

Yoga ikastaroak haurdunendako eta jaioberriendako

M.A. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak yoga ikastaroak antolatu ditu haurdun daudenendako eta ume jaioberriak dituztenendako. Eskolak dira astelehenetan (10:00-11:15) eta eguaztenetan (haurdunak: 14:00-15:15 eta ume jaioberriekin: 15:30-16:45) Kuku Mikuren egoitzan. Umeen kasuan, 40 egun eta zortzi hilabete bitartean dituztenei bideratua dago.

Argibide gehiagorako eta izena emateko, hona bidea: 634 50 07 30 edo lauralmen-dra@gmail.com.



FLOREN ELORTONDO

Eguzki Alde elkarteak nagusi musean

Aretxabaleako elkarte arteko mus txapelketan Eguzki Aldek ez du izan aurkaririk aurre; etxean jokatu dutelako, beharbada. *Pitxi* Lanzos eta Paco Martinez izan dira nagusi, eta bigarren geratu dira Basotxo erretiratuen elkarteak Manolo Lopez eta Antonio Priego. Hamabi bikote izan ziren nor baino nor gehiago, elkarte bakoitzetik bina. "Txapelketa gogorra izan da", jakinarazi du epaile lanetan jardun zuen Floren Elortondok.

Kantabria aldera joango dira Basotxoko erretiratuak maiatzaren 19an, eguena

M.A. | ARETXABALETA

Egun-pasa joango dira Basotxo erretiratuen elkarteak Kantabriara, datorren maiatzaren 19an, eta izena emateko epea zabalik daukate hilaren 13ra arte. Basotxotik pasatu behar da horretarako, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Prezioa da 32 euro bazkideendako eta 42 euro gainerakoendako.

Santoña eta Santander

Santoña aldera egingo dute, 08:00etan irtenda autobusean. Blasan kontserba-lantegia ikusiko dute lehenengo, eta arrantzale herria ezagutu ostean bazkaltzera joko dute.

Arratsaldea Santanderren pasatuko dute, eta Kantabriako hiriburuak dituen altxorrek ezagutu ostean itzuliko dira.

JON MAIAREN HITZALDIA

Kurtzebarri eskolak antolatuta, *Euskaldunak itsasoari begira* hitzaldia eskainiko du Jon Maia bertsolariak maiatzaren 10ean, martitzena, 18:00etan, eskolan bertan. Herritar guztiak daudela gonbidatuta jakinarazi dute.

LARRAIN DANTZA: ENTSEGUA

Larrain dantza entseguak antolatu ditu Loramendi elkarteak Euskeriaren Eguna begira.

Astelehenetan dira, 18:30etik 20:00etara, udaletxe zaharrean. Ez dago izenik eman beharrik, nahikoa da bertan agertzea.

MUSIKA ESKOLAKOEN EMANALDIA

Leizarra musika eskolako ikasleek hainbat emanaldi eskainiko dituzte maiatzean. Datorren martitzenean, maiatzaren 10ean, haize-instrumentuen ikasleak izango dira Arkupen, 18:00etan.

PAELLA LEHIAKETARAKO IZEN-EMATEA

Otala Zelai eguna ospatuko da maiatzaren 15ean, eta han egingo den paella lehiaketarako izen-emate epea zabalik dago. Arkupe kultura etxera jo behar da, eta 5 euro ordaindu. Eguraldi txarra eginez gero, ospakizun egunean lehiaketa bertan behera geratuko dela jakinarazi dute Kultura Sailako kideek, eta izena emandakoei itzuli egingo diete dirua.

OHARRAK

Erabateko adostasuna ezohiko bilkuran

Aho batez onartu zituen udalbatzak gai zerrendako puntu guztiak

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Maiatzeko ezohiko osoko bilkura izan zen martitzenean Eskoriatzan, eta tratatu beharreko puntu guztiak aho batez onartuak izan ziren, hoguei guztira.

Aipatzeko bat 2016-2019 diru laguntza plan estrategikoaren lehen aldaketa onartzea izan zen. Honetarako, kreditu aldaketa egin behar izan zen, Olaetako plazan 8 eta 9. atarteen atzean izandako lur-jausiagatik, hain zuzen. "150.000 euroko aurrekontu batean sartuko gara, momentu honetan azterketa geologikoak egiten ari dira, onartu dugu kreditua, eta orain batzordean lizitazioa... egin beharko da, ea irailerako martxan daukagun obra", adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak.

Honekin batera, beste kreditu aldaketa bat ere onartu zen, diru laguntzen plan estrategikoan eragin zuzena zuena. Zarimutze-ko elkarteak diru laguntza eskatu zuen bertako egoitza konponitzeko. Landa Garapenetik diru laguntza lortu da, baina obraren erdia Udalak ordainduko du.

Adostasuna mozioan

Irabazi eta Bilduk industriaren eta oinarriko errentaren aldeko prekaritate eta pobrezia-erako printzipioen udal akordioa egitea eskatu zuten, eta aho batez onartua izan zen. Alderdi guztiak elkartzuz, mozioko puntuak adostu zituzten. "Txalogarria da egin den lana eta guztion jarrera akordiotara iristeko", adierazi zuen alkateak.

Bildu galde-eskean

Galde-eskeen tartean, berriz, hiri-hondakinen gaia nola dagoen galdetu zuen Bilduko Aitor Zubizarretak, eta ea jarraipena egingo ote zaion. Alkateak adierazi zuen kexa batzuk izan dituztela, edukiontzien kokapenagatik... hala ere, arazoak konpondu eta jarraipena egingo dutela adierazi zuen.

Maider Landak kargu uztea

Amaitzeko, berriz, EH Bildu alderdiko Maider Landa zinegotziari esker ona adierazi zioten udal taldeek egindako lanagatik. Kargu utzi egingo du eta Nestor Arana izendatuko dute bere orde. Hala, Madrildik paperak etorri bezain laster, ezohiko osoko bilkura egingo da, lehenbailehen kargu hartu eta lanean hasi dadin.

Bidegorri zati bat itxita dago: pasatuz gero, isuna

Martxoaren 13an egindako euriteen ondorioz, Eskoriatzako bidegorrian lur-jausia izan zen (San Pedro-Gorosarri artean), eta hesiak jarri dira arriskuak ekiditeko. Hala eta guztiz ere, bidegorriaren erabiltzaile askok bertatik pasatzen jarraitzen dute, eta Udalak neurriak hartu ditu. 200 euroko isuna jarriko die bertatik pasatzen direnei, harrapatuz gero.

Bidegorriko konponketa lanak Diputazioaren ardurapean daude, eta Udalak elkarlanean ganoraz egin nahi ditu lanak. "Ur filtrazioak daude, geologoak ere izan dira eta aterako dituzte ondorioak... horretarako denbora behar da", adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak. Bestalde,



Oinezkoak begira, bidegorriko hesiak alde batera daudela. | AMAIA TXINTXURRETA

"arrisku bizia dago hor; horregatik, Udalak erabaki du bidea ixtea. Alternatiba dago bertatik pasatzeko, zubitik, eta, norbait harrapatzen badugu,

isuna jarriko diogu. Gainera, whatsapp anonimo bat ari da zirkulatzen, kexaka, baina udaletxean ez du inork kexarik jarri".

Atxorrotx Kultur Elkartearen eguna ospatuko da zapatuan

I.B | ESKORIATZA

Hamaika urtez kultura jaialdiak antolatzen diharduen Atxorrotx Kultur Elkarteak bere eguna ospatuko du zapatuan, festa giroan. Herritarrek elkarte gehiago ezagutzeko asmoz, ekintza anitzak prestatu dituzte, adin ezberdinetako jendea erakarri nahian.

Egun horren helburua "elkarreko bazkideei esker ona adieraztea da, eta, bide batez, bazkideak erakartzea. Gaur egun, 120 bazkide ditu elkarteak eta

bazkide izan nahi duenak hamar euroko kuota ordaindu behar du hilero...", adierazi du Iñaki Kortazarrek, elkartearen kideak.

Errekan Gora egingo da

Uztailaren 8an hasiko da Errekan Gora jaialdia, eta burubelari ari dira lanean kontzertuak antolatzen. "Kontzertuetarako leku ezberdinak aztertzen ari gara, eta zapatu honetako festaren osteko erronka nagusia izango da", adierazi du Kortazarrek.

EGITARAU ZABALA

11:00: Haurrentzako puzgarriak herriko plazan.

12:00: Kalejira txistulariekin.

12:30: Sagardoa eta taloak plazan.

Ondoren: Ziza (perretxiko) tonbola.

14:30: Herri bazkaria Arantxa eta Pantxok girotuta. Izen ematea: Inkeru eta Goxo Txikin. Prezioa: helduek 15 euro eta haurrek 10 euro. Bazkideek, berriz: 10 euro.

17:30: Irrien Lagunekin festa eta dantza, Inkeru taberna kanpoaldean.

Ondoren: Buruhandiak.

19:00: Elektrotxarangarekin kalejira.

20:00: Gure Esku Dago ekimenarekin bat eginik argazki erraldoia plazan.

23:00: DJ Makala and Denis Barzaga perkusio-jolea Inkeru tabernan.

Musikari alemaniarrak izango dira gaur herrian

Emusik 2016, Europako Musika Eskolen jaialdia, 17:30ean hasiko da, Gorosarri plazan

I.B | ESKORIATZA

Donostian egingo duten Emusik 2016 jaialdi barruko musikariek kontzertua eskainiko dute gaur Gorosarri plazan. Gainera, Beheko Errota musika eskolako bandak, abesbatzak eta hainbat musikaririk parte hartuko dute.

Emanaldia 17:30ean hasiko da, eta bertan, Alemaniatik etorritako hiru talde izango dira: bi orkestra sinfoniko eta perkusio talde bat. Jundgend Sinfonier Orchester, Jugend Blasorchester, Cookies Perkus-

sions Ensemble eta Beheko Errotak hartuko dute parte; guztira, 178 musikaririk. Eguraldi txarra egiten badu, kiroldegian izango da kontzertua.

Musikari guztiak batera

Parte-hartzaile guztiek bi abesti interpretatuko dituzte eskoriatzarrekin batera emanaldia- ren hasieran eta bukaeran; *Europaren Ereserkia* eta *Musikatu Bizitza* abestiak. Azken hau kontzertu honetarako soilik prestatua izan da.

Uztailaren 5etik 22ra bitarteko udaleku irekietan izena emateko epea irekita dago


Urtero moduan, Eskoriatzako udaleku irekiak uztailean izango dira. Jolasean, herriko txoko eta gune ezberdinak ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera izango dute bertan herriko gaztetxoek. Uztailaren 5etik 22ra bitartean ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara izango da. Izen-ematea, berriz, maiatzaren 13ra arte egongo da irekita, eta Tortolis ludotekan edo kultura etxean egin beharko da. Prezioari dagokionez, haur bat 51 euro da; bi haur, 92 euro; hiru haur, 130 euro; eta lau haur, 175 euro.

San Juan Txiki eguna ospatuko da zapatuan Mendiola elizatean

Eskoriatzako Mendiola elizatean San Juan Txiki eguna ospatuko da zapatuan, eta jaiei hasiera emateko etxafuego eta kanpai jotzea egingo da 10:00etan. Ostean, 10:30ean, Elixabarrira igoera egingo da, eta bertako ermitan meza izango da 11:30ean. 12:00etan, berriz, salda eta txorizoa hartzeko aukera izango da trikitilariak alaiturik. Eguraldi txarra egiten badu, ordea, ekintza guztiak Mendiolan bertan egingo dira.

NIRE USTEZ

AITOR AGIRIANO



Zortea

Badira egun batzuk, zorte ona ekarriko zidala esanez, lau hostoko hirusta bat oparitu zidatena. Berehala, neure buruari hauxe galdetu nion: zorte ona emango ote dit? Hala esaten da, lau hostoko hirustek zorioneko egiten gaituztela. Kondaira batek dioenaren arabera, hosto bakoitzak bere esanahia du: esperientzia, konfiantza, maitasuna eta zortea.

Ez dira aurki errazak, normalean hirukoak izaten direlako. Baina ez dakit, beste arrazoiren bat ere egon beharko litzatekeelakoan nago. Adibidez, ile kizkurreko txinatarrek ere ez dira maiz ikusten, eta, haien kasuan, aipatu al du inork zorte ona ematen

dutenik? Zein punturaino ez da bakoitzak duen sinesgarritasunaren eta zerbait gertatzeko dagoen probabilitatearen arabera kontzeptu bat? Azken finean, pertsona edo talde baten interesei buruz hartzen da gertaera bat, edo gertaera segida bat, zorte oneko edo txarreko.

Argi daukadana da zortea subjektiboa dela. Eta, zortea izateko, alde zaurretik ezjakintasuna eta ziurgabetasuna egon beharra dagoela etorriko denari buruz. Beraz, faktore hauek guztiak kontuan hartuta, benetan existitzen al da zortea? Ez al da zoriaren sinonimoa? Hartu dezala bakoitzak bere erabakia. Dena dela, badaezpada, zorte on guztioi!

"Existitzen al da zortea? Ez al da zoriaren sinonimoa?"

Kortabarria: "Zailagoa da herri txiki bateko alkatea izatea Donostiakoa baino"

- ▶ Landa Garapenerako proiektu pilotuak herrian nekazaritzatik bizi daitekeen aztertuko du
- ▶ 2025ean nolako Antzuola gura duten hausnartuko dute EH Bilduk eta EAJk elkarrekin

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria elkarrizketatu zuen martitzenean Eneko Azkarate kazetariak Goiena Telebistako *Harira* saioan, eta gai askoren gainean jardun zuen. Politikan jardun gabeko kazetaria da Kortabarria, baina beti herrigintzan lanean ibilia dela kontatu zuen. Herria gertutik ezagutzen duen antzuolarra da.

Hamar hilabete egin ditu alkate lanetan eta esperientzia aberasgarria izaten dabilela adierazi zuen. Baina interes komunaren izenean lan egitea ez dela erraza esan zuen; batez ere, hartu beharreko erabakiak gertukoak direnean. "Herri-tarrei arazo baten aurrean laguntzea gai izan zarela ikustea pozgarria eta positiboa da. Uste dut zailagoa dela herri txiki bateko alkatea izatea Donostiakoa baino".

Ilusio berezia

Udal Gobernuak bere programan dituen bi proiektu ilusio berezia egiten diotela azpimarratu zuen. Batetik, lehen sektorea indartzeko Landa Garapenerako proiektu pilotua aipatu zuen. Izan ere, Antzuolan baserriatik bizitzea posible den aztertu gura dute. Eta bestetik, Aiherra-Antzuola senidetzea gazteen artean bultzatzeko aurten martxan jarri duten ekimena. Hain zuzen ere, uztaileko udalekuetara hamaika ahiertar etorriko direla baieztatu zuen: "Aiherra-Antzuola arteko harremana gehiago sustatuko dute aurtengo udalekuek. Erantzun bikaina izan duelako deialdiak. Hogei umek zuten aukera etortzeko, eta hamaika etorriko dira".



Beñardo Kortabarria, Antzuolako alkatea *Harira* saioan. | MAIDER ARREGI

Antzuola 2025

Elkarlanean EAJrekin Udal Gobernuak Antzuolako plan estrategikoa landuko duela azaldu zuen. "Uste dut badaukagula gaitasuna elka-

rrekin nolako Antzuola gura dugun 25 urte barru erabakitzeko. Neuri pertsonalki, kirol eta aisialdi baliabide gehiago dituen herria izatea gustatuko litzaidake. Oinezko herria

izatea eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiten duena. Herri garbia eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen duena. Eta industria herrian mantentzea".

Aurrekontua eta inbertsioak

Aurtengo aurrekontuez eta inbertsioez ere jardun zuen. Izan ere, bi hilabetez auzorik auzo herri-tarrek bildu ostean, 200 proposamen baino gehiago jaso zituztela azaldu zuen. "Batzar horiek lagundu digute datozen lau urteetarako plangintza egiten". Aurreratu zuen buruan bueltaka daukala, herritar batekin hitz egin ostean, Aiherra-Antzuola senidetze eguna irailean ospatzeko, zerbait berezia egitea. Bidegorrian ibilbide tematiko bat egitea, alegia, baina dena "airean" dagoela.

Inbertsio ekonomiko poto-loenaz ere jardun zuen: Sagasti auzoan egingo den ur-jolas parkea. Uztaileko eginda egotea gurako luketela esan zuen.

Eta, nola ez, zirkulazio aldaketak herritarren artean eragindako zalantzak eta kezak ere argitu zituen: "Herri guztietan oinezkoek lehenetsia dute eta erdiguneak bizitegi-gune gisa daude izendatuta. Horrek esan nahi du erabateko lehenetsia dutela oinezkoek. Baina horri ez zaio kasurik egiten, eta guk nahi dugu jendea lasai ibiltzea".

Aipatu zituen gaien artean, eskola berritzearen proiektua dago. Hezkuntza delegazioarekin adostua du eskola handitzea Udalak, eta, dena ondo bidean, 2017ko udan hasiko dituzte lanak. Herriko garbitasuna hobetze aldera, neurriak hartuko ditu Udal Gobernuak, eta bigarren pertsona bat kontratatze asmoa adierazi zuen.

Uztaileko udalekuetarako begiraleak behar dira

Maiatzaren 8a da, domeka, izena emateko azken eguna

M.A. | ANTZUOLA

Herriko udalekuetako begirale izateko antzuolarra izatea beharrezkoa da; baita euskaraz jakitea eta 18 urte beteak izatea uztaileko 1erako. Kontuan hartuko da, aldiz, begirale titulua izatea, ikasketek lan arloarekin zerikusia izatea, herrigintzan parte hartzea, esperientzia izatea eta berdintasun planari egokitzea.

Esperientzia eta ikasketak ziurtagiri bidez frogatu beharko dira. Beraz, begirale titulua eta

arloko ikasketen ziurtagiriak bidali behar dira. Baita Antzuolatik kanpo lortu den esperientzia ere.

Izena emateko

Udaletxean edo www.antzuola.com webgunean eman dezakete herritarrek izena. *On line* eginez gero, kultura@antzuola.eus helbidetik baieztapen mezua jasoko dute balizko izateko.

Izena emateko azken eguna maiatzaren 8a da, domeka.



Umeak iazko udalekuetan. | GOIENA

Berriro lapurtu dute Eztalako tabernan eta aldageletan sartuta

Azken hiru hilabeteetan lau bider egin dutela lapurreta Eztalan salatu du Antzuolako Kirol Elkarteak. "Azken lapurretan, desfibriladorea lapurtu zuten; oraingoan, erosi berria geneukan kafe-makina; kokoteraino gaude".

Horrez gain, lapurrek kalte handiak egin dituztela ere salatu dute. "Lapurreta hauek futbol taldeari eta Udalarari eragiten diete; azken finean, herritar orori. Gure gazteei futboleko balibideak gutxitzen zaizkie lapurreten ondorioz. Antzuolar guztiei eragiten die". AKEk eskatu du inork informaziorik balu harremanetan jartzeko.

Azken sinadurak batzeko Elosura irteera egingo dute

Erain Debagoienak Elosura irteera antolatu du domekarako. 09:30ean Antzuolako plazatik abiatuko dira. Asmoa da maiatzean herriak, auzoak eta bailara osoa erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenarekin loratzea. Hala, Elosuan, azpeitiar eta bergararrekin bat eginda, 12:00etan erabakitzeko eskubidea irudikatuko dute. Ondoren, mokadutxo.

Eta gaur, Kalebarrenean, 19:15ean, arto aletzea auzolanegiteko gonbidapena egingo dute (San Isidro egunean taloak egin ahal izateko). Hilaren 10ean, aldiz, batzar irekia egingo dute osoko bilkura aretoan, 18:30ean.

Datorren eguaztanean egingo dute lehenengo literatura solasaldia

Euskarazko literatura tertuliak jarriko dituzte martxan, Txirritola euskara elkarteak bultzatuta. Lehenengo solasaldia maiatzaren 11n egingo dute, eguaztana, 18:00etan, kultura etxean. *Eta euskal kultura piztu zen* artikulua irakurri behar da egun horretarako, eta, ondoren, elkartzen direnen artean komentatuko dute.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbita aurten ere

Udalak errenta aitortpena euskaraz egitera gonbidatu ditu herritarrek. Arrazoia da, besteak beste, osotasunean euskaraz bizitzeko eremu guztietara zabaldu behar dela euskara; eta, errenta aitortpena euskaraz eginez, administrazioaren euskalduntzean ere eragiten delako. Horretarako, ogasunarekin harremanak euskaraz egitea eskatu behar da.

Auto klasikoek sortutako nahasmena salatu du Udalak

Joan zen zapatuan auto klasikoek erakustaldi bat egin zuten. Hainbat auto klasiko Aramaio auzoetako errepideetan ibili ziren, "abiadura handian eta modu desegokian". Hainbat herritar kexatu egin ziren gertatutakoaz. Udalak adierazi du eurek ez zekitelako ez: "Lasterketa bat ez zenez, ez zuten baimenik eskatu". Antolatzaileei kexa adierazi die Udalak.

Arabako plater tiroketa txapelketa egingo dute bihar Kruzetan

Kurtzetagain Tiroplato elkarteak antolatuta, Arabako plater tiroketa txapelketa egingo dute bihar, zapatua, 11:00etan, Kruzetan. Tiro-gunea erabiltzen denean, segurtasun kontuengatik, Gureiatik Kurtzetara doan pista itxi egingo dute. Oinezkoen eta plater tiroketa erabiltzaileen arteko elkarbizitza hobetzeko asmoz adostu dute hori Udalarekin.

Arabako herri arteko lehenengo jardunaldia jokatu dute bihar

Arabako herri arteko pilota txapelketa hasiko da oraingo aste bukaeran. Aramaio Artzeniega hartuko du etxean: pilota partiduak izango dira 17:00etan. Lehenengo jardunaldi honetan hiru partidu jokatu dituzte. Kadete, gazte eta senior mailako pilotariak ibiliko dira nor baino nor gehiago lehian.



Zarzamora taldeko kideak, Sastiñan egindako kontzertuan. | GOIENA

Europako musikariak eta herrikoak elkarrekin

Donostia 2016 ekimenaren barruan musika eskoletako neska-mutikoez kontzertua egingo dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Herrian musikaren inguruan dabilzan talde eta eragileek proposatuta, Aramaio Udalak Donostia 2016 ekimenarekin bat egitea erabaki zuen. Modu honetan, Emusik jaialdiko egoitzetara bat izango da Aramaio.

Musika Eskolen Europako Jaialdia da Emusik, eta aurten hamabigarren aldiz egingo dute. Maiatzaren 4tik 7ra, Europako milaka musika-ikasle hartuko dute parte hainbat herritan egingo diren kontzertuetan. Aramaio kontzertua bihar izango da, zapatua, 11:00etan, plazan.

Aramaio taldeak

Europako hainbat txokotatik etorriko diren musikariek gain, Aramaio herriko bi taldek ere eskainiko dute kontzertua. Hain zuzen, Bizente Goikoetxea abes-

batzak eta Zarzamora musika taldeak.

11:00etan hasiko dute eguna: harrera egingo diete, lehenengo, kanpotik etorriko diren musikariei. Kontzertuak 11:30ean hasiko dituzte. Alemaniako Jugendblasorchester orkestra sinfonikoak hasiko du emanaldia; ondoren, Bizente Goikoetxea abesbatzak hartuko dio lekukoa; Jugendsinfonierblasorchester Ludwigsburg orkestra sinfonikoak jarraituko du emanaldia; Zarzamora talde gazteak hartuko du lekukoa ondoren. Letra gordinez osatutako rocka egiten dute aramaioarrek; eta, emanaldia amaitzeko, perkusio doinuak eskainiko ditu Alemaniako Cookies taldeak.

Udalak "eskerrak eman" gura dizkie herriko eragileei musika jaialdi hau aurrera eramateko egindako lanagatik.

Josep Pamiesek sendabelarrez eta kostu baxuko terapienez jardungo du

A.E. | ARAMAIO

Josep Pamies kataluniarrak hitzaldia eskainiko du datorren martitzenean, maiatzaren 10ean, Lorabari astearen barruan.

Elikadura eta osasuna izango ditu hizpide Pamiesek; besteak beste, sendabelarren eta kostu baxuko terapien gainean jardungo du. "Gero eta gaixotasun gehiago daude. Zertarako balio du egungo medikuntzak? Uste dut medikatzea porrot bat izan dela. Gaixotasunak paliatzeko balio dute, baina ez sendatzeko. Elikadurak, sendabelarrek eta kostu baxuko terapien sendatu dezakete. Animaliek badakite ze landare jan sendatzeko; eta gizakiak, ez?", dio Pamiesek. Bada, hainbat aholku eskainiko ditu.

Martitzenean, 18:00etan, kultura etxean eskainiko duen hitzaldian, gai horien gainean jardungo du kataluniarrak. Egun, *Josep Pamies.wordpress.com* atarian idazten du, eta Pamies Horticoles SL familia-enpresan dihardu

lanean. Hitzaldia gazteleraz izango da.

Lorabari astea

Lorabari astea ekintzaz beteta etorriko da. Etzi, domeka, hasiko dituzte ekitaldiak, Etxaguendik Anbotostera egingo duten ibilbide geologikoarekin. Aitziber Juaristi eta Martin Arriolabengoa izango dira gidariak; 10:00etan elkartuko dira.

Astelehenean, 16:30ean, jubilatuen elkartean azukrerik gabeko gozoak prestatuko dituzte. 17:30ean Amaia Diaz de Monasterioguren dietistarekin infusio dastaketa egingo dute, eta azukreari buruzko tertulia izango dute.

Eguaztanean, hilaren 11n, 19:00etan, Sastiñan, Euskal Herriko ardo ekologikoen dastaketa egingo dute. Alain Galan Euskadiko somelier txapeldunordeak gidatuko du saioa. Eguenean, pagomotzari buruzko bideo emanaldia egingo dute, 19:30ean.

'Aingeru ala kurriloi?' antzezlanaren estreinatuko du Dokek bihar, zapatua

A.E. | ARAMAIO

Doke antzerki taldeak Aramaion estreinatuko du *Aingeru ala kurriloi?* lan berria. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du testua eta Vene Herrerok zuzendu du.

Familia arteko gorabeherak

Hiru ahizparen eta loba baten arteko harremana jasotzen du

antzezlanak. Istoria iragan mendeko erdialdean kokatzen da. Aktore lanak egingo dituztenak dira: Mariasun Pagoaga, Arantza Ezkurra, Maider Alzelai eta Dorita Murgia.

Estreinaldia bihar, zapatua, izango da, kultura etxean, 20:00etan. Dokek maiatzean eta ekainean hainbat saio egingo ditu inguruko herrietan.



ALAIK ERRETIRATUAK

Erretiratuak Malaga aldean

Aramaio Alaiak erretiratu elkarteak antolatuta, Malagara bidaia egin dute erretiratuak. 43 lagun izan dira bidaiari, apirilaren 18tik 25era bitartean. "Oso ondo" ibili direla adierazi dute, eta "penaz" itzuli direla etxera. Fuengirolako Hotel Fuengirolan hartu zuten ostatu erretiratuak, eta Marbella, Mijas, Ronda eta Almuñecar ezagutu dituzte, besteak beste.

ARAMAIOKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA | HARIRA
ALKATEKIN ELKARRIZKETAK
LIERNI ALTUNA,
ARAMAIOKO ALKATEA

MAIATZAK 10, 22:00ETAN |
ENKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA:

Whatsapp:

688 69 00 07

Posta elektronikoa:

berriak@goiena.eus

Goiena app:

Galdera bidali





Orain dela hiru urte herriko plazan egindako erakustaldia. | L.Z.

Urrats berriak hondakinen bilketa selektiboa hobetzeko

Herritarrak sentsibilizatzeko Aste Berdea egingo du Elgetako Udalak eguaztenetik aurrera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Azken hiru urteotan Elgetan sortutako hondakinen kopuruak behera egin du, eta bilketa selektiboak gora. Materia organikoa kudeaketak garrantzi handia du bilketa selektiboaren gorakada horretan. Baina badago zer hobetu. Oraindik ere zabor poltsetan %13 errefusa da.

Jasangarritasunerantz urrats berriak emateko, Elgetako Udalak Aste Berdea iragarri du. Eguaztenean, hilak 11, emango diote hasiera, eta, ekintza irekiez gain —ikus egitaraua—, bestelako sentsibilizazio ekintzak ere iragarri dituzte: konpostaren inguruko tailerrak Herri Eskolan, hondakinen kudeaketan nola

hobetu azaltzeko aditu baten bisi-tak herriko komertzioetara... Eta domekan, hilak 15, hondakinen karakterizazioa egingo dute plazan. Errefusaren edukiontzi bat hustuko dute herritarren aurrean, ikus dezaten zer botatzen duten zaborretara.

EKINTZA IREKIAK EGITARAUA

MAIATZAK 11

17:30 Ikastaroa udaletxean. Nekazaritza ekologikoa eta ongarritzea.

MAIATZAK 12

18:00 Sukaldaritza ikastaroa Intxorta elkartearen.

MAIATZAK 15

13:00 Hondakinen karakterizazioa herriko plazan.

OHARRA: Izen-emateak udaletxean edo danonartian@elgeta.net.



ELGETAKO LIBURUTEGIA

Liburutegian ipuinak barra-barra

Neska-mutikoez gustuko dituzte ipuinak, eta adi-adi entzun zuten Bego Alabazanen saioa barikuan. Gaur, beste bi ipuin kontalari saio egingo ditu boluntario batek, 16:40an eta 17:25ean. Apirilko ginkanaren irabazlea, bestetik, Eneida Elorriaga da. E-reader bat irabazi du.

OMUNITATEA GOIENA
UDAL LIBURUTEGIA | ELGETA

FRONTENIS TXAPELKETA

Bihar, zapatua, emango diote hasiera frontenis txapelketari. Bost bikotek eman dute izena emakumezkoetan, eta gizonezkoetan lau bikote dira. Txapelketa zapatu goizetan jokatuko dute maiatzaren 21era bitartean. Ondoren etorriko dira finalerdiak eta finalak.

LEHENENGO JARDUNALDIA, BIHAR, 10:00ETAN

Miren Argi Zeziaga - Lierni Mendizabal / Mireia Rubio - Idoia Serna

Miren Argi Zeziaga - Lierni Mendizabal / Idoia Elkorro - Iratxe Bravo

Idoia Elkorro - Iratxe Bravo / Maitena Mañarikua - Ane Martin

Maitena Mañarikua - Ane Martin / Beatriz Zabala - Rakel Zamaioa

Udaberriko eskaintza berezia gaztelekuan

L.Z. | ELGETA

Biharko, zapatua, zikin-jolasak antolatu ditu gaztelekuak, zerbitzuko erabiltzaile diren neska-mutikoendako. Herriko plazan elkartuko dira, 17:00etan.

Hurrengo aste bukaeretan etorriko dira ur-jolasak, *Altzorraren bila* jokoa, sukaldaritza tailerra Ozkarbi elkartearen, irteera zaldian ibiltzera, gaubeila... Bergarako jaietako aste bukararako izan ezik, maiatzeko eta ekaineko gainerako guztietarako proposatzen dute ekintza berezi bat gazteleku zerbitzutik. Interesatuek gaztelekuan bertan eman dezakete izena, edo udaletxean. Prezioa da 25 euro hileko. Zaldian ibiltzera joan nahi dutenek, baina, beste hamar euro ordaindu beharko dituzte.



LUIS MARI ARANTZETA

Erretiratuek egun osoko txangoa

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, eguaztenean egun-pasa polita egin zuten erretiratuek Ordizian eta Donostian. Hurrengo ekintza testamentuari buruzko hitzaldia izango da. Foru Aldundiko zerga bilketa unitateko buru Juan Carlos Gonzalezek egingo du, eguenean, hilak 12, 19:00etan, udaletxean.

OMUNITATEA GOIENA
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

Kantu eta Dantza Eguna iragarri dute maiatzaren 22rako

Udalaren laguntzarekin Herrixa Dantzan eta Elgeta Kantuan ekimenek kantu-jira, bazkaria, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarekin Herrixa Dantzan saio berezia prestatu dituzte. Bazkaria Bolatoki tabernan izango da. Txartelak salgai daude tabernan 15 euroko prezioan. —Ikus 28. orria—.

Elgetako hiru pilotu lehiatuko dira bihar Gorlako Igoeran

Mikel Beretxinagak eta Oskar Sarasuak aurrenekoz hartuko dute parte lehiaketa ofizial batean. Asier Unzetabarreneak eskarmentu handiagoa du. Hirurak lehiatuko dira bihar Gorlako Igoeran. "Lehia aurreko urduritasuna sumatzen hasi gara", esan du Oskar Sarasuak.

OHARRAK

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, Euskal Memoriaren Interpretazio Zentrotik abiatuta. Izen-emateak: 943 79 64 63 / 943 71 89 11.

MENDI IRTEERA

Kantsatzekek hilaren 15era atzeratu du domekan egitekoa zuen irteera. Zabalik da izen-ematea.

ASENTZIO EGUNA

Domekan, 12:00etan, meza esango dute ermitan. Jarraian luntxa eta Uberako, Angiozarko eta Elgetako trikitilariak.

GARBIGUNE IBILTARIA

Eguaztenean, hilak 11, 10:00etatik 21:00etara Salbador kaleko plazatxoan.

Almenen 50 urteotako historia gogoratzen

ENKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Ikastetxearen 50. urteurreneko erakusketa giro onean gozatu zuten gatzagarrek. Apirilaren 27tik 30era bitartean egon zen erakusketa ikusgai. Pasa den egubakoitza, apirilak 29, izan zen egunik jendetsuena. Izan ere, luntxa prestatu zuten eta aspal-

diko garaiak gogoratu zituzten, giro ederrean. "Irakasle batek hitzalditxo bat prestatu zuen, eta mila istorio eta momentu partekatatu ziren egun hartan", adierazi du Beñat Zamalloak, ardura-dunetako batek. Hiru egunetan 50 pertsona inguru gerturatu zirela nabarmendu du Zamalloak.

Miren Amurizaren antzezlan

Astelehenean gaur arte Miren Amurizaren lanaren gaineko erakusketa dago ikusgai kultura etxean; Mozambiqueko eskualde bateko errealitatea oinarri hartuta egin duen ikuskizunari buruzko erakusketa, hain zuzen.

Kapulana bat zintzilik izeneko ikuskizunak abestia, bertsoa, ipun kontaketa eta marrazketa uztartzen ditu. Gaur 20:00etan ikuskizuna bera eskainiko du Miren Amurizak, kultura etxean bertan.



Almeneko erakusketa. | GOIENA

AUTOMOBILISMOA



Ezkerretik hasita Aitor Zabaleta pilotua, Xabier Zabaleta –Gorla Racing–, Angel Gurrutxaga federazioko presidentea eta Erlantz Olabarria –Gorla Racing–. | XU

Herritarrengandik gertu ospatu gura dute urteurrena

- ▶ Zaturako Gorko auto igoerako 25. edizioa antolatuko dute
- ▶ Seminarioko patioan antolatuko dituzte probaren inguruko hainbat kontu

XABIER URZELAI | BERGARA

"Bergararrak izanda guk zer esango dugu, ba, Gorko Igoera lasterketa ederra dela, seguruenik, Euskal Herrian dagoen konpletuena". 25 urte beteko dituen proba hamasei alditan irabazi duen Aitor Zabaletaren adierazpenak dira, martitzenean Bergarako Lainon egindako aurkezpenean:

DATUA

72

AUTOMOBIL

Zapatuan pilotu koadrila ona izango da zein baino zein gehiago, tartean 23 debagoiendar.

"Denetik dauka igoerak, kurba azkarrak, kurba itxiak, errazak diruditen kurbak eta gero batere errazak ez direnak, pare bat arrisku ere bai, abiadura handia hartzen den hainbat zona... Pilotuei asko gustatzen zaigu igoera hau, eta irteera puntuan 70 autotik gora batzuek erakusten du hori. Gainera, badirudi eguraldiak lagundu egingo duela; horrenbestez, ezin hobeto". Izan ere, Zabaletak ez du euririk gura: "Akaso, batzuek horrek ikusgarritasuna emango dio, baina askoz seguruagoa da sikuan ibiltzea".

Seminarioan batuko dira

Gorko Igoera taldeko Xabier Zabaletak azaldu zuen 25. urteurren hau baliatu gura dutela lasterketa herritarrei gerturatzeko: "Horretarako, taberna bat, puzgarriak eta txikiendako quad batzuk jarriko dituzte Seminarioko patioan, eta, horrekin batera, automobilen azterketak bertan egingo dituzte, baita sari banaketa ekitaldia ere. Hala, orain arte moduan, IAT/ITVko aparkalekua –herriaren erditik urrun– erabili beharrean, ekitaldi guztiak herritarrengandik gertuago egingo dituzte: "Ea horrela herria bera apur bat girtzen dugun, horixe da honen gutzietan helburua".

Seminarioan batu dira denak

Lasterketak parte-hartze kopuru polita izango du, 72 pilotu guztira, eta horietako asko debagoiendarrak. Hala, Udana, Gorko Racing, Eskomotor eta A + Gas ibarreko eskuderiak 23 pilotu datoz parte-hartzaileen zerrendan.

Garaipenerako faborito nagusia Zabaleta eta haren Lola BMW

dira, eta CM kategoria barruan Iñaki Jauregi eta Michel Iribarren lehiatuko dira (Speed Car). Eta ondoren datoz Iban Tarsicio (EVO IX), Gerard de la Casa (Seat Cordoba WRC), Bruno Scherer (Porche 997 GT3), Gorko Eizmendi (M3), Iñigo Olabogeoaskoetxea (M3), Markel Cestafe (EVO VII), Lebeiti (R5 Turbo), Corcuera (Golf 1.8T), Alberdi (Escort MK-II) edota Txus Jaio (BMW 320) moduko pilotuak.

Segurtasuna eta garbitasuna

Lasterketaren xehetasunak alde batera utzita, bai antolatzaileek eta baita federazioko ordezkariak ere zorrotz jokatu dute probaren segurtasun neurriak zaintzeko orduan. Eta Euskadiko automobil federazioko presidentea Angel Gurrutxagak hainbat eskaera egin zituen: "Egun ona pasatzeko asmoz geroz denok, eta ez dugu inolako istripurik gura. Horretarako, ikusleei eskatuko nieke ibilbidean zehar dauden komisarioei kasu egiteko, eta debekatuta dagoen tokietan ez jartzeko, euren segurtasunagatik delako".

Horrekin batera, Gorko inguruak ere topatu moduan utzeko eskaera egin zuten bai Gurrutxagak eta baita Zabaletak berak: "Mendia garbi aurkitzen dugu; horrenbestez, utz dezagun dena lehen zegoen moduan, ez da-eta askorik kostatzen". Eta Zabaletak zera gaineratu zuen: "Jakini badakigu domekan Gure Esku ekimenaren barruan Elosuan ekitaldi bat egingo dutela, eta jendea Azpeititik eta Bergararik oinez joango dela. Ez dugu gura jendeak mendia zaborrez beteta aurkitzerik".

ESANAK

"Denetik dauka Gorko, kurba azkarrak, paellak, tramu azkarrak..."

"70 pilotutik gora izango gara, jendeak gustuko duen seinale"

AITOR ZABALETA | PILOTUA

"Ea giro apur bat jartzen dugun, proba Seminarioa ekarrita"

"Egun-pasa polita izaten da guretako, nahiz eta lana egoten den atzean"

XABIER ZABALETA | ANTOLATZAILEA

"Zaleei eskaera, komisarioek diotena errespetatu dezatela"

"Basoak garbi aurkituko ditugu, utz dezagun dena modu berean"

ANGEL GURRUTXAGA | FEDERAZIO P.

25. URTEURRENA

XXV. GORLA IGOERA

2016.05.7

Entrenamenduen lehen manga ofiziala: 15:00

Igoeraren lehen manga ofiziala
Igoeraren bigarren manga ofiziala

Talleres ASEGINOLAZA
EL DIARIO VASCO

BERGARA PNEUMATIKOAK
CAMBIOS DE ACEITE | MECÁNICA RÁPIDA | 943 76 36 27

LAZPIUR
CONTENEDORES ZORROZA

Euskal Herria Hiribidea, 5/N
Teléfono: 943725448
ZUMARRAGA

GORLA MOTOR
ELECTROMECÁNICA • NEUMÁTICOS • DIAGNOSIS

ATENA
Distribuidor AUTOMÓVIL
943 76 36 27

Nafer, s.a.
943 76 10 98
BERGARA

Lagun Garajea
943 76 10 98

Bideluze
EXIT NORIE
K3
Ain
LACOR
SEASSA
eder

GRUAS IBAI
BOLINTRO GINDEGIZ
AUTO SERVICIO BERGARA
943 76 10 98



ERREPORTAJEA 'PUNTUA'-N:

Gorko Igoeraren urteurrearen harira 'Puntua'-k erreportajea dakar gaur. Garai bateko erretratu zaharrek.

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



FUTBOLA

Ondoko herrikidea, mailaz igotzeko kontrario zuzena

Mondra eta Bergara kontrario zuzen dira Ohorezko Erregional mailara igotzeko

XABIER URZELAI | ARRASATE

Erregional preferentean ligari geratzen zaizkion bi jardunaldiak infartuzkoak izan daitezte, batez ere urte osoko lana jokoan duten Mondrarendako (59 puntu) eta Bergararendako (58 puntu). Bi talde horiek bigarren postuagatik dabilta borrokan - Amaikak Bat (65) dagoeneko igota dago-, eta bigarren sailkatzen denak igoera fasea jokatuko du. Gainera, baliteke igoera faserako sailkatze hutsa nahikoa izatea kategoriaz igoteko.

Eta borroka horretan dabilta Mondra eta Bergara, hirugarren talde batekin batera, Urola (57 puntu) ere hortxe dago eta. Eta jakinekoa da, azken partidu haue-tan ez dira gutxi izango batera eta bestera agindutako afariak, pizgarriak, azken batean; ezta zurrumurruak ere.

Mondraren esku dago

Bergarako kapitain Julen Iñurrietak dio baloia Mondraren teiltatu gainean dagoela: "Guk lanean jarraitu behar dugu, eta Mondraren akats baten zain egon. Bigarren itzuli oso ona egiten gabilta, eta orain momentuan liga hasieran galdutako puntuak igartzen ditugu faltan. Mondrak oso talde ona du, eta bi partiduak irabazten badituzte ez dugu aukerarik izango. Baina hor egon behar dugu, akats horren zain".

Hala, Iñurrietak ez du uste zapatuan Amaikak Bat liderra

GERATZEN DENA:

29. JARDUNALDIA

Zestoa-Mondra

Bergara-Amaikak Bat

30. JARDUNALDIA

Mondra-Urola

Soraluze-Bergara

katela erakutsi gurako dutelako. Horrenbestez, guk serio jokatu beharko dugu".

"Bi final dira guretako"

Mondrako kapitain Ander Ruiz de Azuak finalizat ditu geratzen diren bi partiduak: "Bihar zaleen-dako autobusa jarriko dugu, Zestoara animatzera etor daitezten. Ez dakit zestoarrek partidua irabazteko pizgarriak izango duten, inork afariren bat agindu dien, baina guk baino motibazio handiagorik ez dute izango, seguru, guk igoera dugulako jokoan". Hala, Mondrako entrenatzaile Josu Zubiak jokalariz guztiak izango ditu eskura: "Ondo gabilta entrenatzen, intentsitatez, eta taldea gogoz ikusten dut". Igotzeko borroka horretan, behintzat, ez dezala saria Urolak eraman.

ESANAK

"Guretako bi final dira, eta inork ez du guk baino motibazio handiagoa izango"



ANDER RUIZ DE AZUA
MONDRAKO KAPITAINA

"Baloia Mondraren teiltatu gainean dago, guk lanean jarraitu behar dugu"



JULEN IÑURRIETA
BERGARAKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak errebantxa hartu gura du Aretxabaletaren kontrako derbian bihar

X.U. | ESKORIATZA

Euskal Liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direla dator Eskoriatzaren eta Aretxabaletaren arteko derbia (zapatua, 17:50, Manuel Muñoz kiroldedia).

Joanekoan Aretxabaletak irabazi zuen, baina oso alde txikia-gatik (5-4) eta zapatuko norgehia-

gokara begira eskoriatzarrak errebantxa gogoz egongo dira. Gainera, sailkapenera begira ere oraindik badago zer erabaki, kategoriari eusteko etxeko lanak izanda, bi taldeek ahalik eta goren amaitu gura dute-eta txapelketa. Orain momentuan lau puntuko aldea dago bien artean.



Ibarran jokatutako partiduaren irudia. | IMANOL SORIANO

PILOTA

Beñat Rezusta omenduko dute domekan Bergaran

X.U. | BERGARA

Domekan, hilak 8, Aspe pilota enpresak Bergarako pilotalekuan antolatutako jaialdi profesionalen Beñat Rezustari omenaldia egingo diote Udalak eta herriko kirol elkar-teek. Lehenengo partidua 17:00etan hasiko da, eta hor Aitor Mendizabal antzuolarrak buruz burukoa jokatuko du Taintaren kontra. Ondoren Rezustak jokatuko du, Retegi Bi-rekin batera Ezkurdiaren eta Zubietaren kontra -eta hirugarren partidu bat ere izango da-. Dena dela, partidua hasi aurretik egingo diote Bergarakoari omenaldia. Eta omenaldi horretan herriko eragile ezberdinek hartuko dute parte, tartean, Dantza Eskolako irakasleek, Musika Eskolako irakasleek eta pilota elkarteko gazteek.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

<p>FUTBOLA</p> <p>HIRUGARREN MAILA Santutxu-Aretxabaleta Domeka, 11:15. Bilbo.</p> <p>OHOREZKO ERREGIONALA Aloña Mendi-Ordizia Zapatua, 16:30. Azkoain.</p> <p>ERREGIONAL PREFERENTEA Urola-Antzuola Zapatua, 16:00. Argixao. Zestoa-Mondra Zapatua, 15:30. Iraeta. Iñitxa-Aretxabaleta Zapatua, 18:00. Legazpi. Bergara-Amaikak Bat Zapatua, 16:30. Agorrosin.</p> <p>EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Zumaia Domeka, 16:30. Ibarra.</p> <p>LEHEN ERREG. IGOERA Orereta-Bergara Zapatua, 15:45. Beraun. Mondra-Behobia Zapatua, 16:00. Mojategi.</p> <p>OHOREZKO GAZTEAK Burumendi-Aloña Mendi Domeka, 18:00. Mutriku. Amaikak Bat-Bergara Zapatua, 16:30. Errotazar. Aretxabaleta-Iñitxa Zapatua, 16:30. Ibarra. Mondra-Iñitxa Zapatua, 18:00. Mojategi.</p> <p>GAZTEAK, IGOERA Bergara-Mariño Domeka, 17:30. Agorrosin.</p> <p>OHOREZKO KADETEAK Aloña Mendi-Arrasate</p>	<p>Zapatua, 12:00. Azkoain. Bergara-Amaikak Bat Domeka, 15:45. Agorrosin.</p> <p>ARETO FUTBOLA</p> <p>EUSKAL LIGA Eskoriatza-Aretxabaleta UDA Zapatua, 17:50. Manuel Muñoz</p> <p>EMAKUMEZKOAK Inter Altzako-Eskoriatza Zapatua, 16:00. Donostia.</p> <p>KADETEAK Anoeta-Arizmendi Eskoriatza Zapatua, 11:00. Anoeta.</p> <p>ESKUBALDIA</p> <p>GIPUZKOAKO KOPA Ereintza-Izaraitz Aloña Mendi Zapatua, 19:00. Errenteria.</p> <p>LURRALDE MAILAKO KOPA Bergara-Laubide Jat. Domekan, 13:00. Labegaraleta</p> <p>BIGARREN LURRALDEKO KO. Saieko-Arrasate Domekan, 12:00. Donostia.</p> <p>EMAKUMEZKOAK, KOPA Iturritxo Aloña Mendi-Elgoibar Zapatua, 17:30. Zubikoa.</p> <p>SASKIBALDIA</p> <p>EBA MU-Cantabria Estela Domeka, 17:30. Iturripe.</p> <p>BIGARREN MAILA Paules Skoda-Natra Oñati Zapatua, 18:00. Barakaldo.</p>	<p>ERRUGBIA</p> <p>EUSKADIKO TXAPEL. Arrasate ART-Bilboko Unib. Zapatua, 16:30. Mojategi.</p> <p>TXIRRINDULARITZA</p> <p>GIPUZKOAKO ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA Zapatuan, 16:00etan Oñatin.</p> <p>AUTOMOBILISMOA</p> <p>25. GORLAKO AUTO IGOERA Zapatuan, 15:00etan.</p> <p>PILOTA</p> <p>BEÑAT REZUSTARI OMENALDIA Domekan, 17:00. Bergara.</p> <p>HERRI ARTEKO TXAPELKETA Arrasate-Aia Egubakoitza, 20:00. Uarkape. Aramaio-Artzeniega Zapatuan, 17:00. Aramaio Lasarte-Bergara Zapatuan, 11:00. Lasarten. Zumarraga-Aloña Mendi Egubakoitza, 20:30. Lasarten.</p> <p>MENDI BIZIKLETA</p> <p>MUSAKOLAKO MARTXA Domekan, 09:00etan Arrasaten, Zior Ola elkarre ondoan.</p> <p>PIRAGUISMOA</p> <p>ESKOLA ARTEKO GIPIZKOAKO TXAPELKETA Zapatuan, 10:30ean Bergaran.</p>
--	---	---

PIRAGUISMOA

Beti Bustik antolatuta, eskola mailako Gipuzkoako Txapelketa egingo dute zapatuan Bergaran

Deba ibaia piraguista gaztetxo beteko da zapatuan, Beti Bustik antolatutako Gipuzkoako eskola arteko txapelketa egongo da-eta jokoan. Txapelketa 10:30ean hasiko dute, eta antolatzaileek espero dute txapelketa modu txukunean antolatzeko adina ur izatea ibaiak.

BERDINTXIKETAN
Bikote mistoen Oñatiko 6. lasterketa



5 km

Noiz: 2016ko maiatzaren 13an, ostirala, arratsaldeko 18:30etan

Non: Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, Oñati

Izen Ematea:
berdintxiketan.enpresagintza@mondragon.edu
siles.google.com/s/mondragon.edu/berdintxiketan/



Antolatzailea



Babeslea



Laguntzaileak




LABORAL kutxa

Bearteko artisten lanak gaurtik Kulturaten ikusgai

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Urteetako harremana dute Arrasateko eta Bergarako margo eskoletako kideek. Ekimen asko egin dituzte bateko zein beste kideek elkarrekin. Era berean, Bergarako eskolakoek Arrasateko eskolan jardun dute irakasle lanetan; gaur egun Rikardo Azkargorta ari da Luis Laskuraini lekukoa hartuta.

Gaur, egubakoitza, Kulturateko klaustroan zabalduko duten erakusketa da elkarlan horren azkeneko fruitua. "Urretxuko eskolakoekin egin genuen azkeneko elkartrukea, eta, oraingoan, Beartekoak gonbidatu ditugu. Hilabetez izango dira euren lanak gurean ikusgai eta datorren urtean Aroztegin erakutsiko ditugu gureak. 19:00etan egingo dugu inaugurazio ekitaldia, eta luntxa ere egingo da", azaldu du Tano Ribasek, Arrasate Margo taldeko presidentea.

Margolanak eta eskulturak
Bearteko kideek talde moduan lehenengoz erakutsiko dituzte Kulturaten euren lanak. "Baionako eskolakoekin egin genuen azkeneko elkartrukea iaz. Aurrez beste eskola batzuekin ere egin izan ditugu, Eibarren eta Durangon, besteak beste. Arrasatera ekarri duguna gure eskolaren uzta zabalaren erakusle da: 43 autoreren lanak batu ditugu, bakoitzaren bina edo hiruan lan. Nahikoa lan izan dugu koardoa eskegitzen, baina, duda barik, Kulturate eraikin paregabea da", dio Juanjo Altunak, Bearteko presidentea.

Teknika eta estilo askotakoak daudela kontatu du Altunak: "Olioak, akuarelak eta akrilikoak daude, eta estiloari dagokionez ere askotarikoak. Eskulturak, berriz, abstraktuak dira eta material oso ezberdinekin egindakoak: burdinarekin eta egurrarekin, besteak beste".



Aristi, Altuna eta Arantzabal, BEARTEko kideak bilduma prestatzen. | A.A.

Kantu eta dantza zaleen topaleku izango da Elgeta

Bola Tokin egingo duten bazkarirako txartelak erosteko azkeneko eguna maiatzaren 19a da

A. ARANBURUZABALA | ELGETA
Herrixa Dantzan-ek eta Elgetako Udalak antolatuta, Kantu eta Dantza Eguna egingo dute hilaren 22an, domeka, Elgetan.

Egun osoko jai

Iaz moduan, aurten ere, herriko kantu zaleez gainera, Debagoieneko eta inguruko beste herri batzuetatik etorriko diren zaleak ere gonbidatu dituzte.

Egun osoko egitaraua gertatu dute. 13:00etan ekingo diote, herriko plazatik abiatuta, kalez kale egingo duten Kantu-jirari. Ondoren, Bola Toki tabernan elkarrekin bazkalduko dute, eta bazkalostean,

mahaiaren bueltan kantuan jarraituko dute. Arratsaldean, kantuari dantzak hartuko dio lekukoa Jainaga eta Narbaiza musikariekin, kiroldegian 18:00etan egingo duten Herrixa Dantzan dantzaldian. Ohi moduan, Patxi Monterok gidatuko du saioa.

Bazkarirako txartelak salgai

Hamabost eurotan eskura daitzke Bola Toki tabernan edo Udalaren honako kontu korronte zenbaki honetan dirua sartuta: 3035.0009.11.0090900039-bazkaria izena, komeni da jartzeari. Maiatzaren 19a, eguna, da azkeneko eguna.

Txipi Ormaetxea Lasaga | Filologoa

"Euskara batua beharrezkoa izan da, nahiz eta euskalkietan eragina izan"

Ormaetxearen lankideen eta gertuko idatziak jasotzen dituen liburu argitaratu berria, Euskal Herriko Unibertsitatean eskura daiteke

T. M. / A. A. | ARRASATE
Hire Bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz liburu aurkeztu zuten martitzenean Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Arrasateko filologo eta unibertsitateko irakaslea du ardatz, eta haren lankideen eta gertuko idatziak biltzen ditu.

Ez da eguneroko kontua norberaren omenezko liburu bat argitaratzea. Unibertsitatean badago ohitura horrelakoak egiteko, batzuetan gertatu da lankideren bat gazterik hil, eta ondoren egin diotena. Nik aurreratuta hartu nuen erretiroa duela urte eta erdi, eta orain harrapatu nau. Maila pertsonalean, sekulako sorpresa hartu nuen. Hunkigarria, ez nuen inondik ere espero. Aurkezpenean esan nuen moduan, erretiroa hartu nuenean oso pozik geratu nintzen egin genituen bazkari eta bestelakoekin. Eta orain, ba, pentsa!

Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makazaga eta Patxi Salaberri dira egileak. Aspaldiko bidelagunak? Bai; eta aspaldiko lagunak ere bai, nahiz eta nire nagusiak izandakoak diren hirurak; maitasun guztiarekin erabilita *nagusi* hitza. Aramaioarra bat, Salaberri; elgoibartarra Makazaga; eta Dimakoa, berriz, Aurrekoetxea.

Zer jasotzen du?

Horrelako liburuetan, gehienbat, lankideek euren espezializaziotik idatzitakoak izaten dira: dialektologia... Batzuk, niretako ere zailak dira. Era berean, badaude gertukoagoak edo niri buruz idatzitakoak ere; adibidez, nire ikasleak izan eta orain ikerkuntzan ari direnenak.... Alde pertsonala eta akademikoa uztertuta daude. Oraindik ez dut asti handirik izan irakurtzeko, baina hitza eman nien irakurriko nuela; eta, beraz, bete egin behar dut, eta pozik, gainera.

Filologia Erromanikoan eta Euskal Filologian lizentziaduna zara. Betidanik izan duzu hizkuntzekiko, bereziki, euskararekiko interesa?



Txipi Ormaetxea, liburuarekin, eguaztenean, Goienako egoitzan. | A.A.

"Unibertsitatean nahiko ohikoa izaten da omenezko liburuak ateratzea"

"Zortea izan genuen euskararekiko aita oso gogorra izan zela gurekin"

Txikitatik, bai. Zortea izan genuen etxean aita euskararekiko gogorra izan zela. Gesalibar auzokoak izanik, errazagoa izan genuen euskara gordetzea. Ez duzue sinistuko, baina Arrasaten euskara oso galduta zegoen nire gaztaroan. Orain, izugarri eskertzen diot aitari horren gogorra izatea. Gero, filologia... etorri ziren, baina betiko zaletasuna izan dut, bai.

Egin dituzun ikerketen zerrendan, bereziki, tokian tokiko euskararen ingurukoak daude: Arrasateko toponimiaren inguruan egindako lana, edo Aramaioko aditzen ingurukoak.

Euskararen inguruan dialektologia izan da aztertu izan dudana gai nagusietako bat. Arrasatearra izanik, lehenengo, bertako toponimia aztertu nuen, eta gero, sustraiak Aramaion ditudenez, hango euskara aztertzeari ekin nion. Nire tesirako gaia izan zen Aramaion egin nuen lana.

Uste duzu gaur egun nahikoa arreta eskaintzen zaiola euskalkiari? Euskalkiak apur bat baztertuta geratu ziren euskara batua sortu zenean. Batua behar-beharrezkoa zen, baina, zoritxarrez, toki batzuetan euskalkian eragina izan du; gure praktikan ere egon da, nire ustez, akats hori.

34 urte egin dituzu Unibertsitateko irakasle. Zein bilakaera ikusi duzu ikasleengan?

Beste garai batzuk ziren, nire hastapenetan euskaldun gutxiago zeuden unibertsitatean. Alde horretatik, beraz, asko aldatu da; baina, bestetik, garai bateko euskaldunek euskararekiko kontzientzia handiagoa zutela ere esan daiteke.

Zeintzuk dira orain zure asmoak? Naturarekiko badaukat gogo berezia; ortu bat ere badut. Ehunka liburu ere zabaldu barik ditut, eta horiei helduko diet orain.

Lehen finalerdiak jokatura, Maider Arregi finalean da

ENEO AZURMENDI | OÑATI
Plazatik Gaztetera sariketako lehen finalerdi jokatu zen pasaden zapatuan Deban. Bi bikote sailkatu ziren finalerako: alde batetik, Maddi Sarasua eta Manex Astigarraga bikotea; eta bestetik, Maider Arregi oñatiarrak eta Gemma Urteagak osatutakoa.

Zortziko handian eta txikian, denetariko gaiak izan ziren, amaren eguneko oparien kon-

tuetatik hasita, eta etxegabetze kontu gogorren gainean ere kantatuta.

Bakarkako ariketan Maider Arregirena izan zen deigarriena. Arraunlari gazte baten paperean jarri zuten, entrenatzaileak doptzera behartzen duena. Bi bertso ederrekin amaitu zuen saioa, praktika horren aurkako salaketa egin eta horren aurka agertuta.

Bigarren finalerdi

Zapatuan jokaturako finalerdiaz gainera, bihar, zapatua, Markina-Xemeinen jokaturako dena geratzen da finalerako azkeneko txartelak eskuratzeko.

Ondarroako eta Bergarako saioetako hautatuak eta Eibar-ko eta Soraluzeko entzuleek hautatuak izango dira. Bihar beste bi bikote sailkatuko dira finalerako.

Aurkeztu dituzte aurtengo Arrasate Literatur Lehiaketetako finalistak

- ▶ Hiru sailetan 135 lan aurkeztu dituzte
- ▶ Irati Jimenez izango da idazle gonbidatua aurtengo

IRATI ELORTONDO | ARRASATE
Dagoeneko 29 urte bete dituzte AEDk urtero antolatzen dituen Arrasate Literatur Lehiaketek. Eguaztenean eman zuten finalisten berri, eta datorren egunean, hilak 12, izango da irabazlearen

ekitaldi nagusia. Kulturateko areto nagusian izango da ekitaldia, 18:30ean hasita. Martxoaren 16a izan zen lanak aurkezteko azken eguna, eta 29. edizio honetara 135 lan aurkeztu dira; iazko ediziora baino zortzi lan gehiago,

hain zuzen ere. Urtero bezala, ipuin lehiaketa izan da parte-hartze handiena izan duena, 63 lanekin; ondoren, poesia lehiaketa, 43 lanekin; eta, hirugarrenik, bertso-paper lehiaketa, 29 lanekin. Epaimahaia AED elkarteak aukeratuko du. Lehiaketa debagoiendarrei zuzenduta dago, edo bertan lan egiten dutenei. Obrak euskarazkoak dira eta inoiz saritu edota argitaratu gabekoak izan behar dute. Gai librea izan zuten gaztetxoek, eta parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan bidaltzeko aukera izan zuen.

Sari potoloak

Hurrengo egunera arte, hilak 12, irabazleak esango ez badituzte ere, iragarri dituzte jada finalista guztiaren izenak; guztira, 29 dira. Maila ezberdinetakoak, lehen eta bigarren mailetako gaztetxoek hurrengo astean sari potoloak irabazteko aukera izango dute.

Gaztetxoek sari ugari jasotzeko aukera izango dute, hiru sail ezberdinetan banatuta. Ipuin, poesia eta bertso-paper saila 4 maila ezberdinetan banatuta dago; Lehen Hezkuntzako 5. eta

LEHIAKETAKO FINALISTAK

IPUINA

- ▶ Unai Egidon.
- ▶ Jurgi Irasuegi.
- ▶ Kattalin Linazisorok eta Naroa Etxeberriak osatutako bikotea.
- ▶ Irene Murua.
- ▶ Nerea Agirre.
- ▶ Maria Oses.
- ▶ Matilde Aizpuruak eta Deiane Marcosek osatutako bikotea.

POESIA

- ▶ Oihana Romero.
- ▶ Esti Benitez.
- ▶ Jurgi Iraola.

- ▶ Maria Oses.
- ▶ Itziar Elkorobarrutia.
- ▶ Deiane Marcos.

BERTSO-PAPER

- ▶ Saioa Coronado.
- ▶ Bertso Eskolako bederatzikotea.
- ▶ Olatz Zuazubiskar.
- ▶ Oihana Arana.
- ▶ Haizea Arana.
- ▶ Marixe Ruiz de Austri.
- ▶ Ane Zuazubiskar.

Maiatzaren 12an izango da 'Euspot' lehiaketaren sari banaketa Arkupen

IRATI ELORTONDO | ARETXABALETA
Sari banaketa ekitaldia datorren ostegunean izango da, maiatzak 12, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean, 19:00etan. Guztira, 2.000 boto jaso dituzte publikoaren sarirako, eta 220 boto lortu ditu datorren astean iragarriko duten irabazleak. Euskal Herriko leku askotatik iritsi dira spotak; Legazpi, Lazkao, Gasteiz, Tolosa...

Elkarlanean

Gipuzkoako Foru Aldundia, Aretxabaletako Udala, Mondragon Unibertsitatea eta Arteman Komunikazioa enpresa elkarlanean aritu dira. Gazteen parte-hartzea sustatu nahi izan da, eta, horretarako, harremanak indartu dira zenbait ikastetxerekin eta sektoreko eskolekin, eta erantzuna oso positiboa izan da.

Sari potoloak

34 lan aurkeztu dira aurtengo, *Turismoa erakarri Gipuzkoa barnealdia* gaiaren lelopean. Guztira, lau sari banatuko dira: gazteen saria (14-18 urte bitarteko gazte-txoen artean banatuko dena), 250 euro; publikoaren saria, 500 euro; Mondragon Unibertsitateko ikasle onenaren saria, 500 euro; eta spotik onenak 1.000 euroko saria irabaziko du.

Aurpegi ezagunak ekitaldian

Arratsaldeko zazpitan hasiko da sari banaketa Arkupe kultur etxean. Bertan, parte hartu duten spot finalistak erakutsiko dituzte. Angel Alkain aktoreak girotuko du ekitaldia, eta, horrez gainera, Audionetwork musika-edizio etxeko arduradunak musika eskubideen inguruko hitzaldia emango du. Ekitaldia amaitzeko, luntxa egongo da han batzen diren guztiendako.



Iazko edizioko irabazleak. | EUSPOT

6. mailetako gazteek gehienez 100 euro irabaz dezakete. Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako ikasleek 125 euroko saria izango dute; 3. eta 4. mailetako ikasleek, berriz, 150 euro. Azkenik, Batxilergoan diharduten ikasleek 200 euro irabazteko aukera izango dute. Bigarren postuan geratuz gero, opari bat ere emango zaie ikasleei.

Gonbidatu berezia

Aurtengo idazle gonbidatua Irati Jimenez izango da; idazle mundakarra sari banaketa ekitaldira hurbilduko da, irabazle eta parte hartu duten gaztetxo guztiei aholkuak eman eta haiekin hitz egingo. Irati Jimenezek dio ilusioz beterik etorriko dela ekitaldira: "Nik gaztetan nuen ilusio bera ikusten dut gaztetxoekin, asko gustatzen zait lehiaketa hauetan egotea, nire gaztaroaz gogoratzen naiz".

Jimenezek ez ditu bidean agertzen zaizkion arazoak oztipo ikusten: "Idaztea gustatzen bazaizu, aurrera, ez egin kasu bidean jartzen diren oztipoak". Ilusio hori gaztetxoekin helarazi nahi die Jimenezek, erronka handia bada ere aurrera jarrai-

ESANAK

"Gonbidatua izateko baiezkoa gaztetxoekin hitz egiteko aukera izango nuelako eman nuen"

IRATI JIMENEZ | IDAZLEA

tzeko ilusioa ez galtzeko esanda: "Ilusioa egiten dit bertara joateak; ni nerabea nintzenean izaten nituen oztipo eta kezkekin gogoratzen naiz, eta haiei positibismoa transmititu nahi diet; oztipoak kasurik ez egitea, alegia".

Irati Jimenez idazlea Bigarren Hezkuntzako ikasleekin (DBH eta Batxilergoa) egoteko aukera asko izan du beti, eta haiengandik ikaragarri ikasten duela dio. Hurrengo astera begira Arrasaterako ilusioz beterik eta gogoz hurbilduko dela dio.

Donostia 2016ri esker
'Noetic' dantza ikuskizunerako sarrerak ditugu.
Victoria Eugenia antzokian, Donostia.
Maiatzaren 12an eta 13an, 20:00etan.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (MAIATZAREN 9A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA NOETIC [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

Arrasateko Udalarri esker
'Aureo' dantza ikuskizuna ikusteko sarrerak ditugu.
Amaia Udal Antzokian, Arrasate.
Maiatzaren 14an, 19:30etan.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (MAIATZAREN 10A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA AUREO [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba


Aretxabaletako Udalarri esker
Sorkun-en kontzertua ikusteko sarrerak ditugu.
Arkupen, Aretxabaletan.
Maiatzaren 14an, 20:00etan.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (MAIATZAREN 10A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA SORKUN [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

PAZKOAK 2016



Egitaraua
Xaxau gertu dago
Erraldoiak
Txupina
Musika Banda
Goitibeherak
Bigantxak eta
errekortadoreak
Baserriko lanak, jolasak
Barrakak
Musikaz blai
Jaietan gustuko
Bakailao lehiaketa
Orain 20 urte...
Erakusketak


GMK

IMB ESTUDIOA

%30_{eko}

deskontua sukaldeko altzari berrietan!





PAZ



KOAK

2016

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | JIAK: PAZKOAK 2016, BERGARAKO JIAK

MAIATZAK 16, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | MAIATZAK 17, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JIAK: PAZKOAK 2016, BERGARAKO JIAK

MAIATZAK 18, 22:00

BABESLEA:

ARETXARGI

AGURRA

ELENA
LETEBergarako
alkateaAlkatearen
agurra

O hore handia da aurten lehen aldiz Pentekoste Jaia alkate bezala ospatzea, eta sekula ahaztuko ez ditudan festak izango dira niretzat, inolako zalantzarik gabe.

Niretzat bezalaxe, jai hauek denentzat ahalik eta hoberenak izatea nahiko nuke eta herritar guztien topaleku eta elkarbizitzarako gune izatea espero dut.

Jaiak maiatzaren 13an hasiko dira eta aurten Atzegi elkarteak kideek emango diote ongiatorria Bitorianaxori denen izenean. Atzegi elkarteak egoitza berri bat zabaldu zuen pasa den otsailean Bergaran, eta, era horretan, elkarteari ere ongiatorria emateko aukera paregabea zela iruditu zitzaigun, beraiek ere Pentekosteetako protagonista eta partaide izateko aurtengoan.

Datozen egunotan, eguneroko arazo, neke eta kezka alde batera uzteko unea iritsi zaigu, geldiune bat egiteko garaia da. Pentekoste Jaia ospatzeko unea da. Herriko talde eta eragileekin batera festa-egitarau oparatu osatu dugu eta horrela, adin eta gustu guztientzako ekimenak eta ekitaldiak izango ditugu herriko kaleetan.

Eskerrik beroenak Jai Batzordeko bileretan parte hartu duzuenoi, jaien antolaketan parte hartu duzuenoi eta, nola ez, festak ondo atera daitezten lan egin beharko duten guztiei ere, mila esker gure udalerriarikiko erakusten duzuen konpromisoagatik.

Azkenik, alaitasuna eta dibertsioa partekatuzera gonbidatu nahi zaituztet, baina, hori bai, aniztasuna errespetatuz.

Ondo pasa eta gozatu Pentekoste Jaia 2016!



Erraldoiek eta kiliekiek gogotsu jardungo dute Bergarako jaietan. | IMANOL SORIANO

JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA

13

20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa eta Bitorianaxoren jaietsiera, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda.

Iluntzean Matxiategin BARRAKAK IREKITZEA

21:00etan TXOSNAK

IREKITZEA Bideberrin.

20:30 PARRILLADA auzolanean Oxirondo plazan (azoka ondoan), Oxirondo Aisialdi Guneako gurasoek antolatuta, haur eta gurasoentzat. Tikitak salgai 6 eurotan Azokako postuetan. Euria bada, Seminarioko azokan

21:30 Mugi Mugi erromeria haurrentzat Oxirondon.

23:00 Dantzaldia, EN TOL SARMIENTO taldearekin, San Martin plazan.

ZAPATUA

14

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

10:00 XXXVI. HAUR ETA GAZTEEN "SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA", Beart Bergarako Arte elkartearen laguntzarekin, San Martin plazan.

10:00 DIANA. Bolutik, Bergarako trikitaliak. Labegarrietatik, Elgoibarko dultzaineroak.

Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 ERRALDOIEN GUNEA Munibe plazan: Bergara, Trapagaran, Sestao eta Berriozarko erraldoien erakusketa, erraldoiak egiteko tailerra, erraldoien txokolatezko piruleta, puzgarriak, gomazko erraldoien erakusketa, *Simon* eta *Magdalena* gomazko erraldoien salmenta, palomita-makina, umeek margotzeko erraldoien liburuxka, xaboi-ponpa erraldoiak...

11:00 Herriko Elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarientzako lapiko eta amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrentzako mokadua etxe hauei esker: Konde, Mizpildi, Ogizun, Ogiberri Elkoarti eta Olabe okindegiak; Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Antia, Igartza, Sebastian Imaz eta Urzelai harategiak.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Bisita ezazu gure webgune berria: www.gorosabeldental.com




RPS: 266/13

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia.
- Odontologia Orokorra.
- Aho eta inplanteen zirugia punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Ondo pasa
jaietan!

26 URTE ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANOI!



Ume jaioberriei ongietorria egingo diete; argazkian, iazkoa. | GOIENA

11:30 Pentekosteetara ongietorria emateko ekitaldia; iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergararren, udaletxeke pleno aretoan. Ondoren argazki bateratua ateratzea udaletxe kanpoaldean, artxibo aldeko eskaileretan.

13:30 Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

13:45 Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

17:30 DIRT JUMP eta TRIALSIN

ERAKUSTALDIA Mariaren Lagundiko patioan

18:00 Tostoi eta Erreileno erraldoi berrien aurkezpena. Bergara, Trapagaran, Sestao eta Berriozarko **ERRALDOIEN KONPARTSEN KALEJIRA** Bergarako kaleetan, Elgoibarko dultzaineroen eta Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, D. Irala,

Barrenkalea, San Martin plaza.

19:00 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA (10-15 urte artekoak). Ondoren bi errekortadoreren arteko desafioa. Sarrera: 3 euro.

23:00 Kepa Junkera & Sorginak taldearen kontzertua San Martin plazan.

DOMEKA

15

09:00 LXXXI. Pentekoste Saria (23 urte azpikoentzat). Antolatzailea: Lokatza ZE

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro

11:00-14:00 Jolas-gunea etxeko txikientzat (7 urte arte), Arrizuriaga azpiko jolas-parkean

11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian

12:30 Udal Musika Bandaren **KONTZERTUA** Espoloian.

14:00 Kale antzerkia: Evaristo&cia

16:00 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean

17:00-20:00 Jolas-gunea etxeko txikientzat (7 urte arte), Arrizuriaga azpiko jolas-parkean

18:00 Kale antzerkia Evaristo&cia.

19:00 Errekortadore txapelketa, hainbat modalitatetan,

zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

20:30 Aukeran dantza-taldearen Fusioak ikuskizuna, San Martin plazan. Edu Muruamendiaraz dantzariaren gidaripean.

ASTELEHENA: KUADRILLEN EGUNA

16

11:30 TABERNEN ETA KOADRILEN ARTEKO HERRI

KIROLN TXAPELKETA, zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA Nuevo Talisman Orkestrarekin Espoloian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan (euria egiten badu, Seminarioko karpan). Adingabeei bazkarian ez zaie alkoholodun edaririk banatuko. Koadrilan jarri nahi duzenok, denok taldean



Errekortadore gaztea zezen-plazan, iaz | GOIENA



Pazkoa jai zoriontsuak

08:30etik - 20:30era zabalik

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92

ogizun
ogigourmet365

Ondo ibili Pazkoetan!

agertu beharko duzue bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeko.

17:00 Kulkiren jolasak "Baserriko parkea" Ariznoa plazan

18:30 GAZTETXOENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO ZEZENTXOAK ETA BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

19:30 BERGARA HIRIA PILOTA PARTIDETAKO FINALAK Udal pilotalekuan. Antolatzailea: BKEko Pilota saila.

22:30 Garilak 26 taldearekin ERROMERIA, San Martin plazan.

23:00 CAMP DANTZALDIA Nuevo Talisman Orkestrarekin Espolotan.

MARTITZENA: UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

17

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro

11:00-14:00 HAURRENTZAKO eta GAZTEENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak, jumpinga, Wipe Out -egur zoroak-, boom splash, kart-ak...

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Aizkolariak (Donato Larretxea, Ernesto Ezpeleta, "Bihurri", Xabier Orbeago, "Arria V.a", Felix Zubizarreta), harri-jasotzailea (Inaxio



Herri bazkaria, jaietako ezinbesteko ekitaldi; argazkian, iazkoan parte hartu zuen neska-koadrila. GOIENA

Perurena) eta txinga-eramailea (Santa Souza).

13:00-14:30 Los Cinco Bilbainos, bilbainadak, D. Irala kalean.

17:00-20:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 Pilota partida profesionalak Bergarako Udal Pilotalekuan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOekin zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

20:00-22:00 DJ FESTA Oihan Vegarekin San Martin plazan.

22:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

00:30 arte DJ Oihan Vega San Martin plazan.



Ume jaiaberriei ongietorria egingo diete; argazkian, iazkoa. | IMANOL SORIANO

ZAPATUA EUSKAL HERRIKO BEHI SUHARRAREN EGUNA

21

Egun osoan Ekitaldiak zezen-plazan eta Seminarioko patioan. Egun osoko sarrera: 10 euro.

DOMEKA

22

10:00-14:00 TXIMISTA XAKEKO EUSKADIKO BANAKAKO XXXI. TXAPELKETA. Agorrosin Kirol Gunean

16:00-20:00 TXIMISTA XAKEKO EUSKADIKO TALDEKAKO TXAPELKETA. Agorrosin Kirol Gunean


OHARRAK:

Debekatuta dago zezen-plazako emanaldietara kristalezko botila edo edalontzirik eramatea.

Jai-batzordeak dei egiten die herriko koadrilei blusa edo kamisetarekin irteteko.

16 urtetik beherakoek debekatuta izango dute zezen-ikuskizunetan parte hartzea, errektadore eskola ibiltarian izan ezik.

Era berean, Jai-batzordeak ez du bere gain hartzen jaiagun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.



iBARRALDE

Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxe: 943 76 25 64

Ondo pasa jaiak!




Behar dituzun sukaldeko tresna guztiak ... eta gehiago.

Hilero iBILI produktuan zozketa Facebook-en



Ondo, ondo pasau jaiak!!

ibili



Xaxau ere gertu dago Pentekosteetarako

Makina bat hitzordu izango da txosnagunean

BAD SOUND SYSTEM KALEJIRA

Ragga erritmoak kalean zehar

Bitorianatxo jaitsi, txosnak ireki eta jarraian etorriko da aurtengo Xaxauren apustu handietako bat: Bad Sound Systemen kalejira kamioneta gainean. Kalerik kale ibiliko dira *Buiaka* eta reggae rap eta *dancehall* erritmoekin bergararrak dantzan jartzen.



Bad Sound System hirukotea oholtzan. | MUSIKAZUZENEAN

ZAPATUA

Arratsalde osoan gelditu ere egin gabe

Jaietako zapatu arratsaldean ez da aspertzeko tarterik izango Bideberri inguruan. Eguerdiko ordu batean kantu-jira ibiliko da batetik bestera, eta ondoren, presoan aldeko bazkaria izango da txosnagunean, urtero legez. Bazkalosterako ere, plan bikaina: bertso-tribiala, Kopla Barik bertso eskolak antolatu duen *experimentu* berria.

Bertan parte hartuko dute Ane Labakak, Malen Amenabarrek, Oihana Iguaranek eta Bergarako bertsolariak. Zazpietatik aurrera, berriz, buruhandiei ongietorria egingo diete, eta jarraian batukada feminista abiatuko da, poteo ordua doinu morez girotzeko. Arratsalde-pasa paregabea, beraz!



Presoen aldeko bazkaria. | GOIENA

THE SPARTEENS

'Vintage' estiloan dantza egiteko

Posible al da Negu Gorriak taldearen *Bi doberman beltz* kantaren ye-ye bertsio bat egitea? Posible da, bai, The Sparteens talde hendaierak ondo frogatu duen moduan. Bada, Pentekoste jaietako astelehen gauean kontzertua eskainiko dute Bideberri. 60-70eko hamarkadako twist dantzagarriaren maitaleek agendan derrigorrez apuntatu beharreko hitzordua.



The Sparteens. | SAIDA CABAÑAS

MAIATZAK 13, EGUBAKOITZA

15:00 Ikasle/gazte bazkaria.

Ondoren, elektrotzaranga.

20:30 Txosnen irekiera.

21:00-23:00 Bad Sound System kamionetan.

00:00 Fridays Crew. Bad

Sound Syst, Martxanterak VJ

MAIATZAK 14, ZAPATUA

13:00 Kantu-jira kaleetan.

15:00 Bazkaria presoan alde.

17:30 Bertso tribiala: Ane Labaka, Malen Amenabar, Oihana Iguaran, Kopla Barik.

19:00 Buruhandien harrera.

19:00 Batukada feminista

23:00 Mc Onak, Polygorn, BET DJak: A. Electronische, Landerground eta Balza

MAIATZAK 15, DOMEKA

12:00 Ume-guraso jolasak.

13:00 Entsaladatxo sobietar lehiaketa. (Apuntatzeko: Depor, Ganbara, Arrano eta Kortazar. Maiatzak 12ra arte)

14:00 Sari banaketa.

14:30 'Demasa' bazkaria.

17:00 Magia: Imanol Ituiño.

18:00 Azkaiter Pelox Trio, Harresian Zulo

22:30 Korto lehiaketa

MAIATZAK 16, ASTELEHENA

20:00 Laket.

23:00 The Sparteens, Nebulosa, DJ Bull.

MAIATZAK 17, MARTITZENA

19:00 Perlak, Fiachras.



PENTEKOSTE JAIK 2016

BERGARA

Maiatzaren 13tik 17ra arte

ondo pasau jaietan!

Azpeitxi • Etxagi • Irish Pub Galways • Bule • Euxebio II
Toki Ona Bodegoia • Usoa • Ariznoa • Pol Pol

Iritsi dira 'Tostoi' eta 'Erreileno' erraldoiak

Maiatzaren 14an, zapatua, 18:00etan hasita, erraldoiak konpartsako kalejiran arituko dira Bergaran

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Kalejiran irtengo dira erraldoi berriak ohikoekin batera zapatuan 18:30ean Bergarako kaleetan zehar. Erraldoien aurkezpenean —18:00etan—, Bergarako pastelgielek parte hartuko dute: Larrañagak, Mujikak eta Reizabalek.

Erraldoi berriak

Bergaran ezagunak diren tostoi eta erreileno gozoei erreferentzia eginez, bi erraldoi berri aurkeztuko dituzte zapatuan, hilak 14. Tamaina handikoak izango dira erraldoi berriak: metro eta lau rogei zentimetrokoak. Erraldoiek erretiluak eramango dituzte eskutetan tostoi eta erreilenoekin. 5 edo 6 kilo ingurukoak izango dira, antolatzaileen esanetan, haurrak barruan sartzeko aukera izateko. Erraldoi berriei, Tostoi eta Erreileno Kofradiako ordezkariak kofrade-medailak jarriko dizkie-

te. *Tostoi* eta *Erreileno* erraldoi berriak Katalunian egindakoak dira; Gironan, hain zuzen ere.

Erraldoien gunea Munibe plazan

Erraldoi berriekin kalejiran aritu aurretik, erraldoien gunea egongo da Munibe plazan goizeko hamaiketan. Bertan, etxeko txikienek arratsaldean kalejiran irtengo diren erraldoi ezberdin guztiak ikusteko aukera izango dute; bertakoak, Bergarakoak, Trapagaran, Sestao eta Berriozarkoak. Erraldoiak egiteko tailerra ere egongo da bertan, etxeko txikienek erraldoi mota berriak sortzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, eskulanetan aritzeko aukera ere izango dute haurrek. Era askotako puzgarriak egongo dira, txokolatzeko piruletak jateko aukera, palomita-makina, umeez margotzeko erraldoien liburua eta xaboi-ponpa

erraldoiak egiteko aukera. Eta errifak salduko dituzte. Erraldoien erakusketa ere egongo da, Andoitz Gomezek 160 erraldoi ezberdinen miniaturrez osaturik. Leku ezberdinetatik ekarritakoak izango dira panpinak; adibidez, Katalunia eta Nafarroa aldetik. Azkenik, *Ximon* eta *Magdalena* gomazko erraldoien erakusketa jarriko dute, baita Bergarako gozotegietan ere. Oraindik eskratu ez dituztenek bertan erosteko aukera izango dute, berriz ere agortu eta ez erosteko aukerarik ez izateko.

16 urtez lanean

2000. urtean sortu zen Erraldoien Konpartsa eta 25 lagunek osatzen dute taldea. Gainera, laguntzen 15 bat umeko talde ere egoten da. Bergaran irteten dira, baina Bergaratik kanpo ere ezagutzera ematen dituzte.



Tostoi eta Erreileno erraldoi berriak. | GOIENA



Herriko txikitxoek erraldoiekin. | GOIENA

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Gorka Rementeria | Txupina botako du aurten

"Aurtengo jaiak bereziak izatea espero dut"

Atzegi elkarteko kideen izenean jaurtiko du txupina Rementeriak

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Atzegi elkarteak kudeatzen duen San Lorentzo auzoko etxebizitzan bizi da Gorka Rementeria (Bergara, 1970) duela bi hilabetetik, beste sei lagunekin batera. Guztiak udaletxeko balkoian izango dira maiatzaren 13an, eta Rementeria izango da txupina jaurtitzeari arduratuko dena. Jaizalea izanik, zalantzarik ez zuen izan Udalaren proposamenari baietz esateko.

Zer pentsatu zenuen txupina jaurtitzeari eskaini zizutenean?
Lehenengo momentutik esan nuen,

"Dударik ere ez nuen egin txupina jaurtitzeari eskaini zidatenean"



Gorka Rementeria, San Lorentzoko etxe berriko balkoian. | MT.

oso seguru, botako nuela. Dударik ere ez nuen egin. Bat-bateko gauza izan zen, sorpresa bat. Baina pozik nago.

Urduri egongo zarela uste duzu?

Ez dakit. Espero dut, behintzat, dena ondo ateratzea. Esan zidaten moduan, txupina lurrerantz ez botatzea, gorantz baizik. Beste batzuk ere hortik pasatu dira, eta ea nola ateratzen den.

Jaietan zer gustatzen zaizu gehien?

Dena gustatzen zait, baita parranda ere. Ea monitoreek zenbat parranda egiten lagatzen didaten...


"Jaietatik den-dena gustatzen zait, baita parranda egitea ere"

Ze mezu emango zenieke bergararrei Pentekosteetarako?

Ondo ibiltzeko eta ondo pasatzeko. Eta kontuz ibiltzeko, behintzat. Bakoitzak kontrolatzeko bere burua, baina ondo pasatzeko.

Pisukide guztiekin igoko zara balkoira, eta denen izenean botako duzu txupina. Zer esaten dizute?


Esaten den moduan, errespetu-edo igartzen dut etxean. Aurten jaiak bereziak izatea espero dut.



PENTEKOSTE JAIK
BERGARA
2016



Ondo pasa
jaietan!



Maite Elortzak egindako marrazkia izango dute aurtengo jaietako zapiak. | JARDUN

Txupina, Bitorianatxori ongiatorria eta... zapiak lepora!

Iaz bezala, Maite Elortza gazteak irabazi du Jardun euskara elkarteak antolatutako lehiaketa, eta berarena izango da aurten ere mahoi koloreko jaietako zapiak eramango duen marrazkia, baita leloa ere: *Kalean zein etxean, euskara geurean!*

Jardunek 1.200 zapi aterako ditu jaietarako, eta datorren egubakoitzeko Bitorianatxoren jaitsieran izango dira eskuragarri hiru euroren truke, baita herriko zenbait tabernatan ere. Euskararen aldeko lelodun pegatinak ere aterako ditu Jardunek, doan banatzeko. Zapien Pentekosteetako elementurik

bereizgarrienak ageri dira, eta horien bitartez JAIXAK 2016 irakurri daiteke.

Bestalde, azken urteetan bezala, aurten ere Blanca Narbaiza izango da egubakoitzean, 20:00etan bergararrei Udaletxeko balkoitik eta Bitorianatxoren paperetik Pentekosteetan ondo pasatzeko mezua igortzeaz arduratuko dena. Hala, bost egunez Bitorianatxok hartuko du agintea, herria jai giroz betetzeko. Jaiak bukatzean, aurten goizago igoko da, gaueko hamarretan, eta ez gauerdian orain arte bezala. Hala ere, musikak jarraituko du Bitorianatxo igotzean ere.

Musu berriak aurten Musika Bandan

Maiatzaren 15ean, domeka,
Espoloian kontzertua eskainiko du
Udal Musika Bandak, 12:30ean



Leire Pineda. | GOIENA

LEIRE PINEDA

"Urduri samar nago, aurtengoa
nire lehenengo aldia izango da eta"

Leire Pineda bergararrak 14 urte ditu eta 8-9 urte zituenetik jotzen du klarinetea. Orain dela gutxi hasi da Bergarako Udal Musika Bandan. "Gabonetan Alfredok deitu zidan bandan sartu nahi ote nuen galdetuz, eta baietz esan nuen, ilusioa egiten zidan eta", azaldu du.

Gainera, taldeak harrera ona egin diola nabarmendu du, eta oso gustura dagoela. "Bandako kideak oso jatorrak dira eta asko lagundu didate

taldean integratzen", adierazi du.

Taldearekin lau kontzertu eskaini ditu dagoeneko, baina Pentekoste jaietan jotzen duen lehen aldia izango da aurtengoa. "Urduri samar nago, aurtengoa nire lehenengo aldia izango da eta", onartu du.

Gaineratu du "jende asko" egongo dela kontzertua ikusten eta horrek ere zertxobait urduritzen duela, baina, gainontzean, lasai dagoela azpimarratu nahi izan du.

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

Belaunaldi berriek etengabe eraldatzen dute Musika Banda, eta aurten ere hala gertatu da.

Izan ere, lau aurpegi berri izango ditu Bergarako Udal Musika Bandak aurtengo Pentekoste jaietan: Leire Pineda eta Jone Mugika klarinete-jotzaileak, Olatz Olañeta flauta-jotzailea eta Bittor Giral tronboi-jotzailea.

Ezinbesteko

Begarako Udal Musika Banda ezinbesteko elementua da herriko jaietan, kaleak eta giroa musikaz alaitzeko.

Jaietari hasiera emateko, adibidez, txupinazoaz eta Bitoriana-txoren jaitsieraz gain, Bandaren kalejira izango da maiatzaren 13an, egubakoitza.

Gainera, aste horretako domekan, maiatzaren 15ean, kontzertua eskainiko du Espoloian.

Kontzertuko kantak

EL CARLOTEÑO (PASODOBLEA)
M. Gz. Bastida
ROSS ROY (OBERTURA)
J. de Haan
LA CANCIÓN DEL OLVIDO (ZARZUELAKO SELEKZIOA)
J. Serrano
RHAPSODY IN BLUE
G. Gershwin
FRENESÍ
A. Domínguez
BERGARAKO ERESERKIA
A. Gz. Chirlaque

Zuzendaria:
Alfredo Gz. Chirlaque



Olatz Olañeta. | GOIENA

OLATZ OLAÑETA

"Flauta-jotzaile bat behar zutela
esan zidaten eta onartu egin nuen"

Olatz Olañeta bergararra da eta 16 urte bete berri ditu.

7-8 urte zituenetik jotzen du zeharkako flauta, eta aurtengo kurtsoaren hasieran, irail inguruan, sartu zen Bergarako Udal Musika Bandan. Ez zuen bi aldiz pentsatu Udal Bandan jotzeko aukeraren gainean. "Flauta-jotzaile bat behar zutela esanez deitu zidaten, eta onartu egin nuen", azaldu du.

Taldean "erraz" integratu dela nabarmendu du. "Lehenagotik ere

batzuk ezagutzen nituen, eta erraza egin zait taldean sartzea".

Onartu du oraindik kontzertu gutxi jo dituela bandarekin eta urduri samar egoten dela jotzen hasi aurretik. Pentekosteetako kontzertuaz galdetuta, oraingoaz, lasai dagoela dio, baina oraindik egun batzuk falta direlako. "Eguna iristen denean urduritasun puntu bat etorriko zait, seguru, plaza beteta egongo da eta", azpimarratu du.

|||
GOKI ERREFORMAK, S.L.

Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.

Ondo ibili jaietan!

Irizar Ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.es

www.gokierreformak.net

autopullmans
Araba



Ondo pasa jaiak!

Euskal Herriko ligako bigarren lasterketa San Martzialen

- ▶ Jaietan 50 goitibehera inguru espero dituzte, kategoria ezberdinetan
- ▶ Iaz Bergarako Jokin Gutierrezek eta Aitor Zabaletak irabazi zuten Liga

XABIER URZELAI | BERGARA

Goitibehera, Goitibera, Karrilana, Soapbox, Speeddown... eta mila izen gehiago dira munduan zehar erabiliak inertiako kirolak izendatzeko. Halaxe aitortzen dute Euskal Herriko federazioko ordezkariak euren webgunean (www.ehikf.eus); izan ere, "Lehen jai giroko jolas bat zena gaur egun kirol bat gehiago izateko bidean dago", eta dena ondo arautzen duen federazioa dute, egutegi osoarekin.

Hala, Euskal Ligako egutegi horren barruan Debagoienak pisu handia du; izan ere, guztira 10 proba dira, eta horietako lau Debagoienean egiten dituzte: Bergaran (maiatzak 15), Antzuolan (maiatzak 21), Oñatin (maiatzak 22) eta Eskoriatzan (zehazteke dago eguna)-.

Bergara, egutegiko bigarrena

Liga maiatzaren 7an hasiko dute, Legazpin, eta maiatzaren 15ean Bergarak hartuko du testigua, San Martzialgo jaitzierarekin: "Homologatuta dagoen jaitciera da, eta bertan parte hartuko duten ibilgailuek ere neurri zorrotzak betetzen dituzte. Garai batean ez zegoen halakorik, jendeak gurpilak zituen edozer gauza hartu-

ta hartzen zuen esku halako lasterketan, baina orain ez, segurtasun neurriak ondo zaintzen dira", adierazi du Bergarako probako antolatzen lanetan ibiliko den lagunetako batek, Irene Gorostik.

Izan ere, inertiako kirolean geroago eta gailu arinagoak egiten dituzte, eta abiadura handia hartzen dute pilotuek, edozein dela modalitatea: pneumatikodun ibilgailuak -abiadura azkarrenak-, arinak (gravity bike, skeleton, longboard...), errodamentuak -klasikoak- edota drift trike-koak -uneoro zeharka doazenak-.

Iazko txapelkunak, herrikoak

San Martzialgo lasterketako irteera puntuan iaz Liga irabazi zuten



Pneumatikodun goitibehera bat, iaz, San Martzialen behean. | IMANOL SORIANO

bi pilotu izango dira, Jokin Gutierrez eta Aitor Zabaleta bergararrak. Iaz bikotea osatu zuten, baina oraingoan Jokin Gutierrezek eta Andoni Barrioberok osatuko dute bikotea, Zabaletak beste ibilgailu bat gidatuko du eta. Hala, Gorostik aurreikusten du Bergaran 50 pilotu inguru batuko direla: Dagoeneko 13 lagunek eman dute izena, eta, hainbat kategoria baldin badaude ere, adin ezberdinetako jendea batzen da hemen. Hori bai, parte hartzeko betebeharrak konkretu batzuk errespetatu behar dira -webgunean datoz zehaztuta-.



Drift-trike modalitatea. | I.S.



Aristi bigarren, iaz. | GOIENA

Pentekoste Sariak 81 urte beteko ditu

Domekan, maiatzak 15, Pentekoste Sarian afizionatu mailako ziklistek 126 kilometro izango dituzte aurretik, eta, tartean, birritan igo beharko dute Asentzio. 12:40 aldera amaituko dute proba, San Antonion.

TRIALSINA

Dirt jump eta trialsin erakustaldia egingo dute zapatuan, maiatzak 14, Mariaren Lagundiko jolastokian (17:30).

BERGARA HIRIA, FINALAK

Apirilean hasi zuten amateur mailako Bergara Hiria txapelketa, eta maiatzaren 16an (astelehena) jokatuko dituzte finalak.

TXIMISTA XAKEA

Maiatzaren 22an (goiz eta arratsalde) Euskadiko banakako eta taldekako tximista xake partidak jokatuko dituzte.

ESANAK

"Gaur egun segurtasun neurri zorrotzak betetzen dira"

IRENE GOROSTI | ANTOLATZAILEA

alet

BERGARA

www.alet-taldea.com
Tel.: 620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Biomasa galdaratan aukera zabala

BERRIA: Pellet eta egurrezko galdara mistoak jartzen ditugu.

Bezeroaren beharretara egokitzen gara.

Diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik. Informa zaitez!

Ondo pasau jaixetan!



Embalan3
Enbalaje Sistemak

San Juan Auzoa. Larramendi Industrialdea, Partzela I-1
Posta Kutxa, 5
20570 Bergara
Tel.: 943 82 94 83 - Faxa: 943 76 41 85
embalan3@embalan3.com
www.embalan3.com

Embalan3
Enbalaje Sistemak



ONDO PASAU JAIXAKI!

OROTARIKO ENBALAJE INDUSTRIALAK - OFIZINA TEKNIKOA - LOGISTIKA BULEGOA

Bigantxak eta errekortadore festa ederra

Gaztaminza dulantziarraren eta Arana bergararraren arteko desafioa izango da, besteak beste

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

Bergarako Pentekoste jaietan ez dira sekula bigantxak eta errekortadoreak falta.

Aurten ere ez dute hutsik egingo eta herriko zezenzaleek ikuskizun horretaz gozatzeko aukera izango dute.

Maiatzaren 14an, zapatua, bigantxekin gozatu ahaliko dute gaztetxoek, 09:00etan, zezen-plazan. Arratsaldean, berriz, errekortadore gaztetxoek (10-16 urte bitartekoak) txapelketa egongo da, 19:00etan. Ondoren, Oier Gastaminza dulantziarraren eta Unai Arana Xurra bergararraren arte-

ko desafioa izango da, zezenari adarretan uztaiak sartzeko helburuarekin.

Domeka goizean bigantxak egongo dira, 09:00etan. Arratsaldeko zazpitan, berriz, 10 errekortadorek parte hartuko duten errekorre txapelketa izango da. Astelehen eta martitzenean ere bigantxak egongo dira.

Izen handiak

Punta-puntako errekortadoreak Mika Romero eta Erik Paskal izango dira, baina, horiez gain, herriko hainbat errekortadorek ere parte hartuko dute.



Unai Arana Xurra. | UNAI ARANA XURRA

UNAI ARANA 'XURRA'

"Gero eta erantzun hobea dute horrelako ikuskizunek herrian"

35 urte ditu Xurra-k eta errekortadore taldeko beteranoena da.

Bergarako Zezenak taldeko zezenik indartsuenetako bati uztaiak sartzeari izango da Oier Gastaminzaren aurka egin beharreko desafioaren helburua.

"Oierrek berak proposatu zuen desafioa, taldeko gazteena zaharrenaren aurka", azaldu du Xurra-k.

Aurkariak galdetuta, onartu du taldeko gazteenari irabazteko gogoz dagoela, baina ez dela erraza izango. "Gazteak indartsu datoz, eta, gainera, beteraanon aurka hazi egiten dira", adierazi du.

Errekortadoreek azken urteetan afizio handia sortu dutela dio, eta plazak bete egiten direla onartu du. "Gero eta erantzun hobea dute horrelako ikuskizunek herrian", azaldu du.



Oier Gastaminza. | OIER GASTAMINZA

OIER GASTAMINZA

"Espero dugu plaza betetzea eta jendeak gure ikuskizunaz gozatzeari"

Oier Gastaminza dulantziarrak 27 urte ditu eta taldeko gazteena da.

"Dakidan guztia Xurra-k eta Txili-k erakutsi didate, asko zor diet", azaldu du.

Mota horretako desafio bat egiten duen lehen aldia da. "Uztai eta errekorre lehiaketetan parte hartu izan dut, baina inoiz ez dut desafiorik egin", dio.

Aurkariak etxean jokatzen duen arren, ez da

kikiltzen arabarra.

"Saiatuko naiz nire irakasleari egurra ematen", nabarmendu du.

Herrian zaletasun handia dagoela dio eta egun handia izango dela espero du. "Espero dugu plaza betetzea eta jendeak gure ikuskizunaz gozatzeari", adierazi du.

Azkenik, zezen famatua dela eta ikustera joatea mereziko duela espero du.



Bergara •
metagra
 México • Group

Ondo pasau jaixetan

Baserriko lanak, jolas bihurtuta

Herri kirolak izango dira Kulki Baserri Parkean adin guztietarako Ariznoa plazan



Kulki Baserri Parkea, Allon (Nafarroa). | L.E.

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Aspaldiko partez, Kulkiren jolas-parke tematikoak bisitatuko du herria. Lehenengo aldia ez duten arren, aurrekoa orain sei bat urte izan zen; beraz, ume askorendako, ondo pasatzeko moduko eskaintza berria da honako hau, eta beste askok, orduan txikiak zirenek, berriz eta beste era batera gozatu ahal izango dituzte Kulkiren kirol eta jolasez.

Baserriko 12 jarduera

Kultur-kirolak hedatzeko, zenbait gai ardatz hartuta, jolas-parke tematikoak antolatzen dituzte Luisfer eta Patxi Etxeberriak. Bergarara Baserriko Kulki Parkea deitzen dena ekarriko dute hilaren 16an, astelehena, Kua-drillen Eguna. Ariznoa plazan ipiniko dute parkea, 17:00etan.

Luisfer Etxeberriak azaltzen du zertan datzan Baserriko Kulki Parkea: "Kirol parke tematikoa da gurea; honako hau baserriko

lanei lotuta dago, eta hamabi jarduera daude bertan, kirol arlokoak guztiak. Etortzen direnek aukera daukate 12 jarduera horietan aritzeko, modu librean".

Nahieran ibiltzeko paradaz gain, ume eta gaztetxoek badute beste aukera bat ere: Antzararen Jokoaren arabera jolastea. Etxeberriak honela azaltzen du: "Antzararen Jokoaren neurria dinamizatuta dago. Txoko baten, Antzararen horma-irudi batekin, badago halako joko bat, eta laukietan agertzen dira plazan dauden kirolak. Ume batek erabakitzen badu horren arabera jolastea, dadoa bota eta tokatzen zaion

Modu librean edo Antzararen Jokoaren arabera egin daitezke lanak

laukian dagoen joko egingo du". Gaineratzen duenez, "badago dinamika berezi bat, umeen eta familien neurrikoa".

Laiak, hanka-palo gisa

Parkean egongo diren jarduerak "kirol bihurtu diren baserriko lanak dira; baserriko lanak, gaur egun herri kiroltan sartuta daudenak", esaten du Luisfer Etxeberriak. Adibidez, lasto-fardo altxaketa dago, eta Patxi Etxeberria bertan egongo da, umei edo gurasoei laguntzeko.

Beste kirol-joko bat hanka-paloen gainean ibiltzea da, herri batzuetan horrelako lasterketak egiten dituztelako, baina, kasu honetan, baserriko giroari lotzeko, hanka-palo gisa laiak erabiltzen dituzte.

Horiez gain, beste honako jokoak egin ahal izango dituzte ume eta gurasoek: txinga-eroatea -baserriarekin lotuta egon dadin,

txingak kaikuak dira Kulki parkean-, lokots-bilketa, gurdiak eramatea, eta beste batzuk, dozena bat joko zenbatu arte.

2 urtetik gorakoendako

Kulki parkearen arduradunaren esanetan, "adin guztietako umeendako egokia da parkea". Izan ere, honakoa gaineratzen du: "Bilatzen duguna da askotariko adinak integratzea, eta, parke tematikoa denez, baserriaren gainekoa, ume bakoitza, bere adinaren arabera, bere erara integratzen da. Laien jokoan, adibidez, 2 urteko ume txoa etortzen bada, geuk edo

Jarduera guztiak erabiltzaileen adinera egokituta egin ahalko dira

gurasoek lagunduko diogu laietara igotzen eta tipi-tapa pauso batzuk ibiltzen; aldiz, 12 urteko gaztetxo bat etortzen bada, bera bakarrik ibil dadin lagunduko diogu".

Europako elkarte bateko kide

1997an sortutako proiektua da Kulki, Lizarran dute egoitza nagusia, eta jendartean kultur-kirolak sustatzea du helburu; Kirol Tradizionalen Europar Elkarteko (JUGAJE) kidea da ekimen hori. Elkarte horretako partaide dira Europako hainbat herri kirol elkarte eta sustatzaile, eta baita mundu akademikoko eragileak ere. Helburua da herri kirolek sustatzen dituzten balioak aitor-tzea eta hedatzea eta ondare hori babestea, eta baita herri kirolak egin daitezen zabaltzea eta laguntzea ere. Hori txikitandik egin daitekeela erakutsiko dute Kulkikoek Bergarako jaietan.



IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.U. MARGO LANAK OROKORREAN

Ondo
pasa
jaixetan!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32



Raizabal gozotegia

1908tik zuekin
eskerrik asko guztioi

eta ondo pasau jaixak!

Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83

Umeendako gozamina, jaiak hasten diren momentutik

Txupinazoaren ondoren, barrakak, parrillada eta erromeria izango dituzte

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Txupinazioa bota eta gero irekiko dituzte Matxiategin barrakak. Txartelen prezioa gehienez 2 eurokoa izango da, eta lau bidaiako bonuarena, 6 eurokoa; jostaleku berritzaileen kasuan, 2,50 euro da bidaiak. Maiatzaren 16ko goizean eta maiatzaren 18an eta 22an, euro 1 kostatuko da bidaiak; berritzaileetan, 1,50 euro. Tonbolan, bi boleto euro 1en truke salduko dituzte; bost boleto erosiz gero, 2 euro kobratuko dute.

Familiarendako aisialdia

Jaietako lehen egunean, maiatzaren 13an, txupinazoko ospakizunak bukatu eta segituan, auzolanean parrillada prestatu eta jateko aukera izango dute ume eta gurasoek; segidan, Mugi Mugi erromeria. Ekintzak 20:30ean hasiko dira eta Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatu dute. Parrilladarako produktuak azokan erositakoak izango dira, eta auzolanean prestatuko dute.



Barrakak izango dira Matxiategin, umeek eta helduek ondo pasatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

Parrillada eta ondorengo erromeria haurrek eta gurasoek elkarrekin dantzan egiteko pentsatuta dago. Parrillada guztian egoten

den giroa horretara zuzenduta dago: seme-alabek eta gurasoek elkarrekin jaietako giroaz eta aisialdiaz disfrutatzen.

Afaria Azokan izango da, eta erromeria, Oxirondo plazan; eguraldi txarra egiten badu, ekintzak Seminarioko karpan egingo dira.

Demasa Eguna ospatuko dute txosnetan

Kilometroak 2016 jaialdiko antolakuntzaren eta Xaxauren eskutik, Demasa Eguna izango da domeka, hilak 15, txosnetan; izan ere, seme-alaba eta gurasoendako ekintzak egongo dira Bideberriko txosna gunean. Hala, 12:00etan elkartuko dira seme-alaba eta gurasoak, eta gurasoek prestatutako joko eta jolasak egingo dituzte.

Adin guztietako umeendako eta gurasoendako ere, Imanol Ituiñok magia emanaldia egingo du 17:00etan.

PLASTIKA SARIKETA

Zapatuan, 86. Haur eta Gazteen Simon Arrieta Plastika Sariaketa izango da San Martin Plazan.

JOLASPARKEAK

Bi jolasparke izango dira jaietan, horietako bat, Arrizuriaga azpikoa, 7 urtetik beherakoendako (maiatzak 15, goiz eta arratsalde); bestea, Ipintzakoa, ume eta gaztetxoendako (maiatzak 17, goiz eta arratsalde).

Inork ez daki zaintzen zerbait, sortu duenak baino hobeto

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**


Sematec Guipúzcoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala

943 76 06 61

www.guipuzcoa.saunierduval.es



Saunier Duval



Bergarako Pentekosteak astebetez musika estilo ezberdinez blai

Kepa Junkera, Aukeran Dantza Konpainia eta Oihan Vega arituko dira San Martin plazan

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Energiaz beterik datoz Pentekosteak aurten, erromeriek eta orkestrak alaituko dituzte Bergarako kaleak berriz ere. Erromeriez eta orkestra taldeez gain, hainbat izen esanguratsuk beteko dituzte Bergarako plazak; besteak beste, Kepa Junkerak, Oihan Vegak eta Aukeran Dantza Konpainiak *-Fusioak* lana aurkeztuz-.

Erromeriatik orkestrara

Maiatzaren 13an gaueko bederatzia eta erdietan emango die hasiera jaiei Mugi Mugi erromeria taldeak, herriko txikiendako, honako hau haurrei zuzenduta baitago. Haurrentzako kantuak joz alaituko dute Oxirondo plaza. Helduek ere izango dute dantza egiteko aukera, gaueko hamaiketatik aurrera, San Martin plazan. Bertan, En Tol Sarmiento taldeak bertso ugari eskainiko ditu gau osoa dantzan aritzeko. Astelehena, hilak 16, alaitzeko Nuevo Talisman orkestra taldea iritsiko da Bergarara goizeko hamabi eta erdietan eta gaueko hamaiketetan Espoioian herria dantzan jartzeko. San Martin plazan erromeria izango dute herritarrek astelehenean bertan, gaueko hamar eta erdietatik aurrera, Garilak 26 taldearen eskutik.

Izen esanguratsuak herrian

Kepa Junkera trikitilariak alaituko ditu kaleak Sorginak neskekin batera San Martin plazan zapatuan, hilak 14, gaueko hamaika eta erdietan. Musikan 35 urte diharduela ospatzeko, *Trikitixaren historia txiki bat* diskoko abestiak joko ditu, baita ekainean kaleratuko duen beste abesti berriren bat ere. Aukeran Dantza Konpainiak hartuko du erreleboa domekan, hilak 15. Arratsaldeko zortzi eta erdietatik aurrera arituko dira dantzan *Fusioak* lana aurkeztuz San Martin plazan. Taldearen lan guztien koreografia-bilduma bat aurkeztuko dute; Aramaion egon ziren pasa den urtean, eta arrakasta handia izan zuten; bada, berriz itzuliko dira Debagoienara. Dantza utzi eta disko-festara pasatuz, Oihan Vega DJ bergararrak emango die amaiera Pentekoste jaiei martitzenean, hilak 17. Arratsaldeko zortziatik hamarretara arituko da. Ostean, hamabi eta erdiak arte ere arituko da, San Martin plazan herriko gaztetxo eta helduei azken musika nobedadeak eta betiko abestiak eskainiz. Orain asko entzuten diren kantuak jarriko ditu; besteak beste, *Picky*, *La Traidora*, *Sueños de color...* Bergararrek jaiak primeran bukatzeko.

KEPA JUNKERA | TRIKITILARIA

"Ilusio handia egiten dit Bergarara joateak; badakit bertan oso musika-zaleak direla, eta tradizio handia dago"

Kepa Junkera trikitilari bilbotarra Bergarara hurbilduko da Sorginekin batera maiatzaren 14an gaueko hamaiketean.

Sorginekin zatorz Bergarara; zer du berezi beraiekin jotzeko?

Egia bihurtu den amets bat izan da Sorginak proiektua, orain dela bi urte amesten hasi nintzena. Denbora luzea pasa dut amets honekin imajinatzen eta zoragarria izan da neskekin aritzea. Orain ere disko bat grabatzen amaitu berri dugu, ekain hasieran argitaratuko duguna. Ilusio handia egiten dit Bergarara joateak. Badakit bertan musika ikaragarri gustatzen dela, eta tradizio handia ere badago. Bailaran historian asko jo izan da trikitia, eta tradizio handia dagoen tokietan jotzea pozgarria da benetan. Bergara

leku horietako bat da; gogoan dut trikitia jotzen hasi nintzenean ilusio handia egiten zidala herri horietara joateak. **Nolako izango da Bergarako erreperitorioa?**

Azkenengo diskoa joko dugu, batik bat, *Trikitixaren historia Txiki bat*, eta disko berriaren abestiak ere jotzea espero

dugu. Disko asko ditut, eta zaila da erreperitorioa aukeratzea. Min handia sentitzen dut askotan, gerturaten den jendeak ez baititu entzun aspaldian kaleratu nituen kantuak zuzenean. Niregatik izango balitz, kantu guztiak joko nituzke.



Kepa Junkera eta Sorginak. | KEPA JUNKERA



Lagun Garajea

Santalaitz, 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Ondo pasa
jaixetan!

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Ondo pasa jaietan!

Proiektuak · Koltxoia
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



Aukerab dantza taldea *Fusioak* lana aurkezten. | IMANOL SORIANO

EDU MURUAMENDIARAZ | AUKERAN DANTZA KONPAINIA

"Bergarako ikuskizuna berezia izango da eta espero dugu gustukoa izatea"

Edu Muruamendiaraz Aukeran Dantza Konpainiako koreografoa da. *Fusioak* ikuskizuna aurkeztuko dute Bergaran.

Zer du berezia *Fusioak* ikuskizunak?
Aukeran Dantza Konpainiaren azken urteetan egindako koreografiaren bilduma da, espazio eta herri bakoitzera egokitzen dena.

Aramaion aurkeztu zenuten ikuskizuna duela gutxi; zer moduz bailaran arituta?

Ondo, ikusgarria izan zen. Ez dugu aukera askorik izan bailaran jotzeko, eta aprobetxatu egin behar dugu.

Ikuskizuna kanpoan egingo duzue; zer diferentzia sumatzen duzue kanpoan edo barruan arituta?

Sortzen den giroa ezberdina izaten da, aukera ezberdina bai espazio eta teknika aldetik –argiak...-. Ekarriko

ditugun koreografiak dantzatzen dugun espaziora moldatuko ditugu.

Zenbat egongo zarete oholztan eta zer espero duzue Bergarako ikuskizunaz?

Zortzi dantzari arituko dira. Herri bakoitzean ikuskizun desberdina ekartzen dugu; beraz, hau ere berezia izango da. Espero dugu Bergarako ikuskizuna ondo joatea eta ikuslea gustura gelditzea.

Etorkizunerako bestelako proiekturik?

Apirilaren 17an gure azken ikuskizuna estreinatu genuen, *Maurizia*. Horrez gain, *Geltokia* ikuskizunaren funtzio pare bat gelditzen zaizkigu egiteko eta *Alos Quartet & Aukeran & Oteka Tx* proiektuan 4-5 emanaldi egingo ditugu. *Fusioak* ikuskizunarekin Sevillan eta Washingtonen ere arituko gara.



Oihab Vega disko festan. | GOIENA

OIHAN VEGA | IRRATI ESATARIA ETA DJ-A

"Laugarren aldia da Bergaran disko festan aritzen naizena; oso pozgarria da"

Oihan Vega bergarra laugarren aldiz arituko da bere herrian maiatzaren 17an, zortzietatik aurrera, eta azken nobedadeak eskainiko ditu.

Zure herrian arituko zara...

Plazera da nire etxean egotea, nire jendearekin. Txiki zirela ezagutzen nituenak 15 urterekin gerturaten zaizkit, eta denbora luzea pasa dela konturatzen naiz. Gogoan dut nik 15 edo 16 urte nituela Joseina Etxeberria etorri zela, eta bertan aritu nintzen dantzan; eta orain, ni nago agertoki gainean. Eboluzio hori izan dudala antzematea...

Nola prestatzen duzu disko-festa?

Beti izaten ditut kantu sorta batzuk ondo funtzionatzen dutenak. Esne Beltzaren *Nahi dut* kantuak eta *Ikusi mendizaleak* abestiak beti

funtzionatzen dute eta edonon kalejira bat lor dezaket. Disko-festa, azken finean, demokrazia da, nik ez dut jartzen nik nahi dudana, jendeari gehien gustatzen zaizkion abestiak jartzen ditut. Beti moldatu behar izaten dut erreperitorioa, beti etortzen delako norbait abesti bat eskatzera.

Inoiz eskatu dizute ezagutzen ez zenuen abesti bat edo harritu zaituen bat?

Askotan gertatu izan zait abesti bat eskatu eta kantua zein den ez jakitea. Ezagutzen ez ditudan kantuak ere deskubritzen aritzen naiz; lehen, irratiari ematen genuen askotan abesti berrien berri, baina orain, gaztetxoek gu baino lehenago ezagutzen dituzte abesti asko. Gauzak aldatzen doaz; Youtube, Facebook eta Twitter bidez segituan entzuten dituzte nobedadeak.

construcciones
Goitu
eraikuntzak S.L.

Ondo pasa jaiak!



- Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
- Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
- Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektuak...

Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Ondo pasau
jaietan!

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

Kuadrillen eguna eta bertako giroa, gustuko

Jaietako ezinbesteko parte diren herritarrek nahiago dutena eta gehituko luketena partekatu dute

1. Jaietan zer egitea gustatzen zaizu gehien, edo zer egiten duzu?

2. Zure esku balego, zer gehituko zenuke?



GREGORIO JIMENEZ

"Lehen, zezen jaialdiak plazan egiten zituzten eta parte-hartze handiagoa izaten zuten"

1. "Nik jan-edan eta parranda; norma-lean, jende gehienak egiten duena, tabernarik taberna ibili; giro handiena izaten den eguna martitzena da, kuadrillen eguna".

2. "Ba, ez dakit, dena debekutzen dabil-tzanez... lehen, adibidez, zezen jaialdiak plazan egiten zituzten eta parte-hartze handiagoa izaten zuten".



LAMINE SARR

"Senegaldar kulturarekin lotutako ekitaldiak gehituko nituzke, hemen senegaldar asko bizi da"

1. "Gehien gustatzen zaizkidanak dira senegaldarren gaineko kulturarekin lotutako ekimenak, baina ez dira asko egoten".

2. "Musika kontuak, janariarekin lotutakoak... senegaldar kulturarekin lotutako ekitaldiak gehituko nituzke, ze, gainera, senegaldar asko bizi da-eta hemen".



MARIASUN GARDOKI

"Jaietan gauza asko daude; norbera girotu behar da, poztu eta martxa!"

1. "Neure herria ez dut lagatzen jaietan, eta, giro ona egiten badu, ahal dudan guztietan mendira noa edo hondartzara... gero, hemengo giroa ikusi eta jai itxura atera".

2. "Nire ustez, nahikoa gauza dago jaietan; gauza asko daude; norbera girotu behar da; poztu eta martxa! Martxoso izan beharra dago".



OLATZ ELORTZA

"Astelehenetan egoten den giroa gustatzen zait gehien; gutxien, egoten den zarata eta zezenak"

1. "Astelehenean egoten den giroa; Bergarako jendea eta Bergarako giroa. Zapatuan eta domekan jende larregi egoten da eta kanpora joaten naiz; afariren bat ere egiten dut...".

2. "Aldatzekotan, hemen egoten den zarata gutxitu, edo, behintzat, ordu gutxiagotara mugatu; zezenak ere ez zaizkit gustatzen, baina bueno".

efizientzia energetikoa
ziurtagiri energetikok

irigaritasuna igogailuak

jai zoriontsuak!

zetabi
arkitektura bulegoa

zetabi@zetabi.eu 943 76 53 09



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Ondo pasa Pazkoetan!

Nagore Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 162-A

Alaitz Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 611

Elkarteak, bakailao onenaren bila

Iaz Basalgo elkarteak irabazi zuen lehiaketa eta aurten ere parte hartuko du bikote irabazleak

ENEKO AZURMENDI | BERGARA

Herriko hainbat elkarte gastronomikok bakailao onena prestatzeko ahalegina egingo dute aurten ere Pazkoetako Bakailao Lehiaketan. Hainbat mota eta zaporetako bakailaoak prestatzen

dituzte partaideek, eta epaileek lan zaila izaten dute, normalean.

Maiatzaren 14an, zapatua, izango da sariketa, goizeko 11etan, San Martin plazan.

Elkarte bakoitzetik bi pertsonaz osatutako talde bakarrak

parte hartu ahal izango du lehiaketan, gehienez.

Irabazleei tartea

Iaz Basalgo elkarteak irabazi zuen, Osintxuko Aiz-pe eta Santa Ana elkarten aurretik.



Jenny Higuera eta Antonio Gonzalez. | I.S.

AIZ-PE ELKARTEA

Kultura desberdinak uztartuz

Bigarren postua eskuratu zuten Osintxuko Aiz-pe elkarteko Jenny eta Antoniok iaz. Hiru urtetan segidan hartu dute parte bakailao txapelketan eta behin irabazi ere egin zuten.

Txiletarra da bat eta bergarra bestea, eta sukaldean ederki ulertzen dute elkar. Aurten ere, txapelketa eginez gero, parte hartuko dutela nabarmendu dute, txapelaren bila.

BASALGO ELKARTEA

Pazientziaz eta poliki prestatu

Denbora eskaini eta poliki-poliki egiten utzi. Hori izan zen Basalgo elkarteko Roberto Maiztegiaren eta Angel Martinen sekretua pil-pil saltsa egoki prestatu eta iazko bakailao lehiaketa irabazteko. Urte asko daramatzate lehiaketan parte hartzen eta kuadrillan hiru elkarte desberdinetako bikoteak dituzte: Basalgo, Arrano eta San Juan elkarteetakoak, hain zuzen. Guztiak kontuan hartuta, bost aldiz, behintzat, irabazi dute lehiaketa hau. Kuadrilla honetan neurria hartuta diote pil-pil saltsari.



Roberto Maiztegi eta Angel Martin. | IMANOL SORIANO

SANTA ANA ELKARTEA

Bakarrik ere posible da

Bost edo sei urte daramatza David Martinezek bakailao lehiaketan parte hartzen, bikotekide ezberdinekin. Iaz, hala ere, bakarrik parte hartzea suertatu zitzaion, baina maila ona eman eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Inoiz ez du lehiaketa hau irabazi, baina aurten irabazteko gogoz da. Unai Arebalillo izango da bere bikotekidea aurten.



David Martinez bakailaoarekin. | I.S.




- Ateak
- Leihoak
- Horma armairuak
- Tarimak
- Parket flotatzaileak
- Sukaldeak

ONDO PASAU JAIK!

Arotz lanetan behar duzun guztia



Telleria 19, BO2 -BO3 BERGARA • TEL.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
azkaratearotza@gmail.com



Duela hogeiei urteko Bergarako jaiei begiradatxoa

1996ko jaiei errepasoa: gauza asko mantentzen dira eta beste batzuk, aldiz, atzean geratu dira

XABI GOROSTIDI | BERGARA

Gogoratzen al dituzu duela hogeiei urteko Bergarako jaiak? Oroitzapen lauso horiek argitzeko, ondorengo argazki sorta lagungarria izango da.

1996ko Pazkoetako irudi hauek erakusten dutenez, jaietako gauza asko oraindik mantentzen dira.

Elkarteen arteko txapelketa, gaztetxoentzako margo eta marrazki lehiaketa edota herri bazkaria diren horren erakusle. Azken honek 22 urte beteko ditu aurten eta irudietakoa bigarren edizioa izan zen. Hasieran, Jardunek antolatzen zuen; eta orain, aldiz, Udalak. Ez da aldaketa bakarra;

izan ere, lehen, martitzenean egiten zen, eta duela zortzi urte astelehenera pasa zen.

Galdutako ohiturak

Urte hartan laugarren txekorke-ta ospatu zen. Beste zortzi gehiago egin zituzten, eta azkena 2004koa izan zen.

Buruhandiak, lehengo eta oraingo jaietako protagonista

Jaiak eta buruhandiak eskutik doazen lagunak izan dira beti. Urte hartan ere, buruhandi eta erraldoiek kaleak alaitu zituzten udal txistulari bandaren laguntzarekin.

Ordutik hona, Bergarako konpartsako kideek buruhandi eta erraldoi asko mantendu dituzte, baina pertsonaia berriak ere sortu dituzte.



Gaztetxoak euren marrazkiak eskuan dituztela. | BERRIGARA

Margo txapelketa herriko gazteentzat

Herriko gazteentzat antolatutako margo eta marrazki txapelketaren XV. edizioa ospatu zen.

Hamabost urtetik beherako gaztetxoek euren artelanak sortzeko aukera izan zuten. Aurtengoa txapelketaren 35. edizioa izango da.



Orkestrakoak hamargarren urteurrena ospatzen. | BERRIGARA

Orkestra Sinfonikoak hamar urte

Urtebetetze borobil hori ospatzeko, *The Lion King* filmeko soinu-bandan oinarritutako kontzertua eskaini zuten Bergarako frontoian.

200 lagunek hartu zuten parte bertan. Orkestrako musikari gazteez gain, Aritzeta Orfeoia eta Orfeoi Gaztea ere izan ziren ikuskizuneko partaide. Film arrakastatsuko doinuez gain, hamar urteotan zehar jotako piezak ere landu zituzten.



Umeak eta buruhandiak Bergarako kaleetan zehar. | BERRIGARA

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40,20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Bazkalosteko karaokea. | BERRIGARA

Herri bazkaria Bideberrin, jaietako azken egunean

Jaietako herri bazkariaren bigarren edizioa izan zen 1996koa. Lehena San Martinen izan zen, baina bigarrena Bideberrin egin zuten.

Honela azaldu zuen Nekane Gabilondok, Jarduneko dinamizatzaileak, leku aldaketa: "Txosna askorik ez dago, eta, gazte gehienak hor egoten direnez, lekuri aproposena iruditu zaigu". Bazkalostean, kuadrilletako kideek txosnetako agertokia erabili zuten karaokea egin eta bazkalostea girotzeko.




Sukaldaritza lehiaketako parte hartzaileak. | BERRIGARA

Bergarako elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa

San Martin plaza herriko elkarten arteko sukaldaritza lehiaketaren testigu izan zen. Trikitilariak girotuta, bakailaoarekin lanean aritu ziren hainbat elkartetako kideak.

Galdu edo irabazi, giro alaian ondo pasatzea eta herriko jaiak elikatzea izan ziren parte hartzaileen helburuak.



Toreatzaile gazteak zezen plazan lanean. | ARGAZKILARIAXXX

Zezenzaleak taldeak antolatutako Txekorketa

Urte hartan txekorketak egin zituzten zezen-plazan.

Salamancako Lopez Chaves ganadutegiaren zezenek hartu zuten parte eta Jesus Millan eta Luis Antonio Gaspar. Paulita gazteak izan ziren toreatzaileak.




Txokolate Revenge talde bergararra. | BERRIGARA

Txokolate Revenge taldearen kontzertua

Txokolate Revenge rock talde bergararak kontzertua eskaini zuen Bideberrin. Horrez gain, talde horretako Amaia Arriaran abeslariak Orkestra Sinfonikoaren kontzertuan jardun zuen, bakarlari.





Zazpi erakusketa Bergarako tabernetan


Herriko eta bailarako margolari eta argazkilariek hilabetea amaitu arte euren lanak aurkeztuko dituzte

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Bergaran artisten erakusketak ikusteko aukera egongo da, taberna eta gozotegietan. Aroztegi aretoan Javier Vicenteren argazkiak egongo dira maiatzaren 5etik 22ra. Nahikari tabernan Ion Leibar bergararraren margolanak egongo dira maiatzaren 8tik aurrera. Idoia Elexpururen margolanak Dixula tabernan egongo dira, Gilermo Azkarate eta Agustín Azkargortarenak Pol-Polen, Maite Azkargortaren akuarelak Raizabal gozotegian, Josefe Diaz de Tuestaren argazkiak Artesanen, eta, azkenik, Jon Lopezen argazkiak Hamaikan.



Javier Vicente argazkilariairena lana. | JAVIER VICENTE



Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilariairena lanetako bat. | JOSEFE DIAZ DE TUESTA

ARTISTEN FITXA

Javier Vicente

Argazkiak Bergarako kaleetan ateratzen ditu. Herritarren egunerokotasuna erakutsiz.

Idoia Elexpuru

Zortzi margolan inpresionista eta neoinpresionista sortu eta aurkeztuko ditu.

Guillermo Azkarate eta Agustín Amosorrain

Inauteriak gai nagusi modura hartu dute, eta aurten ateratako argazkiak erakutsiko dituzte, guztira 13.

Maite Azkargorta

Akuarela eta akrilikoazko paisaia eta ilustrazioak erakutsiko ditu.

Josefe Diaz de Tuesta

Gatzagarrei erretratuak egiten ibili da; guztira, 230 bildu ditu. Liburu bat sortu du bildumarekin.

Jon Lopez

Hamaika margolan, erretratu, paisaia eta figurez beterik. Kuriositatea du pertsonalitatean.



Agustín Amosorrain margolariaren lanetako bat. | AGUSTÍN AMOSORRAIN



Akuarelez sorturiko Maite Azkargortaren lanetako bat. | MAITE AZKARGORTA



Zumaiaiko flysch-a Elexpururen margolanean. | IDOIA ELEXPLURU



Jon Lopez margolariaren lana. | JON LOPEZ

ELUSU


CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK S.A.



Tel.: 943 76 45 50 - 679 00 40 89
Arruriaga 5
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
elusueraikuntzak@telefonica.net
www.construccioneselusu.com

Ondo pasau jaixetan!

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Lokal komertzialak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak
- Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak
- Gremioen koordinazioa
- Proiektuak



ZORION AGURRAK



ARRASATE
Julen Bermejo Lage
Maiatzaren 10ean, 9 urte. Zorionak, *guapo!* Muxu handia, familiaren partetik.



ARETXABALETA
Maddi de Cesero Eraña
Maiatzaren 10ean, 10 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat, etxeko eta laguneren partetik, eta belarri tirakada galanta, Noraren partetik.



ARRASATE
Naia Martinez Oruna
Maiatzaren 9an, 7 urte. Zorionak, maittia. Zure urtebetetze eguna oso ondo pasa dezazula desio dugu, bihotz-bihotzez. Jadanik 7 urte! Etxeko printzesa zara. Patxo potolo-potolo bat, etxeko guztien partetik. Maite zaitugu.



ESKORIATZA
Oier Garcia Izquierdo
Maiatzaren 9an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu pila bat, zure familiaren partetik. Aupa Athletic!



BERGARA
Erik Gartzia Perez
Maiatzaren 8an, 5 urte. Zorionak, Erik, txapelduna! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Iratiren, Noraren, Eleneren, Jurgiren, Aneren eta Anderren partetik!



ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 3 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta jarraitu etxea pozez eta iribarez betetzen. Asko maite zaitugu, txapeldun. Muxu asko, etxeko danon partetik.



OÑATI
Aiantze Arregi Orueta
Maiatzaren 7an, 6 urte. Zorionak, *guapo!* Ondo pasatu zure eguna! Patxo bat aitatxoren, amatxoren, Iraiaren eta Aneren partetik! Mua!



OÑATI
Mara Mugarza Urizar
Maiatzaren 7an, 7 urte. Ene... gure neska handiak 7 urte bete ditte jada. Zorionak, pitxin! Ondo ospatu eta tartako kandlei gogor ein putz! Infinitura!



BERGARA
Erik eta Ane Beistegi Alvarez
Erikek maiatzaren 7an, 2 urte eta Anek 16an, 6 urte. Urte askotarako, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunak eta muxu bero-beroko, familiako guztien partetik.



OÑATI
Malen Agirrebalzategi Lizarralde
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Lau urteko neskatila handia egin zara. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolateko muxu goxo-goxoak etxeko guztien eta, bereziki, Eleneren partetik.



ARETXABALETA
Oxel Aldalur Zuazua
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu erraldoi bat Nikoleren, amatxoren eta aitatxoren partetik.



OÑATI
Aner Urrutia Garcia de Albeniz
Maiatzaren 5ean, 6 urte. Zorionak Aner! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Aiora Diaz Aizpurua
Maiatzaren 4an, 11 urte. Oso ondo pasatu eguna. Muxu handi bat, aittaren, amamaren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
Unai Bellido Gonzalez
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Izaroren partetik.



ANTZUOLA
Ibone Urzelai Otaegi
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak, potxoli! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo handi bat, familiako danon partetik!



OÑATI
Ane Urigoen Osa
Maiatzaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, Anetxo! Muxu handi bat, familia danaren partetik.



BERGARA
Aiur Lezeta Iturralde
Maiatzaren 2an, 4 urte. Zorionak, politx hori! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu gu denok pozez betetzen. Muxu pila-pila, patata tortila, zure arriben, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ANTZUOLA
Enaitz Irizar Izqueta
Maiatzaren 2an, 5 urte. Urte askotarako, polit hori! Ondo pasatu zure eguna eta izan beti horrelako mutiko zoragarria. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Oier Iturbe Garmendia
Maiatzaren 2an, 7 urte. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat danon partetik.



BERGARA
Endika Ibaibarriga Bengoa
Maiatzaren 2an, 12 urte. Zorionak, Endika, 12 urte jada. Muxu handi bat etxeko partetik. Maite zaitugu.



BASAURI
Koldo eta Imanol Astigarraga Bellido
Koldok maiatzaren 2an, 6 urte eta Imanol apirilaren 1ean, 3 urte. Zorionak aitonaren eta 'abu'-ren partetik.



OÑATI
Uxue Lopez Las
Maiatzaren 1ean, 9 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna, Uxue! Maite zaitugun guztien partetik. Egun ederra pasatuko dugu!



OÑATI
Aiora Aranzadi Umerez
Maiatzaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Aiora! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna, etxeko eta bereziki, Aneren partetik. Patxo handi bat, potxola. Mua!



ARRASATE
Jule Herrarte
Maiatzaren 1ean, 3 urte. Ederto pasatu eguna, Jule! Muxu handi-handi bat!




ARRASATE
Ibai eta Haizea Murgia
Ibaik maiatzaren 1ean, 10 urte eta Haizeak maiatzaren 6an, 7 urte. Zorionak familia osoaren partetik eta besarkada handi-handi bat!



ARETXABALETA
Iban Gonzalez Seijo
Maiatzaren 1ean, 14 urte. Zorionak! Heldu dira 14 urte! Disfrutatu eta segi horrela! Muxu handi bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Unax Maeztu
Apirilaren 30ean, 7 urte. Zorionak, maitia! Dagoeneko 7 urte. Ondo pasatu eguna etxeko guztien eta, bereziki, Anderren, Iratiren eta Aratzen partetik. Muxu pilo bat!



OÑATI
Hegoi Martinez Rueda
Apirilaren 30ean, 5 urte. Zorionak, Hegoi! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxu handi bat gure partetik! Itoitz, aitatxo eta amatxo. Muak!



ARETXABALETA
Igotz Cantera Herrasti
Apirilaren 30ean, 4 urte. Oso ondo pasatu zure eguna. Zorionak eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Aner Jara Moya
Apirilaren 29an, 9 urte. Zorionak, txiki. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Besarkada handi bat, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Izar Bedia Delgado
Apirilaren 28an, 21 urte. Zorionak, Izartxo! Azukrezko goxoki pottokiak eta mosutxuak, laguneren partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunean. Txaka.



OÑATI
Laia Zurutuza Garcia de Albeniz
Apirilaren 27an, urtebete. Zorionak, *printzesa!* Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarakoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEAGOIENAN



GOIENA

Bergarako Kantariko azken saioak ikusgai

Asteburu honetan estreinatuko dira, Goiena telebistan, Bergarako Kantari karaoke ikuskizunetan grabatutako azken bi saioak. Zapatuan eta domekan eskainiko dira, eta astean zehar errepikatuko dira. Ikus beheko taulan emisio ordutegiak.

'Kantari'
Zapatua, 09:00



EMUSIK 2016

Emusik jaialdia, astelehenean

Gaur, egubakoitza, eta bihar hainbat kontzertu eskainiko dira, Europako musika eskolen topaketaren barruan, Debagoieneko hainbat herritan. Bertako musika eskoletako ikasleek ere parte hartuko dute eta *Debagoiena zuzenean* saioan jasoko da.

'Debagoiena zuzenean'
Astelehena, 20:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8	ASTELEHENA, 9	MARTITZENA, 10	EGUAZTENA, 11	EGUENA, 12
12:00 Debagoiena zuzenean	09:00 Kantari	09:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bertso saioa	09:30 Platopic	09:30 Platopic	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Harira	12:30 Erreportajea: Lurretik
13:00 Korapilo	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Osoko bilkura: Arrasate	13:30 Korapilo	13:00 Platopic
13:30 Zaindu zaitetz	10:30 Kantari	10:30 Kantari	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Erreportajea: Lurretik	15:00 Amaia DJ	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	11:55 Astea iruditan	11:30 Amaia DJ	15:30 Onein	15:00 Harmailatik	15:00 Atlantikoa helburu	14:30 Berriak
15:00 Geure altxorrak	12:00 Osoko bilkura: Arrasate	12:00 Harira	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:25 Hurbilean	15:00 Erreportajea: Lurretik
15:30 Onein	14:00 HARIRA	13:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Geure altxorrak	15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Debagoiena zuzenean	13:55 Astea iruditan	17:00 Aizank!	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	16:00 Astea iruditan	14:00 Osoko bilkura: Arrasate	18:00 Platopic	17:00 Zaindu zaitetz	17:00 Zaindu zaitetz	16:30 Berriak
17:00 Aizank!	16:05 Platopic	15:00 Aizank!	18:30 Berriak	17:30 Geure altxorrak	17:35 Ikusmira	17:00 Hurbilean
18:00 Ur eta lur	16:30 Kantari	16:00 Platopic	19:00 Kantari	18:00 Atlantikoa helburu	18:00 Ur eta lur	17:30 Harira
18:25 Zorion Agurrak	17:00 Korapilo	16:30 Kantari	19:30 Amaia DJ	18:30 Berriak	18:30 Berriak	18:30 Berriak
18:30 Berriak	17:30 Korapilo	17:00 Korapilo	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Korapilo	19:00 Harira	19:00 Korapilo
19:00 Kantari	17:30 Amaia DJ	17:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	19:30 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Erreportajea: Lurretik
19:30 Bertso saioa	18:00 Osoko bilkura: Arrasate	18:25 Astea iruditan	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Harira	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
20:30 Berriak	19:55 Astea iruditan	20:00 Kantari	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Kantari	20:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Erreportajea: Lurretik	21:30 Berriak
21:30 Berriak	20:30 Amaia DJ	21:25 Astea iruditan	23:00 Berriak	22:00 Harira	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Mahai-ingurua: Gemma Zabaleta eta Reyes Prados
22:00 Amaia DJ	21:00 HARIRA	21:30 Osoko bilkura: Arrasate	23:30 Amaia DJ	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Harmailatik	23:30 Harira	23:30 Berriak
23:00 Berriak	22:55 Astea iruditan	23:25 Astea iruditan	00:30 Berriak	00:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Erreportajea: Lurretik	23:30 Berriak
23:30 Zaindu zaitetz	23:00 Erreportajea: Lurretik	23:30 Osoko bilkura: Arrasate	01:00 Berriak	01:00 Berriak	00:30 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Debagoiena zuzenean		00:00 Harira	01:30 Harira	01:30 Harira	01:00 Berriak	01:00 Berriak
00:30 Berriak						
01:00 Amaia DJ						

ARRASATE IRRATIA

Doke antzerki taldearen estreinaldia hizpide

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute Doke antzerki taldekoek *Aingeru ala kurriloi?* antzezlan berria Aramaion. Eta astelehenean, proiektu berri horri buruz eta estreinaldiaz hitz egitera egitera etorriko da Doke taldeko Mariasun Pagoaga, Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioa, 11:00etan.

Dantza emanaldirako eta kontzerturako sarrerak zozketan

Eguenean Eraso taldea izango da Arrasateko gaztetxean 22:00etan kontzertua eskaintzen, eta *Aureo* dantza ikuskizuna eskainiko da, berriz, Amaia antzokian hilaren 14an, 19:30ean. Horiatar joateko sarreraren zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.eus era.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 6	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Zapatua, 7	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
Domeka, 8	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Astelehena, 9	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 10	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Eguaztena, 11	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguena, 12	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
BERGARA			
Egubakoitza, 6	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 7	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 8	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 9	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 10	URRUTIKOETXA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 11	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 12	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Egubakoitza, 6	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 7	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 8	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 9	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 10	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 11	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 12	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoz izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 22°
Min. 13°




Max. 22°
Min. 13°

ZAPATUA, 7
Giro ezegonkorra espero da; baliteke zaparrada batzuk botatzea, eta ekaitzak ere jo dezake momenturen batzuetan.

DOMEKA, 8
Zeruan hodei ugari izango dira eta gutxitan zabalduko dira ostarteak. Hala ere, espero da ekaitzik ez botatzea.

EUSKAL HERRIA



Orokorrean temperatura altuenak 20 graduren bueltan geldituko dira. Giro nahasia izango da.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Maialen eta Jesus

Maialen eta Jesus orain dela 50 urte ezkondu ziren, maiatzaren 7an. Urrezko ezteiak ospatuko dituzten honetan, zorionak eta egun ederra ospatu, seme-alaben eta biloben partetik!

ESKER ONA

Pilar Jauregi Loiti

2016ko apirilaren 29an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 6an.

ESKER ONA

Donato Iburguren Unanue

Felisa Iturrinoren alarguna



2016ko apirilaren 28an hil zen, 95 urte zituela.

Gure minak eta negar-zotinak arindu eta azken agurrean lagundu gaituzuen denei, bihotz bihotzez, mila esker.

Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

ESKER ONA

Jose Luis Urrutia Makazaga

Maritxu Larrañagaren alarguna



2016ko apirilaren 30ean hil zen, 93 urte zituela.

Gure minak eta negar-zotinak arindu eta azken agurrean lagundu gaituzuen denei, bihotz-bihotzez, mila esker.

Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

ESKER ONA

Bittor Olalde Beloki

'Kamiñero'



2016ko apirilaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

Emaztea: Carmen Barrena. Seme-alabak: Victor (+), Moises eta Ana Alonso, Ines, Beatriz, Elena eta Javier Murua (+), Judith eta Antonio Murua, Ana eta Felix Esnaola.
Bilobak: Josu eta Sheila, Ainhoa, Maider, Aimar, Iban, Asier eta Leire, eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi eta bereziki, Oñatiko Musika Bandari, Abesbatzari eta Oñatiko Musika Eskolari.

Ondretako meza zapatuan izango da, maiatzaren 7an, agustindarren elizan, 19:30ean.

Oñatin, 2016ko maiatzaren 6an.

OROIGARRIA

Bittor Olalde Beloki

'Kamiñero'



2016ko apirilaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

*Senar kuttuna
Aitta ona, Aittaita hobia
Musikazale amarratua
Eskuzabala**Bihotz haundixa
Zuk itxittako hutsunia
Ez da behinguan beteko
Eskerrik asko danagatik, aitta.*

Oñatin, 2016ko maiatzaren 6an.

OROIGARRIA

Kontxita Aranzabal Albizu

2016ko apirilaren 26an hil zen, Galdakaon, 85 urte zituela.

Zure anai-arrebek gogoan izango zaitugu.

Joxe Mari, M. Carmen, Caroli, Roberto, Sebastian (+), Angel (+), Antton (+) eta Maritxu (+).

Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

OROIGARRIA

Joseba Larrinaga Perea

1968-06-05 / 2013-05-07

Maite izan zaitugunok gogoan zaitugu, Joseba.

Tia Mikela eta etxeko guztiak.
Aretxabaletan, 2016ko maiatzaren 6an.

OROIGARRIA


Jesus Mari Errasti Lazkano

2016ko apirilaren 27an hil zen.

Danon lagun ona izan zarelako, ez zaitugu ahaztuko.

Zure anai-arrebak, koinatuak eta lobak.
Legazpin, 2016ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA


Guiomar Fernandez Aguirre

Gernikan-Bergaran hil zen 2012ko maiatzaren 12an, 35 urte zituela

Joan zinen gu hemen utzita, baina jakin ezazu inoiz ez zaitugula ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Martin Larrañaga Aguirrezabal**

2015eko maiatzaren 22an hil zen, 87 urte zituela.

Bere emazteak, seme-alabek eta bilobek haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela domekan, maiatzaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari izango den urteurren mezara.

Aldez aurretik, mila esker.
Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Marcelino Goenaga Goenaga**

2015eko maiatzaren 13an hil zen.

Urteurreneko meza domeka honetan izango da, maiatzaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

Angel Altube Iñurritegi

2015eko maiatzaren 4an hil zen, 63 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2016ko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Jesus Garzia-Etxabe Ugarte**

2015eko maiatzaren 9an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 8an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2016ko maiatzaren 6an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Aitor Garai Elorza. Aretxabaletan, apirilaren 25ean. 50 urte.
Isabel Unamuno Urkiola. Bergaran, apirilaren 25ean. 87 urte.
Kontxita Aranzabal Albizu. Galdakaon, apirilaren 26an. 85 urte.
Jesus Mari Errasti Lazkano. Legazpin, apirilaren 27an.
Rosario Zulueta Uribe. Arrasaten, apirilaren 28an. 88 urte.
Donato Iburguren Unanue. Bergaran, apirilaren 28an. 95 urte.
Pilar Jauregi Loiti. Arrasaten, apirilaren 29an. 86 urte.
Bittor Olalde Beloki. Oñatin, apirilaren 29an. 88 urte.
Sebastian Lasa Nuin. Arrasaten, apirilaren 29an. 77 urte.
Antonio Merchan Tena. Arrasaten, apirilaren 29an. 59 urte.
Jose Luis Urrutia Makazaga. Bergaran, apirilaren 30ean. 93 urte.
Amelia Garcia Castillo. Arrasaten, maiatzaren 1ean. 85 urte.
Gabino Orobengoa Biteri. Arrasaten, maiatzaren 3an. 86 urte.
Lamberto Agirre Durana. Bergaran, maiatzaren 3an. 83 urte.

ARRASATE 'Pinocchio'

Papera eta zura ipiniko ditu neska-mutikoen eskura La Baldufa taldeak. Haur-txotxongilo baten irudimenean sartuko dira umeak, hezkuntzaren, ahaleginaren, erantzukizunaren eta zintotasunaren inguruan hausnartzeko. Pinotxo bat nola egiten den ikusteko aukera ere izango dute.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan



PAZO DA CULTURA



GOIENA

ARAMAIO 'Aingeru ala kurriloi' antzezlanak Doke taldearekin

Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako lana. Hiru ahizpa eta iloba baten arteko harremana kontatzen du. Istorioa iragan mendeko erdialdean kokatzen da. Mariasun Pagoaga, Arantza Ezkurra, Maider Alzelai eta Dorita Murgia oholtzan. Bihar, zapatua, kultura etxean, 20:00etan.

MUSIKA**DEBAGOIENA Emusik jaialdia**

Europako musika eskoletako taldeen emanaldia Donostia 2016 ekimenaren barruan. Debagoieneko hainbat herritan egingo dituzte. Ikus *Herriak* atala. Gaur, egubakoitza, eta, bihar, zapatua.

ARRASATE Liherr

Lide Hernando donostiarra dago Liherr izenaren atzean. Taldearekin egingo du emanaldia. Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 22:30etan.

ARETXABAETA Emanaldia: haize-instrumentuak

Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldia. Maiatzaren 10ean, Arkupen, 18:00etan.

ANTZERKIA**ARETXABAETA 'Paperezko istorioak'**

Donostiako Behi Bis taldeak istorio hunkigarria ekarriko die 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian arrakasta handia izan zuen hausnarketa eragiten duen kontakizuna izango da. Sarrerak, hiru euro. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

MAIATZA 6
MAIATZA 12

ERAKUSKETAK**LEINTZ GATZAGA 'Kapulana bat zintzilik'**

Mundukideren 15. urteurreneko argazki erakusketa. Maiatzaren 6ra arte, kultura etxean.

BERGARA Javier Vicente

Bazen behin herri txiki batean delako erakusketa ipini du argazkilari bergararrak. Maiatzaren 22ra arte, Arkupen.

OÑATI Xabin Egaña

Margolanak daude ikusgai. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute. Maiatzaren 22ra arte, kultura etxean.

OSPAKIZUNAK**ESKORIATZA San Juan Txiki eguna**

Askotariko ekintzak egingo dituzte: 10:00etan etxafuegoak eta kanpai jotzea, 10:30ean Elizabarrira

igoera, 11:30ean meza eta 12:00etan trikitilariak girotuta salda eta txorizoa. Bihar, zapatua, Mendiolan, 10:00etan.

ARRASATE Corazon de Encina

Arrasateko estremaduraren elkarrekin kultura astea egingo du. Bihar eta etzi, karta-jokoen txapelketak egingo dituzte, 16:30ean; maiatzaren 10ean, 12 urte artekoendako pintura lehiaketa; 11n, argazki lehiaketa; eta 12an, txokolate-jana eta umeendako puzgarriak. Aipatutako egunetan eta orduetan, Corazon de Encina elkartean.

BERGARA Irukurtzeta Eguna

11:15ean salda eta pintxoak banatuko dituzte. Etzi, domeka, Irukurtzetan.

ELGETA Aseztio Eguna

12:00etan meza ermitan, eta ostean luntxa, Uberako, Angiozarko eta Elgetako trikitilariekin. Etzi, domeka, Aseztion.

BERGARA Beart eguna

Margolarien elkarteko kideek euren lanak erakutsiko dituzte. Etzi, domeka, San Martin plazan, 12:00etan.

HITZALDIK**OÑATI Ramon Flecha**

Ikas Komunitateen sustatzailearen solasaldia, Elkar Hezik gonbidatuta. Saioa irekia izango da. Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 15:00etan.

ARAMAIO Infusioak eta azukrea

Lorabari astearren barruan infusio dastatzea eta azukreari buruko solasaldia egingo ditu Amaia Diaz de Monasteriogurenak. Etzi, domeka, erretiratuen elkartean, 17:30etan.

ARAMAIO Sendabelarrak

Sendabelarrak, kostu baxuko terapiak, elikadura eta osasuna izango ditu hizpide Josep Pamiesek. Gazteleraz. Maiatzaren 10ean, kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABAETA 'Euskal Herri itsastarra'

Jon Maiaren hitzaldia, herritar guztiendako. Maiatzaren 10ean, Kurtzebarrin, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Euskal Estatua irudikatzen'

Zer da euskal estatua? Nola irudikatzen dute euskal herritarrek? galderak erantzuten ahaleginduko da EHUko irakasle Julen Zabalo. Ele bitan. Maiatzaren 10ean, Zaldibarren, 19:00etan.

BERGARA Pedro Luis Uriarte

Goienagusi elkarteko kidearen hitzaldia. Maiatzaren 11n, udaletxean, 10:00etan.

OÑATI Kirol ekintzetako segurtasunaz

Kirol ekintzak martxan ipintzeko dauden ardurei eta erantzukizunei buruz egingo dute berba Asier Osinagak, Arantza Rojok eta Jose Antonio Landabereak, Oñatiko Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak gonbidatuta. Maiatzaren 11n, kultura etxean, 18:30etan.

ANTZUOLA 'Zer da Goienar?'


Irabazi asmorik gabeko energia kontsumoko kooperatibako kide Alex Lopezen hitzaldia. Elkarrekin aurkezpena egingo du. Maiatzaren 11n, Olararen, 19:00etan.

Goiena Klubeko maiatzeko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

**Kindle-a**

Parte hartzeko sariaren izena: Kindle

**Liburu sorta**

3 liburuko pack-a (Laminen sekretua, Urpekariak, Leize-zuloko misterioa).

Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak

**ARRIKRUTZ****Sarrerak**

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**

E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [Saria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Lasa jatetxean prestatutako izokin ketua, tostada kurruskari eta arrauçtza-nahaski gainean.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-05-06

BUKATZEKO

Huhezin baso-eskola eredua lantzen

- Ikasgela tradizionala alde batera utzi eta umeak basoan hezten dituen hezkuntza eredua da
- Europa erdialde eta iparraldean tradizio luzea du, eta Euskal Herrian indarra hartzen doa pixkanaka

XABI GOROSTIDI | ESKORIATZA

Haurren hezkuntza aurrerapen teknologikoetan oinarritzen ari da gero eta gehiago. Errealitate horren aurrean, bestelako hezkuntza ereduak aldarrikatzen dituzten guraso eta elkarteak daude eta baso-eskola da eredu horietako bat. Naturari garrantzia eman eta umea erdigunean kokatzen duen eredu da. Horretarako, lehen urratsa basoa ikasgela bihurtzea da. Bi eta sei urte bitarteko haurrak espazio naturalan hazten dituzte, naturarekin etengabeko kontaktuan. Alemanian lehen baso-eskola 1968an sortu zen, eta 1993a ezker baso-eskola itunduak dituzte.

Huhezi fakultateko Hazitegi ikertaldea 2001 ezker darama haurtzaroaren garapen osasuntsuaren inguruko ezagutza erakitzten. Bertako kide Alex Barandiaranen esanetan, "Europar tradizioa duen arren, nahiko eredu berria da Euskal Herrian eta interesa pizten ari da".

Askotariko onurak

Umeak aire librean hezteak hainbat onura eragin ditzake. "Helburua haurrak bere testuinguru erreala ulertzea bada, bide aproposa da baso-eskolaren eredu",



Alex Barandiaran, Maitane Hidalgo, Naiara Zia eta Itziar Arregi, Hazitegiko kideak. | XABI GOROSTIDI

adierazi du Barandiaranek. Eredu tradizioaletan errealitatearekin jokatu beharrean, errealitatearen errepresentazioarekin jokatzeko da. Baso-eskoletan, aldiz, errealitatea ukitu eta ikuspuntu global batetik jorratzen da. "Ez

ditugu errealitate zatiak gelara eramaten, errealitateaz bertan jabetzen direlako", gaineratu du Itziar Arregik, Hazitegiko kideak.

Haurren garapen sentsorial, motor, kognitibo zein psikologikoan eragin positiboak edukitzeaz

gain, haurrek gaixotasun gutxiago hartzen dituzte. Eskandinavian eta Europa erdialdean hemen baino baldintza klimatiko gogorragoetan hezten dira, eta ikerketek baieztatzen dute osasuntsuago hazten direla.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Otoi, zatoz etxera!

Madrilgo Hauteskundeak, paradisu fiskalak, Garbiñe Biurrunen ezetza, zaborrak nora eraman, guztiak izan dira hizpide egunotan, eta kolaborazio hau idazteko gaia ezin aukeratu...

Asteazken gauean entzun nuen, ordea, erabat hunkitu ninduen berria, eta, orri zuria-aren aurrean jarrita, nire nahiak, bihotzak eta ordenagailuaren teklatuak ezinbestean naramate egunotako gai aspertuetatik ihes egin eta XVIII. mendera, Lapurdiko arrantzaleei, herri minez, familia gosez eta bihotz minez etxekoek idatzitako gutunena aurkikuntza zoragarria.

Le Dauphin itsasontziak zeramatzen lapurtarren 50 gutun euskaraz idatziak, Lapurdiko jende xeheak idatziak. Baionatik irteten eta Ternuatik gertu dagoen Louisbourg uhartera abiatu ziren 1757ko apirilaren 9an. Erresuma Batuko itsas armadaren itsasontziak harrapatutako ontzian zihoaizen familien jakin-minak, eguneroko kontakizunak, ametsak, kalamidadeak eta, batez ere, behin eta berriz gutun hauetan errepikatzen den erregua: otoi, zatoz etxera! Hunkigarria gutunak maitatuengana inoiz iritsi ez zirela jakitea eta hunkigarria garai hartan euskaraz hain eder eta garbi idazteko ohitura zutela ikustea.

EROSKI

ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



MAIATZAREN 5etik 7ra arte

Sollik bazkideentzat

Oparitzen dizugu

BEZa*

TERRAZAN eta LORATEGIAN

(kanpoko altzarrietan, kanpaketan, barbakoan, igerilekuan eta lorategian)

*Kutxiak pasatzean, sollik bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da. Aste 5,21 BEZ (behar 100 €-re geroztik) ematen da, baina 17,35 € sollik bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da. EROSKI Club bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da. EROSKI Club bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da. EROSKI Club bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da. EROSKI Club bazkideentzat BEZa EROSKI Club hartzen da.



Zure EROSKI club Txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.